

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziak. 2007
2. *Pierre Charriton*. Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande*. Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*. Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*. Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Biziaren Hiztegia. 2009
8. *Gorka Aulestia*. Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*. Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza* Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*. Jesü Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia*. Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile*. Xiberoko antzertia edo pastora. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant*. Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet*. Amodiaren Martirra. 2013
22. *Jean-Baptiste Coyos*. Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. 2013
23. *Pierre Charriton*. Le fondement moral des droits culturels de l'homme (kultura eskubideen oinarri etikoak). 2013
24. *Pierre Dourisboure*. Bahnar deitu salbaiak. 2014
25. *Mongongo Dassanza*. Albaitaritzako idazlanak (1692-1892). 2014
26. *Ignazio Omaetxebarria*. Euskara barrutik. Estudios de lingüística vasca. 2016
27. *Resurreccion Maria Azkue*. Ardi galdua. 2018
28. *Jakes Sarrailet*. Janpierra Lexardoarteren bizitza edo Basabürtiaren trajeria. 2018
29. *José Agerre Santesteban*. Biografía de Arturo Campión. 2019
30. *Adrien Gachitoguy*. Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko. 2019
31. *Joakin Bermingham*. Joakin Berminghamen solasak. 2020
32. *Emil Larre*. Emil Larre 1926-2015. Lekukotasun, kantu eta idazki. 2020
33. *Jean-Louis Davant*. Ozaze Jaurgainean. 2020
34. *Jon Casenave*. Euskal literaturaren historiaren historia Gurea nola konda? 2020
35. *Jean Elizalde Zerbitzari*. Zerbitzariren lan hautatuak. 2021
36. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Ene bertsoen bilduma. Errimarik ez, arrazoirik ez / Recueil de versification. Sans rimes ni raisons. (1951-2021). 2021
37. *Jean-Louis Davant Iratgabal*. Blanca eta Viana. Nafarroako Blanca trajeria. 2021
38. *Allande Socarros (1957-2021)*. Euskal idazlan eta lekukotasun. 2022

*EUSKALTZAINAK* izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



Laguntzailea

Euskararen  
erakunde  
publikoa

Office public de  
la langue basque



9 780412 184631 01



EUSKALTZAINDIA

38

EUSKAL IDAZLAN ETA LEKUKOTASUN

ALLANDE SOCARROS (1957-2021)

ALLANDE  
SOCARROS  
(1957-2021)

## EUSKAL IDAZLAN ETA LEKUKOTASUN

Paratzailea: Jean-Baptiste COYOS



EUSKALTZAINDIA



38

EUSKALTZAINAK BILDUMA



ALLANDE SOCARROS

Etxebarren (Zuberoa) sortu zen 1957ko uztailearen 12an, eta Maulen (Zuberoa) hil, 2021eko abenduaren 9an.

Euskaltzain urgazle izendatua izan zen 2018ko uztailearen 20an. Euskaltzaindiaren lau batzordetan lan egin zuen: Euskalkien lantaldean (2013- 2021), Euskara Batuaren Eskuliburua batzordean (2017-2021), Euskara Eskuz Esku egitasmoan (2018-2020) eta Onomastika batzordean (2019-2021).

Ofizioz argazkilaria izanez, laster kazetaritzara joan zen. Aldizkari anitzetan idatzi zuen, nahiz euskara batuaz, nahiz zubereraz: *Zeruko Argian*, *Egian*, *Abilen*, *Ekaitzan*, *Argian*, *Jakinen*, *Herrian*... baina nagusiki lanbidez *Euskaldunon Egunkarian* eta *Berrian* (1900-2008).

Laurogeiko hamarkadatik goiti militante abertzalea izan zen eta bizi osoan militantea egon, lehenik Iparretarrak taldean eta ondotik politikagintza instituzionalean, Etxebarreko hautetsi gisa, Xiberoko Herri Alkargoan eta Euskal Hirigune Elkargoan. Kazetaritza gain, lan anitz eraman zituen sare sozialetan, itzulpengintzan, kolaborazioak Xiberoko Botza irratian, Zuberoako Sü Azia elkarte kulturean, eta abarretan. Liburu zenbait argitaratu zituen eta zuberera zorrozki landu zuen, euskara batuarekin zubia eginez. Oro har, erran genezake Zuberoako eta zubereraren enbaxadorea izan zela.

Euskaltzale eta militante politiko izateaz gain, mendizale sutua zen. Hor ere lan anitz eraman zituen Borttikariak taldearekin, jakitate handia metatuz.





ALLANDE SOCARROS (1957-2021)  
EUSKAL IDAZLAN ETA LEKUKOTASUN

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren  
Azkue Bibliotekako katalogoan: [www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en  
el catálogo de la Biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles  
sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque :  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka,  
Royal Academy of the Basque Language: [www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Euskara batuan idatzitako testuen hizkuntza-orrasketa:  
Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

© Sü Azia

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopia, erregistratua edo beste bitartekoa beraz transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S. L.

ISBN: 978-84-125463-1-6

Lege gordailua: BI 01058-2022

ALLANDE SOCARROS (1957-2021)

EUSKAL IDAZLAN  
eta LEKUKOTASUN

Paratzailea: Jean-Baptiste Coyos

EUSKALTZAINDIA

SÜ AZIA

BILBO, 2022



## AURKIBIDEA

### AITZINSOLASA

Jean-Baptiste *Battitu* COYOS, euskaltzainburuordea ..... 11. or.

### EUSKAL IDAZLAN HAUTATUAK.....23. or.

#### *Euskaldunon Egunkaria*

“Urtarrilean maskarada egingo dute Zuberoan”,  
Kultura, 1990-12-06.....25. or.

“Eguraldi onak kalitatea eragin zuen ‘Santa Kruz’  
pastoralaren bigarren agerraldian”, Kultura, 1992-08-18 .....26. or.

“Veilek negurako aterberik gabe direnei laguntzeko  
plangintza aurkeztu du”, Estatuak, 1993-II-05 .....27. or.

“Elf-Aquitainaren pribatizazioak hiru milioi  
akzio-erosle lortu ditu”, Estatuak, 1994-02-16 .....29. or.

“Castellon autobus istripua izan zuten ikasle  
frantziarrak etxerat itzuli dira”, Estatuak, 1995-04-11 .....31. or.

“Kontradizioa”, Ganbaratik, 1995-05-10 .....32. or.

“Südu Gotorra eta gogora”, Bidaide, gogaide,  
2003-01-10 .....33. or.

#### *Berria egunkaria*

“Eskupekoen lausengua Polinesia Frantziarra”, 2003-07-27 .....35. or.

“Bidartetik Donibane Lohizunera”, 2007-01-12 .....38. or.

“Trajeriaren gudukan ere, garaile”, 2021-07-27 .....40. or.



**Herria astekaria**

- “Domingo Garat pastoralaren eskentzeko, gure haidürü da Pagola!”, 2019-07-25 ..... 43. or.
- “Sü Azia alkarreak... *XiberoKazt* abiarazten dü!”, 2021-07-15 ..... 46. or.
- “Aurten bai *Abdelkader* trajeriaren aldi datekeala!”, 2021-07-22 ..... 48. or.
- “Sü Azia alkarreak bi ützülpän lan berri argialatü dütü”, 2021-10-07 ..... 51. or.

**Jakin aldizkaria**

- “Euskal kultura”, 1998, *Jakin* 109 ..... 55. or.
- “Euskal kultura”, 2005, *Jakin* 151 ..... 60. or.
- “Euskal kultura”, 2013, *Jakin* 199 ..... 65. or.

**Liburu batzuk: testu laginak**

- “Züberoa: ezagüna eta ezezagüna”, in *Züberoa Herria Le Pays de Soule*, 2013, *Elkar* ..... 71. or.
- “Eüskara: honetsirik bena halarik ere galbide gorrian!”, in *Züberoa Herria Le Pays de Soule*, 2013, *Elkar* ..... 72. or.
- “Laborantxa: herriaren bizi-seinale egon beharko dena”, in *Züberoa Herria Le Pays de Soule*, 2013, *Elkar* ..... 74. or.
- “Zerentako hiztegi ttipi hau?”, in *Euskara batua/Züberera Hiztegi ttipia*, 2016 eta *Hiztegi ttipia, 1. parte*: *Euskara batua/Züberera 2. parte*: *Züberera/Euskara batua*, 2019, Sü Azia ..... 77. or.
- “Sar-hitza Eüskara lehen eta orai... Ziberoko Egünaria (1887-1914)”, in *Ziberoko Egünaria. Eüskara leben eta orai*, 2017, Sü Azia ..... 78. or.
- “Aita Junes Casenave-Harigile gogoan”, in *Pastoralen gerla Urdiñarbe – 1909-1912 2. parte*: *Aita Junes Casenave-Harigile gogoan*, 2020, Sü Azia ..... 83. or.

### Hiru elkarrizketa: Allande Socarros elkarrizketatua

- “Guk ez diogu gure historia inori zor, guhaurek egin dugulako”, in *Ipar Euskal Herriko Hitza*, 2014-01-13 ..... 85. or.
- “Allande Socarros: “Inkestek gezurrak esaten dituzte; euskararen egoera larria da Xiberoan””, in *Gara eta Kazeta.eus*, 2020-07-27 ..... 93. or.
- “Euskal Herri bat behar da, euskalduna behar du izan”, in *Argia*, 2020-10-11 ..... 99. or.

### LEKUKOTASUN BATZUK

- Iker ARANBURU. “Aunitz maite duenak aunitz sofritzen du” ..... 111. or.
- Jean Mixel BEDAXAGAR. “Eta maita Herria üken dezadan plazera” ..... 113. or.
- Eneko BIDEKAIN. *Kazetari eta gogoetolari* ..... 117. or.
- Xan COSCARAT. “Guk ez diogu gure historia inori zor, guhaurek egin dugulako” ..... 121. or.
- Jean-Louis DAVANT. *Allande Socarros (1957-2021)* ..... 125. or.
- Beñat ESPIL. “Militantziak bizitza bartü deit” ..... 129. or.
- Manu GOJENOLA. *Allanderen jakintza eta ümorea* ..... 137. or.
- Jean Pelle IRIART. *Allanderi omenaldia* ..... 141. or.
- Peio JORAJURIA. *Allande Sokarros, Herria astekariko berriketari* ..... 143. or.
- Beñat LARRORY. *Allande Socarros eta Xiberoko Botza: lagüntzale, kronikalari eta administrazale azken bogei urte horietan* ..... 153. or.
- Jean-Claude SÉHÉBIAGUE. *Bortükariak* ..... 159. or.
- Andres M. URRUTIA. *Allande Socarros gogoan, Zuberoa ikusmiran* ..... 163. or.



## AITZINSOLASA

Jean-Baptiste *Battittu* Coyos

*Euskaltzainburuordea*

Eskuetan duzun liburu honen bidez Euskaltzaindiak eta Sü Azia elkarteak Allande Socarros (1957, Etxebarre – 2021, Maule) euskaltzain urgazlea nahi lukete omendu. Allande Socarrosen bizitza biziki aberatsa izan zen, nahiz euskaltzale gisa, nahiz abertzale gisa. Hemen euskaltzalearen ekarpenak azalduko ditugu nagusiki, baina abertzalearen ikusmoldeak eta egintzak ez ahanzteko Allanderi egin zizkioten elkarrizketa batzuk berrargitaratzen ditugu, bai eta ezagutu zuten lankide eta adiskide zenbaiten lekukotasunak ematen ditugu. Horiei esker, egin duenaz gain, Allanderen nortasun konplexu, nekaezin eta hunkigarria deskubrituko dugu. Bestalde, Allanderen jakitatea biziki handia zen. Urtez urte Euskal Herriari eta bereziki Zuberoari buruz jakitate hori metatu zuen kultura alorrean edo mendietakoan, politika alorrean ere bai. Berdin euskararekin, zubererari eta euskal batuari buruz jakitate sakona eskuratu zuen, hori landuz etengabe, zuberera ama-hizkuntzatik abiatuz. Unibertsitatean iragan gabe, erranen nuke Allande “landa-intelektual” handia bilakatu zela, erramolde hau ulergarri baldin bada. Autodidakta jakintsu bat. Eta hori umorea eta zirtoak sekula ahanzi gabe, lehenik bere buruaz.

Liburua bi zatitan banatua da: lehenean Allandek berrogei bat urtez argitaratu zituen artikulu edo liburu zati hautatuak proposatzen ditugu, bigarrean Allande ongi ezagutu zutenen lekukotasun batzuk. Banan-banan ikusiko dugu zein diren testu horiek eta nola Allanderen lan ugari, ezberdin eta balagarriak laburbiltzen saiatzen diren. Helburu nagusia da berrogei bat urteko ibilbide emankor eta etenik gabeko horri ikuspegi orokor bat ematea.

Bistan da, bortxaz, Allanderen lan anitz ez ditugu hemen aipatuko. Adibidez bizitzaren zehar egin zituen itzulpen lan ugariak Euskararen Erakunde Publikoa, Xiberoko Herri Alkargoa eta Mauleko hiriarendako, Zuberoako Ühai-

tza kultur etxea, haurrentzako *Pika* aldizkaria, Ikas euskal pedagogia zentroarendako, eta abar. Zuzentzaile izan zen ere Sü Azia elkarte, Xiberoko Botza irratia, beste elkarte batzuetarako. Ez dugu ere aipatuko irratigintzan egin zuen lana, bereziki Zuberoako Xiberoko Botza irratia-arendako. Blog bat bazuen ere bai, Hitza Pitz (<http://hitzapitz.over-blog.com/>), eta aktiboa zen sare sozialetan. Halaber, Zuberoako gau eskola laguntzen zuen eta udan antolatzen ziren ikastaldietan bere laguntza ematen zuen.

Bigarren zatian dauden lekukotasunek argibide anitz emanen dizkigute hemen azaltzen ez diren Allanderen lanei, kolaborazioei eta ekimenei buruz. Militante abertzale izan zen bizi osoan, Iparretarrak taldean, gero Etxebarre herriko zinegotzi eta Xiberoa Herri Alkargoako presidenteorde hamabost bat urtez, nahiz politika instituzionalean ez zuen anitz sinesten.

Kazetari ofizioaren lanak izan ezik, lan erraldoi horren ezaugarri nagusietarik bat zen musu-truk egiten zuela Allandek. Jean-Louis Davantek bere lekukotasunean saildu laiotzat ematen du, Allande fededun ez zelarik, erranez Euskal Herriaren eta euskararen zerbitzuko jarri zela osoki apez bat Elizaren zerbitzura joaten den bezala. Hemen argitaratzen ez dugun elkarrizketa batean Allande berak hori erran zuen 2007an: “Militantziak bizitza hartu dit”<sup>1</sup>. Bere burua euskararen zerbitzari gisa definitzen zuen hemen publikatzen dugun beste elkarrizketa batean, “baina politika ikuspuntu batetik, eta politika ikuspegi batera”<sup>2</sup>.

Allanderen lehen lanbidea argazkilaritza izan zen, baina laster horretaz gain kazetaritzara joan zen. Lehen urratsak *Zeruko Argian* egin zituen eta Iparraldeko aldizkari politikoetan, euskaraz bere burua alfabetatuz, Mende Berri kultura elkartearen *Gernika* hilabetekarian, *Abil* aldizkarian (Zuberoan) eta gero *Ekaitza* astekari elebidunean (1986), azken horren argitalpen-zuzendaria luzaz izanik hainbat epaiketa judizial jasanez. Bestalde, ber denboran, batua ikasi zuen *Zeruko Argia* irakurriz eta, ondotik erran bezala, bertan idatzi zuen. Gero *Euskaldunon Egunkaria* eta segidan *Berria* egunkarietan hemezortzi urtez lan egin zuen, Estatuak sailean bereziki, Frantziako eta nazioarteko berriez arduratuz (1990-2008). Haren idazteko moldeak kalifikatzeko, erran nezake egoerak, ekintzak, gertakariak zorrozki eta zehazki azaltzen zituela, ongi menderatzen baitzuten.

---

<sup>1</sup> *Argia*, 2109 zk., 2007ko azaroaren 4a, <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2109/batasuna-egitearekin-dogma-bezala-ez-naiz-ados>, 50. or.

<sup>2</sup> *Argia*, 2703 zk., 2020ko urriaren 11, <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2703/allande-sokarros>.

Baina bere ikusmoldea han-hor ematen zuen umorea baliatuz edo deskribatzen zuenaren gogortasuna edo injustizia azalduz.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren lekukotasunean Allanderi idatzi dizkion hitzak hartuz, hau da, laburbilduz, liburu honen edukia: “(...) hona gure omenaldi xumea baina sentitua, zure eginikoen mailara iristen ez dena baina zure lekukotza etorkizuneko euskal belaunaldien eskuetara eramán nahi duena. Hor dituzu, zure testuekin batera, hainbat testigantza, zure bizitzaren berri ematen dutenak, eta zure ezaugarrietara bilbatzen direnak”.

### Euskal idazlan hautatuak

Allanderen euskarazko lan idatziak erakusteko, hautu bat egin dugu lagin batzuk hemen emanez. Hasiko gara kazetari gisa aldizkari ezberdinetan idatzi zituen artíkulu hautaketa batekin. Aldizkari horiek denak ez dira hemen agertuko, adibidez *Zeruko Argia*, *Zuberoako Egia* eta ondotik *Abil* hilabetekariak, *Ekaitza* aldizkari politikoa edo *Argia* astekaria.

*Euskaldunon Egunkarian* idatzi zituen zazpi artíkulu hautatu ditugu, egunkari horren lehen zenbakian agertu zenetik hasiz (1990-12-06). Aipagaiak ezberdinak dira, euskal kazetari batek bere lanean topatzen dituen gaiak: maskaradak lehenbiziko artíkulan, pastorala, Frantziar aterberik gabe direnei laguntzeko plangintza, Elf-Aquitaine enpresaren pribatizazioa, Castelloko probintziar frantziar ikasle autobus baten istripua, Kontradikzioak deitu iritzi artíkulu bat non euskal kulturaren ekitaldi batean euskararen ez erabiltzea salatzen duen, eta azkenean artíkulu aski luze bat argazki eta maparekin Biarnon den Südu mendiar buruz ibilaldiko xehetasunekin. Erran behar da Allande mendizale sutsua zela eta mendiar buruzko jakitate handia zuen. Biziki ongi menperatzen zuen euskara batua baliatzen zuen hor, *Euskaldunon Egunkariak* hamahiru urte iraun zuen bitartean (1990-2003). Euskara batua baino “komunikaziozko euskara” deitzen zuen Allandek, holaxe euskaldunen arteko harremanetarako hizkuntza tresna zela azpimarratzen zuen.

Segidan, *Euskaldunon egunkaria* itxi ondoan, *Berria* egunkarian idatzi zuen Allandek kazetari gisa 2008 arte eta gero kolaboratzaile gisa. Hemen hiru artíkulu argitaratzen ditugu, horietan idatzi zituen lehena eta azkena.

Lehenean Polinesia Frantziarra du aipagai. Frantziaren aldeko diren alderdikoek eta alderdi abertzaleen ikusmoldeak azaltzen ditu eta proba nuklearren salaketa egiten du. Allandek hurbiletik jarraitzen zituen mundu zabalean herriek eramaten zituzten autonomia edo independentziaren aldeko borrokak.

Bigarrenean Bidartetik Donibane Lohizunera itsasertzean doan xenda deskribatzen du, naturaren edertasuna aipatuz, baina ere Donibane Lohizuneko “eraikin itsutsien konpainia” salatuz. Edo belgikar batek bere hilobia eraikiarazi zuenaz, “Donibane Lohizune asko maite zuela”-kotz iruzkin hori egiten zuen: “Eskerrak Euskal Herria maite duten guztiei ez zaiela fabore hori ematen... bestela, alde guztiak mota askotako eraikinez josita izango balirateke!”.

Hirugarren artikuluan, 2021eko uztailaren 27koa denean, Ürrüstoin emanik izan zen Jean-Louis Davanten *Abdelkader* pastorala aipatzen zuen, hor ere pastorala (*trajeria* da izen zaharra eta testuaren izena) ongi ezagutzen ez dutenei xehetasun anitz emanez, baina bai ere bere ikusmoldea azalduz. Hori izanen da Allandek hainbeste maitatzen zituen pastoraletarik azkena.

Allandek aspaldidanik eta noizean behin idazten zuen Zuberoari buruz eta zubereraz *Herria* Iparraldeko astekarian, Jean-Louis Davant eta Panpeia Etxebarnerekin batera. Eta azken horren heriotzaren ondotik bakarrik segitu zuen Zuberoako berrien ematen 2016tik. Hemen lau artikulua argitaratzen ditugu, bi pastoraletik buruz. Irakurlearentzat parada izanen da ikusteko nola Allandek ongi idazten zuen zubereraz, zuberera sotil eta aberats batez.

Lehen artikuluan 2019ko Pagolako *Domingo Garat* pastoralaren azken mus-traka azaltzen du, beti irakurleari pastorala ikusteko gogoia ematen eta kasu honetan Domingo Garat pertsonaia nagusiaren bi aldeak erakusten, euskalduna eta frantsesa.

Bigarren artikuluan, 2021eko uztailaren 15ekoan, Marcel Bedaxagarrekin sortu zuen Xiberokazt *podcast* delakoa aurkezten zuen. Bi helburu nagusi zituzten, euskaldun xiberotar gazteei entzunaraztea nola adinekoek zuberera ahoskatzen zuten eta bestalde zubereran erabiltzen den alokutibotasuna erakustea. Hor ere gibelean ziren Allandek zituen euskararen bizindarraren axola eta bere jakitatea partekatzeke zuen gustua.

Hirugarren artikuluan, *Herriaren* ondoko asteko zenbakian, berriz pastorala aipatzen zuen, *Abdelkader* pastorala, jakinez Allandek pastoral denei buruz artikulua bat baino gehiago idazten zuela *Berrian* eta *Herrian*. Halaber egiten zuen maskaradekin.

Azken artikulua 2021eko urriaren 7koa da eta hau da *Herrian* idatzi zuen azkena. Sü Azia elkarteak argitaratu zituen bi itzulpen aipatzen ditu. Jakin behar da Sü Azia elkartearen helburu nagusia dela zubereraren sustengatzea, hedatzea, argitaratzea, eta lan horretan Allande lehen lerroan zen, bere denbora eta indarrak kalkulatu edo neurtu gabe.

Allandek *Jakin* aldizkarian ere kolaboratu zuen hamabost aldiz. Euskal Kultura sailean azaroa-abenduko zenbakietan 1998tik 2013ra (2006an salbu) idatzi zuen, bereziki Zuberoako bizitza kulturalaz. Hemen 1998ko, 2005eko eta 2013ko artikulua argitaratzen ditugu.

Lehenbiziko artikuluan, 1998koan, beretzat biziki garrantzitsua zen Zuberoari buruzko ikusmoldea irakurleari ohartarazten zion: “lehendabiziko idazlan honekin asmoa daukat zuberotar gisako gure berezitasunak ez duela bereizkuntza erran nahi azaltzeko”. Hau da, Zuberoak eta zubererak berezitasunak baldin badituzte, Euskal Herriko eta euskararen parte dira. Artikulu horretan *Atarratze* idazten baldin bazuen, Euskaltzaindiak *Atharratze* arautu zuena ez onartuz, gero *Atharratze* hasi zen idazten, ortografia arautua onartzeko kode amankomun bat zela eta ez besterik kontuan hartuz (2005eko zenbakian adibidez). Sü Azia elkarteak Maulen eta Atharratzen merkataritanga eraman zuen euskararen aldeko kanpainaren zailtasunak aipatzen zituen eta nola Zuberoa gero eta erdaldunago zen hola bukatuz: “Euskararen beherakada itzelaren kontutik, Ipar Euskal Herriko beste bi herrialdeei alderatuta, ez dugu berezitasunik... Peko errekarat goaz guztiak”. Halere, joera horri buru egiteko lan ildoak aipatzen zituen.

2005eko Euskal Kultura sailean deitzen zuen euskararen “paradoxa” azaltzen zuen, besteak beste. Hau da, euskararen onarpena gero eta handiago da Ipar Euskal Herrian, erabilpena gero eta beherago doalarik.

Azken artikuluan, 2013koan, besteak beste, salatzen zuen hautetsiek euskararen ortografiatzat ezaxola, panelak eta dokumentuak euskaraz idazteko mementoan, nahiz Euskaltzaindia eta Xiberoa Herri Alkargoaren Euskara zerbitzua hor zituzten. Frantses hizkuntzarekin ez zuten holakorik eginen. Orduan, euskararen ez ofizialtasuna salatzen zuen Allandek, euskara idatziaren presentzia handiagoaren eraginari buruz bere dudak agerraraziz edo pastoralaren arrakastaz “kontraesan” hori salatuz: arizale izan nahi duten herritarrak anitz dira baina horien artean euskaradun guti, gero eta gutiago.

Kazetaritza lanaz gain liburu batzuk idatzi edo paratu zituen Allandek. Azkena 2019an *Maule Lextarre* izan zen, Elkar argitaletxeak publikaturik Arian euskara ikasteko metodoa sailean. *Züberoa Herria – Le Pays de Soule* (2013 Elkar) liburu horietarik beste bat da, liburu elebidun zuberera-frantsesa, Jean-Louis Davanten kolaboraziarekin idatzirik, azken honek Zuberoaren historia aurkeztea bere gain hartu zuelarik. Liburu horren hiru kapitulu hautatu ditugu hemen argitaratzeko.



Lehena, Züberoa: ezagüna eta ezezagüna deitzen dena, aitzinsolasa dugu. Allandek Zuberoa hobeki ezagutarazi nahi zuen, erranez “Hanitxek uste düe ezagützea, bena ontsa soegiteko lana hartüz geroz, güti dakiela ohartüren dira”. Hegoaldeko euskaldunekin Zuberorako zubia izatea maite zuen eta gogo onez gidatzen zituen, berezitasunak ezagutarazten zizkien bere jakitate handia baliatuz.

Bigarren kapituluan, Eüskara: honetsirik bena halerik ere galbide gorrian!, Allandek berriz azpimarratzen zuen nola, euskara gero eta gehiago erakatsirik eta forma idatzian gero eta gehiago erabilirik ere, ahoz gutiago erabilia zela Zuberoan, zuberotarren ogena zela eta ez beste inorena ohartuz.

Hirugarren kapituluan, Laborantxa: herriaren bizi-seinale egon beharko dena deitzen denean, laborantzaz Zuberoan zuen arrangura azaltzen zuen etxaldean kopurua txikitzen zelarik, halaber hektara landuena eta laborantzako langileena. Ohart gaitezen Allande laborari-seme zela. Halere, itxaropena ematen zuten esperientza arrakastatsuak azalduz, Azkorria gaztandegiarena aurkezten zuen. 2006an Zuberoako hamazazpi ardi-hazlek langune berri hori sortu zuten beraien gazta egiteko, gaztandegi handiei ardi-esnea saldu baino. “Oro har, laborariek beren lanbidea eta izatea bera ere berek gobernatzearen ikusbide ederra eman eta emaiten dü Azkorriak” iruzkintzen zuen Allandek.

Erran bezala **Sü Azia** elkarteko zutabea zen Allande. Harekin liburu eta hiztegi ttipi batzuk argitaratu zituen. Horietan ere hautu bat egin dugu, hiru lagin adierazgarri eskainiz hemen.

Lehena da 2016ko *Euskara batua/Züberera Hiztegi ttipian* eta 2019ko *Hiztegi ttipia, 1. parte: Euskara batua/Zuberera 2. parte: Zuberera/Euskara batuan* egin zuen aitzinsolas bera. Hiztegi horietan zubereran diren hitz propioen baliokidea euskara batuan ematen zuen. Aitzinsolasean lauzpabost egia agerian ematen zituen: euskara bat baizik ez dela eta euskalki bat besteak baino gehiago edo hobe ez dela; hamar hitzetarik zortzi, bederatzi ez bada, berdinak direla Euskal Herri osoan, ahoskatze ezberdinak direlarik, eta beste hitzak ikasteko direla; euskara batua beharrezkoa dela euskaldunen artean elgar ulertzeko; euskarazko prentsa irakurtzeko zailtasunak badirela baina ikasi behar zela, frantsesez irakurtzen ez jakitea harrigarria litzatekeelarik...

Bigarren testua 2017ko *Eüskara lehen eta orai... Ziberoko Egünaria (1887-1914)* liburuaren aitzinsolasa dugu. Urtean behin agertzen ziren almanak horiek zubereraz idatziak ziren lexiko aberats eta orain baino mailegu gutxiek. Hilabeteetako izenak adibidez: *ostaroa* (martxoa), *jorraila* (apirila), *epai-*

la (maiatza), *bagila* (arramaitza, ekaina)... Allandek erraten du hor ez zuela ulertzen nola geroztik latinisatu ziren. Orduko “xuri”en eta “gorri”en arteko borrokaren testuinguru politiko eta erlijiosoa azaltzen du, almanak horiek xuriek idatziak zirela, hots hizkuntzaren sustatzale zorrotzak ziren euskaldunfededunek idatziak. Azken zatian Paris ondoan bizi zen Jean-Félix Larrieu mediku mauletar eta euskaltzain urgazlea aurkezten zuen, hura izan baitzen almanakaren arduraduna kasik denbora osoan.

Hirugarren testua, “Aita Junes Casenave-Harigile gogoan”, 2020ko *Pastoralen gerla Urdiñarbe – 1909-1912 2. partean: Aita Junes Casenave-Harigile gogoan* liburuko bigarren zatian hartu dugu. Erran behar da Allandek 2018an zendu zen ohorezko euskaltzain elizgizon zuberotarra anitz maite zuela eta haren euskararen aldeko lana anitz amiratzten zuela. Bere xedea zen orain arte argitaratuak ez ziren Aita Junesen lanak argitaratzea emeki-emeki Sü Aziaren Aita Junes Casenave-Harigile gogoan izeneko sail berezi batean.

### Elkarrizketak

Allandek idatzi zituen testu lagin batzuez gain, inkestatu gisa egin zituen hiru elkarrizketa argitaratzen ditugu hemen. Horietan Allanderen boza entzuten dugu eta abertzalea deskubritzen dugu, bere politika militanteren ibilbidea kontatzen baitu. Allanderen bizitzaren alde hori izigarri garrantzitsua zen, euskaltzalearen ibilbidetik bereizezina.

Lehen elkarrizketa 2014ko urtarrilaren 13an *Berría* egunkariaren *Ipar Euskal Herriko Hitza*n argitaratu zen, Ainize Madariaga kazetariak eramanik. Hor nola abertzaletu zen kontatzen zuen, hori beti umorearekin (“Umorerik gabeko jendarte bat sekta bat da; egitura totalitario bat!” ohartzen zen), nola Iparretarrak taldean sartu zen, klandestinitatean baina borroka armatua egin gabe, nola atxilotua izan zen bi aldiz; gero nolako Zuberoako hautetsi izan zen: “Bide egin dezakezu abertzale ez direnekin. Jendarteak ez du harresien beharrik, zubiena baizik”. Hor Allanderen alde aipagarri hori agertzen zaigu, denekin mintzatzen ahal zen, bere nortasuna, ideiak eta norabidea galdu gabe. Elkarrizketaren azken zatian, bere ibilbidea kazetaritzan kontatzen du laburki. Lehen urratsak Mende Berriren *Gernika* aldizkarian eta *Zeruko Argian*, gero *Euskaldunon Egunkarian*: “Azkenean, Afganistan zokoan gertatzen zenaz jakitun nintzan, baina Mauleko karriketakoaz ez! Kur-kur-kur!”. *Züberoa Herria* liburua aipatzearekin bere ikusmoldea zubererari eta euskara batuari buruz ematen zuen, lexikoaz, ortografiaz, bilakaeraz, Zuberoako konplexutasuna azalduz gainera.

Bigarren elkarrizketa *Gara* egunkariak 2020ko uztailean publikatu zuen, Idoia Eraso kazetariak eramanik. Hemen **Kazeta.eus** webgunean agertu zen bertsioa ematen dugu. Horretan 2020an Sü Azia elkarteak argitaratu zuen *Pastoralen gerla: Urdiñarbe 1909-1912 2. partean: Aita Junes Casenave-Harigile gogoan* liburua aurkezten zuen. “Xuri” en eta “gorri” en arteko borrokaren testuinguruan kokatzen ditu 1909an Urdiñarben emanik izan ziren hiru pastoralak, horietan bat emazte gorriena. Pastoralaren irautea zalantzan ematen duena da, Allandereren ustez, zubereraren egoera larria, eguneroko erabilera biziki ahula baita. “Egia da ere, ikastoletan, hezkuntza elebidunean, badela ikasle kopuru bat, urtetik urtera handitzen dena gainera, baina horrek ez dio galerari aurre egiteko nahikoa ematen.” Kezkatzen zuena ere euskaraz irakurtzeko ohitura apala zen. Eta holaxe bukatzen zuen: “Leku askotan, hasieratik batua ikasten dute, beste aukerarik ez dago, bertako euskalkia galduta badago. Batua ikasten da, eta hori euskara da”.

Allande Socarros *Argia* astekarian ere kolaboratzailea izan zen 1989tik 2015era, hamahiru artikulu edo elkarrizketa eginez (<https://www.argia.eus/argia-astekaria/egileak/allande-sokarros>). Hemen *Argian* 2020ko urriaren 1 In inkestatu gisa eman zuen azken elkarrizketa argitaratzen dugu, Miel Angel Elustondo kazetariak eginik (Zaldi Ero izengoitiarekin argazkiak izenpetzen ditu). Aitzinsolasean Elustondok holaxe aurkezten zuen Allande, zen bezala erakutsiz: “Txoria bezain alegera jin zaigu, nahiz belaunaldi bat betikotz zauritu zuen minak bere horretan irauten duen, sendaezin”. Hor Allandek kontatzen du nola frantsesa sei urtetan baizik hasi zen ikasten, nola gero hogeitertan abertzaletu zen hori azpimarratuz: “Baina, otoi, ez dut borrokaz ikuspegi mortiferorik. Ez dut jasaten ahal. “Iraultza ala hil”, eta horrelako tentelkeriak. “Iraultza eta bizi!”, behar du”. Ipar Euskal Herrian garatzen den elebitasuna salatzen du, diglosia zela erranez eskubide eta baliabideak berdinerdinak ez baitira, tolerantziaren izenean euskararen erabilera ahulduz doalarik. “Ez baldin bada Euskal Herri euskalduna, beste izen bat eman diezaiogun”.

Hots, artikulu, liburu zati eta elkarrizketa horien bidez Allande Socarros zenaz ikuspen orokorra izanen duzu, irakurlea. Jarraian diren hamabi leku-kotasunekin hobeki ulertuko dira haren nortasuna eta etengabeko lana euskararen eta Euskal Herriaren alde.

## Lekukotasun batzuk

Liburu honen bigarren zatian hamabi lekukotasun ematen ditugu, denak gizonen eginek euskara batuaz ala zubereraz, lekuko horien deituren ordena alfabetikoan lerrotatuz. Horiei esker Allande Socarros hobeki ezagutuko dugu. Lekuko horiek denak Allande ongi ezagutu zuten, era batez edo bestez, eta lekukotasun sakon, zehatz eta hunkigarriak idatzi dituzte.

**Iker Aranburu** Allande lankidea izan zen *Euskaldunon Egunkarian* 1990eko hamarkadan. Kontatzen digu orduan zer baldintzetan lan egiten zuten elkarrekin “Estatuak” sailean, orduko tresneriarekin, eta gero lanetik kanpo nola mendizaletasuna partekatu zuten Euskal Herri osoan. Iker-en ustez, oro har, Xalbadorren “Aunitz maite duenak aunitz sofritzen du” erranaldia osoki zegokion Allanderi.

**Jean Mixel Bedaxagar** zuberotar kantari ezaguna eta Sü Azia elkartearen lehendakariak xeheki erakusten digu nola Allandek Zuberoan nahiz Ipar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian lan egiten zuen, zer jakitate handia zuen, euskaraz mintzatzeko eta idazteko zer gaitasunak zituen, nola ere xuhurki bizitzen zen kontsumo-gizartetik kanpo. “Holako ibilbidea begistatürrik, edo nork aisa entelegatüko dü ez dela halako üngürüko jakintsün bat egünetik bi-haramüneala aisa ordezkutzen ahal”.

**Eneko Bidegain** ere Allanderen lankidea izan zen. Enekok, *Ekaitza* astekaria etxean ezagutu ondoan, kazetaritzako lehen urratsak hor egin zituen Allanderen aholkuekin. Eta gero *Euskaldunon Egunkarian*. Kazetaritza lan horren ezaugarri bat zen euskal irakurleei informazio osoa euskaraz ematea, euskara beste edozein hizkuntza mailan jarriz, eta hori Euskal Herriko ikuspegiarekin. Horiek izan ziren Allanderen betiko nahia eta lana.

**Xan Coscarat** Allanderen adiskidea izan zen borroka politikoan. Beste batzuekin *Ekaitza* astekari politikoa sortu zuten apirilaren 1986an. Allanderen herriarekiko maitasuna eta euskal kulturarekiko engaiamendua azpimarratzen ditu lekukotasunean. Haren ibilbide politikoa azaltzen digu nagusiki, Iparretarrak taldean armarik gabeko sailean egin zuen lana eta gero hautetsi gisa 2001etik 2017a arte. “Autonomiaren aldeko borroka izan da Allanderen egiazko aportazioa”. Sortu zuen blogaren “helburua libreki mintzatea zen, pentsatzen zuelako, gauzen ez erraiteak edo ixilean uzteak, beldurrez edo konformismoz, adierazpen askatasunari uko egitea zela, izpiritu kritikoa suntsitzen zuela, erreflekzio eremuak mugatzen zituela”, erraten digu Xanek. Eta hori zen beharbada Allanderen ezaugarri nagusia, gizon libre izatea.

**Jean-Louis Davant** euskaltzain zuberotarrak ere Allanderen bizitza ibilbidea kontatzen du, elkarrekin eraman zituzten lanak. “Harrigarri da zenbat lan egin duen eta eginarazi, nagusiki Zuberoan, baina Zuberoatik at ere... erakutsiz gainera praktikan euskara batua eta euskalkiak ez direla elkarren etsaiak, alderantziz elkar laguntzen dutela eta osatzen”. Eta hori nagusiki musu-truk, lo guti egiten. Azkenean Jean-Louisek susmatzen du bere lan erraldoiarengatik leherturik joan dela, “betiereko bortu gora”. Allande, gizon arraileriant, imintzio egile trebea, istorio barregarri kontatzailea zela ere oroitarazten digu Jean-Louisek.

**Beñat Espil** zuberotarrak bere lekukotasuna “Militantziak bizitza hartu deit” deitu du, *Argia* astekarian 2007-II-04an agertu zen elkarrizketan Allandek erran zuena baliatuz. Bai, hau da ikusi dugun Allanderen ezaugarrietarik bat. Bizitza osoa euskarari eta Euskal Herriari eman die. “Ororen gaintik, bere borroka eremüa euskara zen, ohartüa zelakoz Xiberoan, eta nolaz ez beste probintzietan, euskara galtzen ari dela, hiltzaren honen nolabait tratatzea zen bere egingeietan eta hau izan da bere bizi parte handienean bere borroka nausia: Euskal Herri euskalduna”, erraten digu Beñatek, “Allandeki erdi biderik ez zelakoz, bere borroka bidea ez züan egiaztatzen ahal, denaren emaiteko prest ez balinbazen”.

**Manu Gojenola** bizkaitarrak ere Allande ongi ezagutu zuen, “Xiberoko enbaxadorea” deitzen zion. Manuk bere lekukotasuna zuberotarrean idatzi du Bizkaiaren eta Zuberoaren artean zubia eginez, Allandek egiten maite zuen bezala. Horretan xeheki erakusten digu nola Allanderen jakitatea handia zen zuberotar kulturaz (pastoralak, maskaradak, kantuak, dantzak...), zubereraz (hitzen erranahia, jatorria, beste hizkuntzen eragina, hitz zaharrak...), “üngürüan agitzen zen orotaz”, baita ere nazioarteko berriez. Zer langilea zen, “zoinahi lan. Izigarri langile beitzen” eta hori erriaren laguntzarekin batera.

**Jean Pelle Iriart** Aloze-Ziboze-Onizegaineko auzapezak Allanderekin lan egin zuen, bereziki azken hori Xiberoa Herri Alkargoan Etxebarreko hautetsia izan zelarik, Euskara batzordearen buruzagitza hartu baitzuen. Eta zerrendatzen ditu Allandek eraman zituen lan ugariak, eremu publikoan, irakaskuntzan, bizitza sozial eta ekonomikoan (besta-komiteak, saltegiak, jatetxeak...), itzulpenak eta lan honetan gazteentzako formakuntzak. “Zonbait aldiz, gaüzak ez ziren aski zalhe aitzinatzen hiretako, eta jakinarazten hüan (ez hintzan gizon epela!...). Bena bahakian ere, gure hizkuntzan salbatzeko güdüka lüzea izanen zela eta egün oroztako lana dela...” Hau da, lan horretan Allande lehenetan izan zen.

**Peio Jorajuria** *Herria* astekariaren arduradun ohiak xehetasunez erakusten digu aldizkari horretan Zuberoak izan zuen eta duen lekua eta izan zituen azken berriemaileak, Jean-Louis Davant, Panpeia Etxebarne eta azkenik Allande 2016tik 2021era, gorago ikusi dugun bezala. Peiok kontatzen digu ere nola *Herriaren* harpidedunak guti diren Zuberoan, zer ekimenak eraman zituzten zuberotarren ikusmoldeak ezagutzeko, *Herriara* zer berri mota eta nondik etortzen diren Zuberoatik, berri orokorrak nagusiki (pastorala, maskaradak...), nola ere Allande abertzale ateoak *Herria* astekari katolikoan idazten ahal zuen. Allandek idatzi zituen artikuluak denak zerrendatzen ditu Peiok.

**Beñat Larrory** Xiberoko Botza irratiaeren berriemaileak Allanderen ekarpena irratiaari aipatzen du, mintzatzeko zituen erraztasunak bere jakitate handia eta umorea baliatuz. Lan anitz egin du hor ere, adibidez “Egün bat Hitz bat” kronikaren bostehun grabaketa eginez edo “Pasealdi” kronikan mendietako landareen, animalien izenak eta guneko toponimia landuz. Allanderen azken ibilaldia Ligitik Etxebarre sorterrira izan zen, halabeharrak haren azken ibilaldia izanen zela bazekien bezala. Beñatek hola bukatzen du lekukotasuna: “segür dena da Allanderekin dögün pasealdia ez dela ürrentürrik, oritzapen eta artxiba leherra beitätügü harekilan eginik”.

**Jean-Claude Séhébiague** zuberotar irakasleak Allande Socarrosen beste alde garrantzitsua azaltzen du bere lekukotasunean: mendizale suharra. Bortükariak deitu den mendizale taldean ere Allanderen ekarpena handia izan zen, ibilaldia prestatzea maparekin aitzineko proba eginez (GPSik ez zen orduan), bezperan telefonoz ibiltari oroen arteko lotura eginez, ibilaldian argazkiak eginez eta jakitatea partekatuz, etab. “Allande, pentsatzen ahal düzüen bezala, Xiberoko bidexka eta xendeetan ezinago laket zela. Bide erakusle häütüa ere güntüan bai bazterren, edo orokorki gure herriaren aipatzeko”.

Azken lekukotasuna **Andres Urrutia** euskaltzainburuarena da. Hark ere Allanderen dohainak eta bizitzan jarrera azpimarratzen ditu: “Laudoriotan aritzea ez zuen Allandek maite; ekintzetan, ordea, hor-han-hemenka ekimenak antolatzen eta ekitaldiak moldatzen, maisu eta eragile gorenaren zen Socarros (...) Zuberoako lurak ematen dituen giza seme-alaba aparteko horietarik euskararen mundura etorria”. Andresek erraten du orain guri zaigula Allandek ireki dituen lan ildoak jarraitzea eta, *Lehen hola, orain hala, gero ez jakin nola* Bela zaldun zuberotarraren atsotitzaren azken zatia ezeztatuz, badakigula, partez bederen, Allanderi esker zer egin etorkizunean.

Hots, ohiz kanpoko gizona zen Allande Socarros. Datozen orrialdeetan parada dugu hori egiaztatzeko.



2018-11-23an Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, Allande Socarrosek (lehenengoa ezkerretik) euskaltzain urgazlearen diploma eta ikurra eskuratu zituen.

© Euskaltzaindia

# **EUSKAL IDAZLAN HAUTATUAK**





## *EUSKALDUNON EGUNKARIA*<sup>1</sup>

### **“Urtarrilean maskarada egingo dute Zuberoan”<sup>2</sup>**

[Kultura, 1990-12-06]

Ibar eskuinak, erran nahi baita, Altzai eta Lakarri eta inguruko herriak, maskarada berria jokatu du datorren urtearen hasieran, atzo Zuberoako Botza euskal irratian iragarria izan denez. Azken maskarada Muskildiko herriarena izan zen 1989an, eta beraz urte bat egon da egin gabean. Gaurkoan dakigunez, urte berriaren urteko lehen igandean izanen da lehen emanaldia, Altzain bertan segurraz ere. Ondotik hamar bat ateraldi egin behar lezakete jokolariek. Jakingarria da heldu den urtean ere Larrainek antzeztuko duela Rogert Idiart apezak idatzi pastorala.

1990eko abenduak 6, 33. or.

---

<sup>1</sup> *Euskaldunon Egunkarian* argitaratu ziren ondoko zazpi artikulua *Berria* egunkariaren baimenarekin argitaratzen dira hemen. *Euskaldunon Egunkariaren* hemerrotekan hartuak dira: <https://www.berria.eus/hemeroteka/egunkaria/>.

<sup>2</sup> 1990eko abenduaren 6ko zenbakia *Euskaldunon Egunkariaren* lehenbiziko zenbakia zen, Allande Socarrosen lehen artikulua zen ere bai.

## “Eguraldi onak kalitatea eragin zuen ‘Santa Kruz’ pastoralaren bigarren agerraldian”

[Kultura, 1992-08-18]

Eguraldia oso egokia zelarrik, 2500 ikusle elkarretaratu ziren joan zen larunbatean Santa Grazin ‘Santa Kruz’ pastoralaren bigarren emanaldian. Amaieran egin, ohi den dantza erosteak marka guztiak hautsi zituen, 7.000 libera eskaini bait zituen garaile irten zen Atarratzeko herriak. Bestalde, bigarren emanaldi hori ez dela azkenengoa izango ere jakin zen, Gipuzkoako Ordizia herriak harrera emanen bait dio ‘Santa Kruz’ pastoralari datorren irailaren 12an.

Aroak ez du bigarren aldi batez eragotzi ‘Santa Kruz’ pastoralaren agerraldia. Izan ere, euriagatik atzeratu bazuten joan zen abuztuaren 9an agertzekoa zen bigarren emanaldia, Andere Dena Maria egunak zorionak ekarri dizkio joan den larunbatean. Aroa oso egokia zegoen, hodeien artean ezkutaka bait zebilen eguzkia eta haize fresko batek berotasun oso egoki bat atxiki bait zuen hiru ordu t’erditan zehar. Eguraldi honekin erabat ongi konpondu ziren bigarren emanaldi honen ikustera etorritako 2500 so egileak eta santagraztar aktoreak berak.

Uztailaren 26ko emanaldian izandako bero ikaragarriak neke handiak ekarri bazizkien, aldi honetan dena hobeki zegoen eta ikusle askoren erranez, bai taula jokoa bai kantu emaitzak akatsik gabekoak izan ziren. ‘Santa Kruz’ apez borrokalariaren irudia hartua zuen Jean Yves Constantin ‘Etxebarne’ Süjetaren agerraldiek aipaldi berezia merezi dute, oso ongi eman bait zuen burutik buru. Bestalde, lehen agerraldian bezala, Türk emakumeek eta Satanek txalotze bizenak berenganatu zituzten.

Kalitatearen aldetik ezezik, ‘Santa Kruz’ pastoralaren bigarren agerraldi horretaz oroitzapena geratuko da luzaz, bururatzean egin ohi diren ‘antxerek’ marka guztiak hautsi bait zituzten berriro. Izan ere, uztailaren 26an Larraineko herriak 5.300 libera eman bazuen taulada gainean muñeñak dantzatzeko eskubidearen truke, aldi honetan lehiaketa are zorrotzagoa izan zen Zuberoako dantza taldeen artean. Azken batez Atarratze zen garaile irten, 7.000 libera arte (130.000 pezeta inguru) eramanez diru eskaintza.

Gotaineko herria zuen azken lehiakide izan, herri honek gogorarazi nahi bait zien beharbada datorren urtean Jean Louis Davantek idatzitako ‘Euskaldünak iraültzan’ pasterala aurkeztuko duela.

## “Veilek negurako aterberik gabe direnei laguntzeko plangintza aurkeztu du”

[Estatuak, 1993-II-05]

Gutxienez 220.000 herritar  
bizitegirik gabe daude gaur egun Frantzian

Neguaren gogorkeriak arazoa are larriago egiten duelarik, Simone Veil, Frantziako Osasun eta Gizarte Arazoetarako ministroak gabeziari eta egoera nekeei aurre egiteko premiazko plangintza aurkeztu du. Horren arabera, aha-legendak egingo dira etxerik ez dutenek aterbeak izan ditzaten hotzaldi handietan. Gaur egun, gutxien-gutxienik 220.000 lagun inguru bizitegirik gabe daude Frantzian.

«Ez da bidezkoa gizakiak kalean egotea, elurra eta hotza egiten duelarik» aditzera emanda, Simone Veilek aterberik gabe dauden pertsonen laguntza ekartzeko bere ministerioak moldatutako premiazko plangintza aurkeztu zuen. Honekin, negurako bizitegirik gabe diren herritarrei aterbe bat edonoiz eskaintzeko erronkari eutsi nahi dio Osasun eta Gizarte Arazoetarako ministroak.

Helburu honen betetzeko, 40 milioi liberako (920 milioi pezeta) dirutza sartuko da eta, bestalde, 55 milioi libera emango zaizkie elkartasun lanetan diharduten elkartei, hitzarmenak sinatzearen bitartez.

Neguaren atarian abian jarria den premiazko plangintza hau hiru urratsetan eratuta dago, Lehenik, datorren azaroaren 15etik hasita, «ohizko eguraldi baldintzen arabera» aterbe multzo bat baliagai egongo da Frantziako hiri handi guztietan. Hotz handiak egiten baditu aterbeen kopurua ugalduko da, batez ere ospitaleak bezalako eraikuntza publikoak baliatuta. Azkenik, premiazko neurri horien hirugarren maila, hotzaldi iraunkor eta handien kasuan erabiliko da, administrazio batzuen egoitzak gaueko aterbe bilakatuta. Bestalde, bizitegirik gabe direnei argibideak emateko eta, hala behar izanez gero, laguntza ekartzeko, telefono zerbitzua martxan jarriko da.

Aterbeak egonik ere hauetara joateko herabe izaten direnei pentsatuta, Gizarte Arazoetarako Ministerioak finkatu dituen neurrien artean, kanpoan bizi direnekin zuzenki harremanetan jartzea ere badago. Alabaina, Simone Veilen zerbitzuek azpimarratu zuten, «ez zaio jendeari nahitaez aterbeetara joateko agindurik eginen, aholkua emanen baizik». Iragan neguan, kalean bizi ziren sei

lagun hotzogatik hil ziren. Zifra hori oso mugatua dago, Frantzian gaur egun, gutxienez 220.000 herritar bizitegirik gabe direla eta beste sei milioi larri bizi direla jakinez gero.

Neurri horiek neguan bakarrik gauzatzea ez dela nahikoa aipatu zaiolarik, Simone Veilek gabezia gorrian eta egoera nekean bizi diren herritarrentzat beste ahalbiderik badela erantzun zuen, hala nola, RMI deitutako xedapenak eskaintakoak. Beste irabazpiderik ez duten herritarrek eskura dezaketzen dirulaguntza hau 725.000 lagun inguruk jasotzen dute gaur egun Frantzian.

1989. urtearen amaieran abian jarri ondoren, 420.000 pertsonak eskuratu zuten urte bukaera horretan bertan. Gaur, departamenduetako kontseiluen gizarte zerbitzuek banatzen duten dirulaguntzaz gain, hots, hilabetero 2.253 libera bakarrik bizi den lagun batentzat eta hilean 3.300 libera haurrik gabeko bikoteentzat, RMI honek osasun gastuak dohainik izatea eta etxebizitza baten lortzeko lehentasuna edukitzea eskaintzen ditu.

1993ko azaroak 5, 15. or.

## “Elf-Aquitaineren pribatizazioak hiru milloi akzio-erosle lortu ditu”

[Estatuak, 1994-02-16]

Merkaturatze honi esker 33 miliar libera  
sartuko dira Frantziako kontu publikoetan

Elf-Aquitaine petrolio ekaietako sozietatearen merkaturatzeak arrakasta handia lortu du. Pribatizazioak abian jarriz geroz lehendabizikoz, hiru milioi akziohartzaileko marka gainditu egin da. Elfeko kapital gehiena jabego pribatuari saltze horrek 33 miliar libera sarraraziko ditu Frantziako kontu publikoetan.

Estatuaren eskuetan zen Elfeko kapitaleko % 37 merkaturatzearekin 33 milioi akzio jarri ziren salgai, baina 98 milioi eskatu dituzte pribatizazioa gauzatzeko epean. Aurretik asmatua zen legez, eskaera handia izanez gero, akziohartzaile pribatuen esku jartzeko heina 38,6 milioi akziora gehituko dela zehaztu zuen atzo Edmond Alphandery Ekonomia ministroak. Herritarren esku izango den kapital kopuruaren gehitze hau instituzioei banatutako zatiaren gutxitze batekin gauzatu da. Hala eta guztiz ere, Elfen pribatizazio honetan nabaritutako arrakastagatik, hartzaile bakoitzak 12 akzio baino ez ditu eskuratuko, hasiera batean 30 akzio erosteko aukera izan bazen ere. Zehazki, 3.098.000 akzio-erosle azaldu dira.

Elf-Aquitaineko akzio bakoitza 385 liberatan zegoen salgai, hots, pribatizazioa abian jarri aurretik burtsako truke salneurria baino % 10 merkeago. Salmenta arrakastatsu honi esker, 33 miliar libera sartuko dira Frantziako kontu publikoetan. BNP bankuaren pribatizazioak eta Rhone-Poulenc kimika sozietatearen merkaturatzeak erakarritako diru multzoei gehituko zaie dirutza hori. Oro har, 1994. urteari dagokionez, Frantziako Gobernuak 55 miliar liberako emaitzak itxaroten ditu pribatizazioei esker eta kopuru horretatik guztiz gehiena, hots, 50 miliar libera, aurrekontuetan sartzekoak dira.

Elf-Aquitaine enpresako kapitalaren % 70 jabego pribatuaren esku egongo bada ere, Frantziako Estatuak % 13 gordeko ditu eta akziodun iraunkorrek, aldiz, % 10. Gainontzekoa, berriz, Elfeko langileen esku uztekotan da. Akziodun iraunkorrei dagokienez, Frantziako enpresa handi batzuek osatzen dute multzo hau, hain zuzen ere, UAP eta UAXA segurantzak, BNP, Societe Generale de Belgique eta Paribas bankuek eta Renault autogileak.

Dena den, kapitalaren jabetzan gutxiengoan izan arren, Frantziako Estatuak ahalak izango ditu kontrola edukitzeko akzio multzo handien salerosketan. Gainerat, Frantziako «interes nazionalen» aurkako bilakaerak oztopatzeko eskumena dauka.

1994ko otsailak 15, 16. or.

## “Castellon autobus istripua izan zuten ikasle frantziarrak etxerat itzuli dira”

[Estatuak, 1995-04-11]

Castelloko probintzian, autobus batek izandako istripuan zauritutako bi ikasle eta bi gidatzaile frantziarrak eta ezbehar horretan minik hartu ez zuten beste 46 gazteak eta irakaslea Marseillako Marignane aireportura iritsi ziren atzo goizean. Haurrek ez zuten autobus edo trenez etxeratu nahi izan eta horretarako, aseguru konpainiak agindutako hiru hegazkinetan itzuli ziren Frantziarat. Andre Bondorok, La Ciotat (Bouches-Du-Rhone) hiriko Matagots ikastegiko zuzendariak, harrera egin zien. Istripuan hil zen Evelyne Barral, 43 urteko gaztelera irakaslearen gorpua ere atzo ekarri zuten etxerat.

Ezbeharra, igande goizeko 1.17etan gertatu zen A-7 autobideko 362. kilometroan, Castello hiritik 70 kilometrora. La Ciotat hiriko Matagots ikastegiko 48 ikasle, lau irakasle eta bi gidatzaile Sevillarat zeramatzan autobusak gogorki talka egin zuen, apur bat lehenago gertatutako istripu baten ondorioz, autobidean zeharka iraulita zegoen kamioiarekin. Autobusaren aurrealdea txikituta geratu zen txokearen eraginez, irakasle bat hil zen eta bi haur, bi irakasle zein ere bi gidatzaileak zauritu ziren.

Kamioiarekin talka egiteaz gain, autobusa autobidearen bestalderat joan zen eta alor batean gelditu. Haur gehienak autobusetik irten baldin baziren ere, larri zauritutakoen kasuan tresneria berezia erabili behar izan zuten erreskate egileek. Zaurituok hanketako eta bularreko hausturak pairatu zituzten eta lesio handienak izan zituzten bi irakasleak larrialdietako unitate batean jarri zituzten.

1995eko apirilak 11, 13. or.



## “Kontradikzioa”

[Ganbaratik, 1995-05-10]

Euskal munduak, hots erran nahi dut Euskal Herri bizidun baten alde diharduen jendeak, baditu askotan halako kontradikzio harrigarriak. Nik horrelako batekotzat jo dut iragan astelehenean Dantzari Tiki Zuberoan ospatzearen inguruan izan den gertaera bat.

Ezen, goizaldean, dantzari taldeak hainbat herritan banatuta zeudelarik, hauetatik bat Maulen zegoen. Eta zer uste duzue egin duten, bada, euskal dantzari gazte horiek? Frantziak hainbeste espantuka ospatzen duen 1945eko maiatzaren 8ko garaipeneko ospakizunen aurretik dantzatu, Maule eta inguruetako zinegotzi, gudukari ohi, jandarina buruzagi eta abarren begibistan... Eta alde guztietatik frantses bandera urdin, zuri eta gorriz inguratuak. Ez dakit zein talde zen eta ez nuke hemen salatuko baina badakit, aldiz, arduradunek ez dutela harro izateko motiborik.

Arratsaldean, Atharratzen egin zen ikusgarrian, berriz, faldeen eta dantzen aurkezpenak erdara hutsez egiten hasi ziren, baina norbaitek, hala ere, bere ke-  
xa agertu baitzuen, elebitasunera jo zuten. Hori ere, zer ahalgea! Gure Euskal Herrian, euskal kulturaren hitzordu garrantzitsu baten karietara menderatu gaituztenen hizkuntza erabiltzea. Norat joango gara horrela jarraituta? Gure herriaren sendotzerat bederen ez.

Ez dut erran nahi euskal kulturak, dantzak edo beste, abertzaletasunaren eskuko egon behar duenik. Baina ezta ere frantseskeriaren zerbitzurako eta euskaltasunaren etsai amorratuen jostagailu folkloriko.

1995eko maiatzak 10, 32. or.

## “Südu: gotorra eta gogorra”<sup>3</sup>

[Bidaide, gogaide, 2003-01-10]

Orain dela bi mende Euskal Herrian kokatua zen mendi zorrotz eta gotor hau Biarnon da gaur egun. Euskal herritarrok joan gaitezen gailur zail honi agur eta ohore egiterat.

Abiagunea Ereta (Arette) herritik San Martiko harriko elurtegiatarako bidea hartu ondoren, bospasei kilometrotan kokatua den La Mouline herrixka baino 200 metro lehen izango dugu, zubixka baten alboan (442 m). Leku horretan, bada autoen aparkatzeko zabalgun bat. Hego-mendebalderat abiatzen den lurrezko bide bat hartuko dugu, eta sarda batean eskuinaldeko ari jarraituko diogu. Aski laster, lurrezko bidexka hau gero eta aldapatsuagoa bilakatuko da, zeren eta, distantzia laburrera, 350 metroko malda garaituko baitugu, Süduko leporaino iritsi arte (782 m).

Hemen, zailtasuna ez da gutxituko, alderantziz baizik; erabat iparraldean eta hurbil dirudien Südu gailurrera jo beharko baitugu, lehenik, belardi baten gora, eta, aski laster, pagadi batetik igota. Oihan honetan, arroka arrailduek oso nekeza egiten dute igoera, eta leptotik Südu gailurreraino (I.I67 m) ordu bat inguru behar da, hasieran hala ez bada uste ere. Izertze honen saria da, hargatik, bista zinez ederra daukagula tontor hertsu honetatik, bai Zuberoa alderat nola Auñamendi eta bere inguruko mendietara, zein ere Aspe haraneko beste hainbat herri, ibar eta gailurretarat.

### Erreferentziak

- 00:00 Abiapuntua (zubia)
- 00:45 Süduko lepoa
- 01:45 Südu
- 02:30 Süduko lepoa
- 03:00 Garbaseko lepoa
- 03:30 Legorre d'Íbarrayko malda
- 04:00 La Mouline

---

<sup>3</sup> 2003ko urtarrilaren 10eko zenbakia *Euskaldunon Egunkariaren* azken zenbakia izan zen eta, ondorioz, Allande Socarrosen azken artikulua zen egunkari horretan. Mapa eta argazkiak ez dira hemen agertzen.

### Jaitsiera laburra edo luzeagoa aukeran

Itzulerarako Süduko leporaino berriro jaitsi beharko dugu lehendabizi, eta behera egitea gorantz joatea bezain neketsu da. Süduko garatean, hego-mendebalderat doan hegia hartuko dugu, eta 894 metroan emana den lehen gain belartsu batean, erabat ekialderat eta agerian dugun La Mouline herrixkara jaisten den malda baten behera joan gintezke, ibilbide labur bat –3 ordu– egin nahiz gero. Jaitsiera honetarako, ordu erdi bat behar da kontatu.

Ibilbide luzeago bat egin nahi izango dutenek, hegiari jarraikiko diote, 899 metroan emana den gailur batera igoko, Garbaseko leporra jaitsiko (850 m), Larranche izeneko tontor bateraino igoko (903 m), eta hemendik 200 m beherago beti ere hegoaldeko norabidean igarotzen den bidexka batera joko. Honi jarraituko diogu 250 metroan, baina erne egon beharko dugu erabat ekialderantz sartzen den xenda hertsu bat hartzeko, Legorre d'Ibary malda oso aldapatsuaren behera. Apalago (777 m), malda honek Ombre d'Ibary izena hartzen du, eta La Moulineko etxeen artera eramaten gaitu. Errepidean, ezker hartuz eta 300 bat metro ginda, autoak utzi ditugun lekura iritsiko gara azken batean.

### Argigarriak

- **Argibelgo eskalada gunea:** Oso ezagutua eta kontatu preziatua da Montori eta Sarantzüne edo Barlanes artean kokatua den Argibelgo mendixka zorrotza. Zaleek diote Ipar Euskal Herriko eskalada harkaitz hoberena dela. Zailtasun maila guztiak dauzka eta hornitua dago. Harat joateko, bi bide daude: bata, Montori herritik igarota; eta, bestea, Sarantzüne edo Barlanes aldetik etorrita. Azken hau seinaleztatua dago.

- **Ezinezko igoera:** Gure ibilbide hau abiatzen den gunearen beste aldean, apur bat ekialderat, malda oso aldapatsu bat ikusten ahal da, eta, honetan, zantzu nahiko bitxiak, zerbait honen gora igo balitz bezala. Hain zuzen, motorrak dira igotzen patar beldugarri honen gora, urtero irailaren lehen aste amaieran. Kirol honi ezinezko igoera deitzen diote, eta, antzeko jostaketa guztiak bezala, Ameriketako Estatu Batuetatik etorri zaigu. Apustua da zein motordun igoko den patar honetan gorenik, erori egin gabe.

## BERRIA<sup>1</sup>



### “Eskupekoen lausengua Polinesia Frantziarra”<sup>2</sup>

[2003-07-27]

«Ez dugu gauza handirik eskatzeko; izan ere, dena eman digu jada», adierazi zuen herenegun Polinesia Frantziarreko gobernu autonomoko presidente Gaston Flossek. Tahoeraa Huiraatira (Polinesia Errepublikan egoteko Elkarretaratzea) alderdiko buruzagiak harrera lausengaria egin zion Jacques

<sup>1</sup> *Berrian* argitaratu ziren ondoko hiru artikulua *Berria* egunkariaren baimenarekin argitaratzen dira hemen. *Berriaren* webgunean hartuak dira.

<sup>2</sup> Artikulu hau da *Berrian* Allande Socarrosek argitaratu zuen lehen artikulua: <https://www.berria.eus/paperekoa/2990/017/001/2003-07-27/eskupekoen-lausenguak.htm>.

Chirac Frantziako presidenteari, hau iritsi zelarik Faa'ako aireportura, ostira-lean. Kantu eta dantza polinesiarrak, lepoko lore sortak eta Frantziako zein Polinesiako ikurrak astintzen zituzten 4.000 lagunen harrera oparitu zizkion Flossek Frantziako Estatuburuari, «Polinesiarentzat egin duen guztiarengatik herritarren esker ona» azaltzeko.

### **Parisen menpeko autonomia**

Haatik, Parisek Polinesiako bost uhartediarentzat egiten duen indar bakarra da, diru laguntzen bitartez erkidego autonomoaren ekonomiaren galerak tapatzea. Oro har, Polinesiako autogobernua Parisek ematen dion dirutzaren men dago erabat. Gaur egun baina aurretik ere halaxe zen Polinesiako salerosketa emaitzak erabat desorekatuta daude. Zehazki, 2002. urtean, autonomia erkidegoak 1,34 miliar euroko inportazioak egin zituen, eta esportazioak, aldiz, 176,6 milioira baino ez ziren igo. Ororen buruz, beraz, merkataritza defizita 1,16 miliar eurora igo zen iaz.

Alabaina, denbora berean, Parisen diru laguntzak eta eragilpenak 1,07 miliar eurora igo ziren, eta horrek agerian uzten du Polinesiako lehendabiziko bizibidea Frantziatik jasotzen duen diru mordoa dela. Inbertsio publikoentzat soilik, Parisek 150 milioi euroko dirutza eman zion, 2002an betiere, Papeeteko gobernuari, DGDE Garapenerako Dirutza Orokorraren bitartez. Alabaina, kontua da Polinesiako autonomia agintariek ez dutela ahal izan, ezta nahi izan ere, berezko ekonomia garapenik bultzatu. Frantziako Estatuaren laguntzatik aparte, turismoa da lurraldearen diru iturri nagusia (337,7 miloi euroko negozio kopurua eragiten du), baina nabarmentzekoa da arloak %17ko beherakada pairatu duela 2001-2002 artean. Lurraldearen berezko bigarren ekonomia baliabidea perlagintza da (125,8 milioi euroko negozio kopurua eragin zuen 2002an), baina honek ere beherako joera du. Eraikuntza arloa, aitzitik, sendo agertzen da: %16,3 hazi zen 2002an, 300 milioi eurotik gorako negozio kopuru batekin. Haatik, kontuan hartzekoa da fiskalitate araudi berezi batek duela emaitza hori eragin.

### **Proba nuklearren salaketa**


Ekonomian Polinesiako autonomia erabat Parisen menpeko da eta hori ozen salatzen dute abertzaleek. Frantziako presidentearen bisitaren kariatara, Tavini Huiraatira (Polinesia Askea) alderdi abertzaleak bi manifestazio an-

tolatu ditu asteburuan. Atzo elkarretaratze bat egitekoa zen Oscar Temaru, Tavini Huiraatirako buruzagia, Faa'ako udaletxe aurrean (bertako alkate da) eta, ondoren, ibilaldia Papeete hiribururaino, abertzaletasunaren figura nagusia izandako Puvanaa a Ooparen oroitariraino. Igandean, berriz, protestaldi bat egingo dute Bora Boran.

Manifestazioek «Frantzia kolonizatzailea» salatzeko helburua dutela esan du Oscar Temaruk. «1946a arte, deskolonizatu beharreko herrialdeen zerrendan ginen, baina De Gaullek lortu zuen zerrendatik kentzea», adierazi zuen buruzagi abertzaleak. Ekonomia mendetasun oso batean atxikitzeaz gain, Polinesia «zabortegi» bezala baliatu du Parisek, Temaruk salatu duenez, proba nuklearrak gogoan.

1966-1996 artean, 196 proba nuklear egin zituen Frantziak Moruroa eta Fangataufako atoloietan. «Proben osasun ondorioei dagokienez, estatu-batuarrek aitortu dute arazoak badirela eta britainiarrek ere antzekoa esan dute; Frantziak, ordea, horrelakorik aitortzeari uko egiten dio», adierazi du Temaruk, «burujabetasuna lortu nahi dugu halaber Hagako Nazioarteko Auzitegian Parisen aurkako salaketa bat egiteko gisan».

2003ko uztailak 27



Lapurdiko itsasertzean eratutako xenda  
gozagarritik ibiliko gara, Atlantikoko uhinak bidelagun

### “Bidartetik Donibane Lohizunera”<sup>3</sup>

[2007-01-12]

Bidarte hegoaldean, Getariarekin mugan, kokatua den Uhabiako hondartza txikia izango dugu abiagune. Leku horretan lehenago izan zen arrantzale portutik ezer ez da geratzen gaur egun. Lehen urratsak hondartzan bertan egin ondoren, aski gutxi ageri diren itsasertzeko xendaren seinaleei jarraituz, zurez egindako eskailerei esker egingo dugu labarraren gora, Parlamentia auzuneko etxeen artean igarotzeko. Aberatsen etxeak direla hemengo hauek nabarmen ageri da eta dolurik gabe emango diegu bizkar, Santa Madalena kaperatik berehala itsasoaren albora berriro jaisteko; aldi honetan ere, eskaileretan behera.

Getarian bada portu txiki-txiki bat eta hemen topatuko ditugun ontsixkei agur eginda, aurrera jarraituko dugu, eguraldia egokia izanez gero, itsasoko funanbuluak diren surflariak ikusteko aukerarik izango dugularik. Xenda honetatik ibilita, ohartuko gara itsasertzeko landaredia ez dela batere urria, ez-

<sup>3</sup> Artikulu honen erreferentzia *Berrian*: <https://www.berria.eus/paperekoa/3388/054/001/2007-01-12/bidartetik-donibane-lohizunera.htm>.

jakinez hala pentsa bagenezake ere. Itsas pinuak ikusiko ditugu, jakina, baita sahatz eta huntzosto mota batzuk eta sastraka oparo bat ere.

Balda erreka bokaletik igaro eta berehala, Zenitzeko auzunetik ibiliko gara. Itsasertza ikaragarri itsustu duten eraikin handirik ez balin bada topatzen hemen, kanpinak eta bungalow eremuak, ordea, nasai daude, eta horiek ere ez diete mesederik egiten ingurumenari.

Eskerrak, haatik, itsaslabarrak eta itsasoak berak ikusmen ederrik eskaintzen digutela. Hegoalderat begiratuz gero ere, mendi tontor ezagunak izango ditugu begi bazka, Larrun noski, baina baita Xoldokogaina, Atxuria, Aiako Harria edo Jaizkibel ere.

ARTXILOAKO KURUTZETIK SANTA BARBA KAPERARAINO. Erromardiko hondartzaren gaineko harkaitzetatik hurbilago ala urrunago ibilita, Artxiloako kurutzerat iritsiko gara, eta dagoeneko Donibane Lohizuneko lurretan sartuta izango gara. Hemendik ere, orain arte egin dugun bidez ohartzeko aukerarik izango dugu, ipar-ekialdera Miarritzeraino ematen baitu bistak. Artxiloago kurutzetik berehalaxe, eraikin bitxi baten albotik igaroko gara, erdaraz *Crypte du Chevallier* (Zaldunaren kaperatxo) emana den honetan ehortzia delarik Belgikakoa zen Fermin Van Bree enpresa gizona. Oroigune hau eraikiarazteko baita lortzearren, gizon horren meritu bakarra, antza, «Donibane Lohizune asko maite zuela» jakinarazia zaigu. Eskerrak Euskal Herria maite duten guztiei ez zaiela fabore hori ematen... bestela, alde guztiak mota askotako erai-kinez josita izango balirateke!

Iazko abenduan, Artxiloago kurutzetik harat, itsasertzetik hurbilenik eratu-tako xenda paratzen ari zirelarik, apur bat lurren barnera ibiltzerat behartzen zuen ibilbide seinatuak. Une batez ere arretaz ibili behar da, pankartetan seinatuta izatetik biderean galtzada gainean baitira emanak marka horiek, zehazki *L'Hippocampe* izen ponpotxa eman dioten etxe aberatsaren aurretik. Kirolzaleentzako eremu batetik pasa eta gero, xendak Santa Barba lur muturrera eta hementxe eraikitako kaperara geramatza. Hortxe ere, oso-osoan ikusgai izango dugu Donibane Lohizuneko badia zabala, haratago Ziburu eta Zokoa ere ezagutuko ditugularik.

Hain zuzen ere, hemendik aurrera, badia bazterreko oinezkoentzako ibilbidetik ibiltzearekin amaituko dugu gure txango hau, hemen bai aldiz eraikin itsusien konpainiari ezin izango diogula ihes egin. Diruaren legeak zelako zatarkeriak eginaraztea zilegi egin duen gogoetazeko aukerarik bada, beraz, Santa Barba eta Donibane Lohizuneko portua bitartean ia ordu erdi batez ibiltze honetan.





Pettarreko lau herrik paratutako 'Abdelkader' pastoralaren lehen agerraldiak arrakasta izan du. Berriz antzeztuko dute ostiral arrats honetan eta abuztuko lehen bi igandeetan

## “Trajeriaren gudukan ere, garaile”<sup>4</sup>

[2021-07-27]

Hasieran, aspaldiko urteetako pastoralen agerraldietako giroarekin alderatuta, ez zen aldaketarik sumatzen. Alta, joan den igandean, Ürrüstoiko errebotek plazan antzeztu zen *Abdelkader* trajeriaren (pastoralaren izen zaharra) ikusle kopurua mila lagunetara mugatua zen, COVID-19 gaitzarengatik hartutako osasun segurantzara neurri jarraitu beharrez. Mila ikusliar, eta seguraz ere apur bat gehiago, jende andana eskailera mailetan eserita baitzen; asko zirela ez da dudarik, eta giroaren araberakoa izango zela pentsa daiteke.

Antzeman zen aurreko pastoraletan aldi oro egon ziren 3.500 edo 4.000 lagun presentziak dakarren suhartasuna nonbait falta zela. Hala, gorrien multzokoen ateraldietan eta horiek botatzen zituzten ahoberokeriei ihardukitze oso-oso gutxi egon zen ikusliarren aldetik.

---

<sup>4</sup> Artikulu hau da *Berrian* Allande Socarrosek argitaratu zuen azken artikulua: <https://www.berria.eus/paperekoa/1872/030/001/2021-07-27/trajeriaren-gudukan-ere-garaile.htm>.

Jean-Louis Davant idazle eta euskaltzainak paratutako pastoraleko testuan, gorri horiek, frantsesek alegia, adierazten zituztenek bazuten zer haserretzerik eta aurkako oihuak pizterik. Alabaina, egia da ere pastoralak azken hamarkadetan pizten duen arrakasta jendetsuak publikoa eraldatu egin duela, eta gaur egun trajeria baten ikustera datozen askok ez dituztela horrenbeste ezagutzen Zuberoako herri antzerki zahar horren kodeak.

Ikusleen jokaera oro har motela hauteman bazitekeen ere, oholtzan jardun zuten ia 70 aktoreen jokoa lehiatsua eta kartsua izan zen, burutik buru. Horien joko egite serio eta kartsuan ez zitekeen batere nabaritu pastoral honen oholtzara eramateko pairatu izan dituzten egundoko nekeak.

Izurritea bizienean zegoelarik, 2020ko udaberrian, antolatzaileek urte batez atzeratzea beste irtenbiderik ez zuten izan. Are gehiago, urte horren amaieran eta aurtengoaren hasieran mustrakei edo trebaldiei ozta-ozta berrekin ziotelarik, horiek berriz eten behar izan zituzten, aktore batzuek gaitza harrrapatu ondoren. Hala eta guztiz ere, saioak berrabiaturik, Battitta Berrogain errejentaren eta Sophie Larrandaburu kantari trebatzailearen aginduetara astean birritan bilduz, uztailearen amaierarako prest izatea lortu dute *Abdelkader* antzeztu dutenek.

### **Gorriak... kexu gorri!**

Argi geratu da, beraz, bai errejentak, bai kantarien trebatzaileak, zein ere dantzarien eskolatzailer Margot Fauriek egin duten lana denen begikoa gertatu dela. Jendeak harrera ona egin die pastoral honetan azaldu diren berezitasunei, horietarik nabariena izanik Abdelkader musulmana ate urdinetik atera zedin. Horiek horrela, ezin zitezkeen multzo honetakoak kiristi gisa izendatu, ezta ere ate gorritik jalgitzen ziren frantsesak türk gisara jo.

Alain Merkapide süjetak oso txukun antzeztu du Abdelkader emir borrokalaria, serio eta neurrian jokatzuz, urdinen aldetik egin behar den legez. Gorrien aldetik, berriz, guztiz alderantziz agertu behar da, eta horretan *gaizto sinesgarriak*, hots, oso garratz, gogor eta ahoberoak izan ziren, besteak beste, Bugeaud jeneral frantsesa jokatzuz zuen Allande Davant eta Clauzel egiten zuen Beñat Kaskü. Bi alditan bederen, gorriek hainbeste zuten suharki jokatu, non mikrofonoak makilekin nahigabe jo zituzten. Biziagoa izatea merezi izango zuena, berriz, soinularien taldean jelkaldiaren zenbakia azaltzen duten panelen ezarlea zen, behin baino gehiagotan oso berandu ibili baitzen jarduera horretan.

Txalo zaparrada handia eta merezitua jaso zuen 24. jelkaldian eman zuten dantza sorkuntzak. Honetan ederki ari izan ziren pastoreko hamahiru dantzariak, hauetatik II neskak zirela, eta mutikoak bi baizik ez.

Pastoral bati amaiera ematen dion azken kantuan, ikusleek obra eta horren antzezleak preziatu egin zituztelako seinale argi, jendeak zutik bota zituen txaloak. Trajeria emateetan behintzat ez da sarritan horrelakorik gertatu. Esker-tzeak emateko orduan, Jean Louis Davant idazleari merezitutako gorazarrea egin zioten, eta hark eskerrak bueltatu zizkien aktoreei eta ikusleei. *Abdelkader* trajeria urtebetez atzeratu beharrak egutegia aldatu ondotik, pastoral bat emateko gogoan diren beste bederlatzi herrietakoei esker onak eman nahi izan zizkieten antolatzaileek.

*Abdelkader* trajeria ikusteko hiru aukera haboro daude: uztailaren 30ean, 20:30etik haste, eta abuztuaren Ieko eta 8ko igandeetan, 15:30etik harat. Izurriak sortutako egoerari aurre egiteko neurriek beharturik, orduan ere mila ikusle baino gehiago ezingo da onartu. Hobe, beraz, urrundik etortzeko asmotan direnek lekurik baden edo ez den berri hartzea, helbide elektronikoko honetara mezua bidalita: [xiberokajaunaalkartea@gmail.com](mailto:xiberokajaunaalkartea@gmail.com).

### **Enkantean, Pagola irabazle**

Pastoreko oholtza gainean moneiñak eta aitzina pika dantzak emateko ohorea irabazteko egin ohi diren antxeretan (enkanteetan) Pagola herria irten zen garaile, 2.000 euroko ordaina eskainita. Zeinek gehiago emate horretan lehiatu ziren, ordea, aldi batez gutxienez, Barkoxe, Gamere-Zihiga, Maule-Lextarre, Muskildi, Sohüta eta Urdiñarbe herrietako ordezkariak. Alabaina, ohituratzat bilakatu da pastoral baten lehen agerraldian antxeren irabaztera utz dadin aurreko urtean trajeria eman zuen herria, eta bigarren antzeztean hurrengo urtean ildoari jarraituko diona, hots Muskildi herria. Kontua da, baina, aurtengo lau agerraldietatik hirutan antxerak izango direla.

*HERRIA*<sup>1</sup>

Madalena Larralde lapurtarra (Delphine Urrutiaguer)  
iraüzaleek arrestatü eta eho züen

**“Domingo Garat pastoralaren eskentzeko,  
gure haidürü da Pagola!”**

[*Herria* astekaria, 3509 zk.: I. or. 2019-07-25]

Igante hontan, üztailaren 28a, Pagolan emanik datekean *Domingo Garat* tra-  
jeria edo pastoralaren azken mustraka igante bat lehen agitü da, üsantxak nahi  
düan bezala. Pastoral egünean bezala, 15:30etan xüxen hasi da eta 24 jel-  
kaldiak, 13 kantoreak, 3 güdükak, 2 dantza emanaldiak, satanen jauziak, lehen  
eta azken perediküak emanik, hiru oren eta erdi/lau orenen bürüan ürrentü da.  
Joküko arrokekin eta sonüegileekila emaiten den azken mustraka hau ontsa

<sup>1</sup> *Herria*n argitaratu ziren ondoko lau artikuluak *Herria* astekariaren baimenarekin argitaratzen dira  
hemen.

igaraitearen seinale, Jean-Fabien Léchardoy barkoxtar Errejentak ehun bat igarantxerik diren arizaleer erran deie: “*dagün igantean, bola-hola aritzen bazidee, ontsa pür dateke*”. Ez zen goresmen egite ttipiak!

Mustrika nausiaren ikusleetan ziren, arren, igante hontan pastoralari so egoiteko paradarik ez dükeenak, hots botüra baztergietan, sartzeetan, ostatüan lanean ari diratekean pagolarrak edo bestetarik jinik diratekean haien lagüntzaleak. Baliban lanean aritzeko jente hanitxen beharra badateke, Pagolak emanen düan pastoral hau... Züberoa eta Baxenabarraren jüntako herri honek eman züan azkenetik 37 urteren bürüan beita agitüko! Aita Junes Casenave-Harigile zenak izkiribatürik zen *Pette Basabürü* trajeriak izigarriko arrakasta bildü züan 1982. urte hartan, 4.000 ikusliarrez goiti üken beitzüan! Hainbeste denbora igaran delarik geroztik, Frantxoa Caset Pagolako semeak hontü düan *Domingo Garat* trajeriak, düdarik batere gabe, ikusmin handia piztüko dü eta araberako arrakasta bildüko ere. Pastoraleren idazlea eta errejenta izentatürik, ez güntüke ahatze behar kantarien trebazalea, hau beita Sophie Larrandaburu barkoxtarra eta dantzarien eskolazaleak, erran nahi beita Jakes eta Pette Jaragoyhen aita-seme altzürükütarrak.

Lehenagoko aldi batez aipatü badeitzüegü ere, arra-oritaraz dezagün, hala-ber, Domingo Garat trajeria hontan ariko direnetan kargü nausien etxekizaleak zoin diratekean. Hala, Domingo Garat izanen dena eta, arren, pastoreko Sújeta datekeana Thierry Inchastoichipi da. Domingo Garat gaztea eginen dü, aldiz, Cédric Eyhéramendyk. Beste kargüetan aipat detzagün ondoko hauk: Garat aita: Peio Etcheber; Garat ama: Chantal Maitia; Domingo Garaten emaztea: Patricia Etchart; Joseph Garat: Dominique Urruty; Luis XVI.a erregea: Jean-Claude Aguerre; Marie-Antoinette erregeña: Mirentxu Laco; Olympe de Gouje: Amaia Etcheber.

Trajeria baten historia llabürpena den *leben perediküaren* emaila dateke Jean-Claude Barhaburu, eta hori eginen dü bi agerraldietan. Historiaren erakaspentak lau aizetara zabaltzen dütüan *azken perediküarentako*, berriz, bost emazte dirateke, horietarik bata bi agerraldietan ariko delarik. Lehen agerraldikoak dütükegü: Amaia Etcheber, Maritxu Béhéty eta Iréne Erreçaret eta bigerrenekoak: Amaia Etcheber, Isabelle Erreçaret eta Mirentxu Laco.

### **Eüskaldün, bai... bena Frantses ere!**

Ürrentzeko bi hitz erran dezagün trajeria honen personaje nausiaz. Garat anaiak, Josepe eta Domingo, Lapurdiko ordezkari izendatürik izan ziren, Luis XVI. Frantziako erregeak, 1789ko urtarilan, deitü zütüan Batzar Nausietara. Iraütza agitürik, erregeari eta erreginari büriak moztürik, jakobinoek dener gainea hartürik, 1789ko agorrilaren 4an, iparraldeko eüskal probintzietako azken herri-züzenbideak ezeztatü zütüen eta Pirinio Apaletako departamentüa plantan ezarri, Eüskaldünak eta Biarnesak ber egitüran biltzez. Delibero horrek, Eüskaldünen gaintitik, oldartze bat pitzü züan. Ber püntüan ere, beste gertakari latzik agitü zen, hala nola Espainiarekilako gerla eta Lapurdiko Ainhoa, Azkaine, Biriatu, Ezpeleta, Kanbo, Itsasu, Larresoro, Lekorne, Makea, Sara eta Zuraide herrietako 4.000 bizizaleren deportazionea Landesetarat.

Frantziako Iraültzarekin zerbait gisaz abenitürik eta haren politika bideetan ebili ondoan, Domingo Garat Pariserik Eüskal Herrialat ützüli zen eta Üztaritzeko aüzapez kargüalako haütatü züen. Hil artino, eüskal kültüra eta tradizionaleen altekoea izan zen. Eüskaldün, bai... bena Frantses ere! Egünko egünean orano, badakigü horren berri...

2019ko uztailaren 25ean



## “Sü Azia alkarteak... XiberoKazt abiarazten dü!”

[Herria astekaria, 3602 zk.: 3. or., 2021-07-15]

Kasetalarien aitzinean agertze baten bidez, 1980. urteaz gerotik züberotar eüskalkia süstatzeko eta aküilatzeke lanetan ari den Sü Azia alkarteak *XiberoKazt* izena eman deion *podcast* delako bat plantan ezarri düala jakinarazi dü. Bena zentako ote *podcast* bat ? Alkarteko joanarazleek esplikatü düen bezala, *XiberoKazten* plantan ezartea gogoan hartü düe züberotar eüskalkia ahültzen ari dela üdüri beitzai, bereziki ahozkatzean. Ahültze horren seinaleetarik bat da R hizkiaren behar den bezala ahozkatzearen galtzeko arrisküa. Adin batetara heltürük diren züberotar eüskaldün hanitxek bezala, R hori eüskarazko gisan ahozkatzen ikasi düe. Aldiz, eüskara ikasi düen edo ikasten ari diren gazte hanitxek - bakant zonbaitek salbü - frantsesezko R baten gisan ahozkatzen düe orai.

Arrenküra horri bürü egiteko gogoia ükeitean, güdükü gogor batetan sartürük direla üdüri zaie Sü Aziakoer. Halarik ere, argiki erran deiküe, beren ahal ttipiekila, ahozkatzearen lerratze horri nahi lirakekeala bühürtü eta züberotar mintzoa entzünarazi, haielik eta beste züberotar eüskaldünek, hots orai 50 nahiz 60 urtez goitiz düenek, ikasi eta mintzatü bai eta mintzatzen jarraikitzen düen bezala.

Bada ere beste arrazu bat, Sü Aziakoak züberotarra ahozkatzearen sail hortan bühürtzera aküilatzen dütüana. Entzün üken düenez, eüskara(z) ikasten den güne zonbaitetan *toka*, *noka* edo *züka* aritzea ez da haboro erakasten, mintzatzeko manera neutroa bera delarik ikaserazten. Eta horrek, haien abürüpeñez, züberotarraren ejertarzüna eta aberastarzüna oro galarazten dü. Ezi, Sü Aziako kideek dioen bezala: «ez ote dea hanitxez ere goxoago entzütea “Maddi etxen düik, etxen düin, etxen düzüü”, eziz eta, gure ustez ja puzkaz praubeagoa den “Maddi etxen da?” hori beno?».

Bena, Sü Aziakoek kasetalarier argiki erran deienez: «*ontsa entelegatürük izan gitean: ez deiogü jenteari erran nabi “hola behar da mintzatü eta ez beste gisaz” . . . bai aldiz gük eta gure gizaldikook bai aitzinekook eüskararen abozkatzea nola ikasi dügün entzüinarazi. Gero, bakoitxak nabi düan bezala eginen dü. . . ».*

### ***‘Iturriagaren elbestaldiak’ eta haur literatüra***

Arren, züberotarraren ahozkatzea süstatzekotan, nola plantatü gei dü Sü Aziak? Simple-simpleki, eta hatsarre hontan pürü, züberotarrez izkiribatürük izan diren gaüza elibat, lehenagokoak nahiz oraikoak, irakurtez bi botzetara, bi jenteren arteko kumersa gisan. Lehen-lehen entzügei horietan dirateke, arren, Émmanuel Inchauspé züberotar hizkuntzalari famatüak hortü zütüan ‘Iturriagaren elbestaldiak’ bi botzetako kumersak eta haur literatürako pasta elibat ere.

*XiberoKazt* izeneko *podcast* delakoa xüxenka hola pentsatürük izan da, hots irrati edo beste gisako hedabide bati etxekara izan gabe. Eginkizün hortara plantatü düenak aipatzeko, berriz, hebenko hauk dira: Allande Socarros euskaltzain urgazleak eüskararen saileko bere jakitateak ekarriren dütü eta Marcel Bedaxagar eüskarazko irratilari ohiak, berriz, eüskaraz düan trebetarzünaz gain, jakintza teknikoak ere ekarriko dütü. Bi arizale horien helbürüa –berriz ere erraiteko–, eüskararen aspaldiko denboretako ahozkatzearen jakilegoaren zabaltzea dateke. Poscast delako baten, teknika moldadüraren aldetik, hontzeko maneretan lagüntzale baten beharra ükenik, Dominique Barreix jüntatü zaie Sü Aziakoer.

*XiberoKazten* bidez hedatürük diratekean beste bi entzüngeiak dirateke, berriz, interneten bidezko *zuberotar.free.fr* züberotarraren ikasbideko ikasgeien zabaltzea eta Züberoako kantagintzako Sü Azia sonüki bildümako ekeien baliatzea. Azken egingei honentako, Euskal Kultur Erakundeak 1.500ko diharülagüngo bat eman deio jada Sü Aziari. Eta Departamentüko kontseilüak, berriz, Pepela Miranderi esker, 2000 bozkatü berri dü *XiberoKazt* lanarentako. Azkenik, Sü Aziako kideek kasetarier erran deienez: «*orai, esperantxa dügü EEPk ere lagüntüko gütüala, hori laster jakinen dügülarik*».

Anartean, *XiberoKazt* emanaldiak hebentik laster entzüngei dirateke [www.suazia.com](http://www.suazia.com) internet günean, bai eta beste entzün-egarzola zonbaitetan ere, *Ausba* izeneko plazaratze plataformari esker. Ordüan, oraidanik nahiantak oro joan gitean *XiberoKazti* behatzera ondoko lotüra honekila zabaltzez: <https://podcast.ausba.co/xiberokazt/iturriagaren-estaldiak-1-2-3-4>.



## “Aurten bai *Abdelkader* trajeriaren aldi datekeala!”

[*Herria* astekaria, 3603 zk.: I. or., 2021-07-22]

Hitzartürrik urte baten berantarekin... bena aurten bai *Abdelkader* trajeria edo pastoralara gozatzeko parada badükegüla üztaila honen 25ean eta 30ean eta agorrilaren Iean eta 8an, Ürrüstoiko herrian. Covid-19 planetak bazterrak oro erauzi dütü, bai eta Ainharbe, Ezpeize-Ündüreine, Sarrikotapea eta Ürrüstoi-Larrabile herriak biltzen dütüan ‘Lauak esküz-eskü’ alkarteak plantan ezarri düan pastoral honen emaita ere, igaran urtean agitzekoak ziren emanaldiak ezeztatzera behartzez.

Etxen egoitera behartzeen artetik, mustrakak berriz hasi ziren... bat eta berriz eküratü ere, arizaleen saldoan kozatze zombait agitzearekin. Halere, nekeak neke eta trabak traba, mustrakak egin ahal izan dira ahal bezain arraheinki eta patoralaren giro paragabeaz beteko da Ürrüstoiko arrabotüa, jiten den igante hontan, ondoko ostiral gaüaz eta agorrilaren lehen eta bigarren iganteetan.

Bena kasü... planeta orano hor gainti izatez osagarri segürtantxa neürriek iraüten düe eta emanaldikal ez date 1.000 jente beno haboro biltzen ahal jarrietan!... Horrek erran nahi dü sartzeak fite saldürrik diratekeala eta Züberoatik kanpo pastoralaren ikustera jin geietan direnek hobe düela lehenago berri hartzea lekürrik baratzen den ala ez. Arren, gain-gainetik aholkatzen da hortaz segürtatzea, helbide elektronikoa hontara mezü baten igortez: [xiberokojaunaalkartea@gmail.com](mailto:xiberokojaunaalkartea@gmail.com)

### **Pertsonaje nausia ez date Kiristietan!...**

Emanaldikal ikusliar puzkaz gütiago izanen bada ere *Abdelkader* trajeriaz gozatü behar lüke jenteak. Eta pastoral hau, audela, aipagarria date zinez... aspaldiko partez ez beitate erraiten ahal Süjeta, hots personaje nausia, Kiristien gaintian datekeala! Nola erraiten ahal lizate hori, jakitez *Abdelkader* müsülmáno bat zela eta müsülmáno jentetzaren bürüzagi gorena ere, emir izatez?

Frantziak Aljeria indarrez hartzeari lüzaz bühürtü zen *Abdelkader* (1808-1883) dü trajeriaren gei bezala häütatü Jean-Louis Davant idazle larrabiltarrak.

*Abdelkader* batek düda denmendrenik gabe merexi züan pastoral batetan goraiпатürrik izatea. Ezi, 1832an emir bezala izentatü züenetik, 1847. urte ürrentzeala artino frantses armadari armekila bühürtü zen, zombait aldiz bake

tratüak honartü balin bazütüan ere. Ordünko Aljeriako gizeli hanitx bere bürüzagitzapean bildüririk, behin beno haborotan frantsesak zaflatü zütüan, püntü hetan Frantziako armada mündüko azkarrenetarik zelarik, aldiz.

Alabadereko abrekeria hanitxez baliatüririk, frantsesek Abdelkaderren güdükalariak goitü zütüen azkenean eta emirrak üko egin behar üken züan 1847ko abentüaren 21ean. Hortarik landa, frantsesak beti nausi beitira mendekü egitean, Frantziak tinkatüririk etxeki züen Abdelkader, lehenik Toulonen, gero Paueko jau-regian eta azkenik Amboiseko palazioan. Azkenean, Louis-Napoléoen Bonaparte presidentak –geroxeago Napoléon III.a inperadorea eginen zenak– librarazi züan 1852ko ürrietan. Ondotik, Abdelkader Frantziatik joan zen, lehenik Türkialat eta gero Damaskora (oraiko Siria), non ere azken hatsa eman züan.

### Alain Mercapide, Süjet

Lehenago izentatü dütügün Pettarreko lau herriek Jean-Louis Davanten obra hau haütatü ondoan, Battitta Berrogain urdiñarbetar-sohütarrari galtatü zeioen pastoraleko errejenta izatea eta honek galtegitia honartü. Bigerren aldi-koz da lan zail horri plantatüren, harek beitzüan jadanik tauladala moldatü Sohütako herriak 2013. urtean eman züan *René Cassin* pastorala, hau ere Jean-Louis Davantek hortüa. Lehen-lehen mustraka igaran 2020ko urtarilaren 11an eginik (!), pastoraleko kargüen emaita, berriz, ondoko barantailaren 15ean agitü zen. Hona, arren, orain düala abantxü urte bat eta erdi emanik, zoin diren trajeria hontako kargü nausiak. Süjeta, hots Abdelkader izanen dena Alain Mercapide date, eta haren lehen emaztea zen Kheira, aldiz, Mathilde Faurie izanen da. Frantziak Aljeriat igorri züan armadako bürüzagi nausia zen Thomas-Robert Bugeaud, Allande Davantek jokatüko dü. Oritaraz dezagün Larrabileko semea 2008ko *Xiberoko Jauna* trajeriako Süjeta izan zela. Frantsesak Aljerian sartü zirelarik Inperio Otomanoko ordezkari nausia zen Hussein Dey sültanoa dateke, aldiz, Armand Elgoyhen. Frantziak Aljeria indarrez hartzean ‘Frantsesen Errege’ zen Louis-Philipperen joküaren egiten ariko da Stéphane Idiart eta Abdekalder librarazi züan Louis-Napoléon Bonaparte dateke Jérémy Dendaletche.

Pastoraleko historia llabürbiltzen düan Lehen Perediküa emanen düe Alicia eta Aurélie Chabay ahizpek eta trajeriaren erakaspenak emaiten dütüan Azken Perediküaren kantazale dirateke Charlotte Baumel, Mainer Davant-Urruty eta Laurentx Uthurralt. Trajerian, bata-bestearen eretzean diren bi gizataldeen banderainak dütükegü, azkenik, Urdinen gaintitik Margot Faurie eta Gorrien aldetik Marlène Irigoyen.

Hona, arren, Abdelkader trajeriaz jakinbehar zonbait... bena berriz ere oritarazten dügü ikustera jin geietan direnek hobe düela lehenago segürtatürük sartzeko paradarik badükeala... trajediarik ez heltübada bena atsakaberik pürü ez dezaen egart!

2021eko uztailaren 22an



Jean-Mixel Bedaxagar Sü Aziko alkartebürüa eta Allande Etxart bi libürüen presentazionean

## “Sü Azia alkartek bi ützülpän berri argialatü dütü”<sup>2</sup>

[*Herria* astekaria, 36II zk.: 9. or.,  
Zuberoa, 2021-10-07]

Züberoako eüskararen süstatzeko eta hazteko eginahaletan ari den Sü Azia alkartek bi libürü berri argialatü dütü, biak ützülpän lanak.

Bata da Battittu Coyos euskaltzainak Añesa Coyos Etchebarne bere ama zenaren gazte denborako oritzapenen züberotarrealat ezartea, hauk frantsesez izkiribatürük izan beitziren. Bestea da, Jose Miguel Barandiaran antropologo famatüak Liginaga-Astüe herrian 1937. urtean egin züan egonaldian espainolez izkiribatü zütüan xehetarzün eta oharren Allande Etxart eüskaltzale ezagünak züberotarrealat ezartea. Bi libürü hauk dagün ürrietan agitüko den Sarako Eüskal Idazleen Biltzarrean Sü Aziaren erakusmahainean presentatürük dirateke.

<sup>2</sup> Artikulu hau da *Herrian* Allande Socarrosek argitaratu zuen azken artikulua.

### *Bizi simple bat - Añesa Etxebarne Coyos*

Hona, Battittu Coyosek berak zer dion bere ama zenaren etxekoen oritza-penentako hontü zütüan izkiribüetaz:

Esküetan düzün libürüa ez zen inprimazeko aitzin-ikusirik.

Adina aitzinatzen beitzeion, ama zenak frantsesez izkiribatü zütüan bere biziko oritzapen horik, familiari, ahizpa-anaier, haurrer, arrahaurrer jakinarazi nahi zütüan.

Egia da hor, amak bere sentimentüak, bere alageratzea ala sofritzea zombait aldiz aipatzen dütüala biziko istoria eta anekdota ttipi horietan, beraren usteak eta enjogidüra intimoak artetarik.

Hitz gütiz, gaüza hanitx hunkitzen dü istoria llabür horietan: lehena-goko laborantxa, ekoizte hanixtarzüna Züberoako etxalte batetan, gizaldi bakoitxaren leküa eta egitekoa familia handi batetan (15 bat pertsona ber hegatz pean!), ezkontze «arranjatüa» eta gazteen amodio-nekeziak XX. mente hatsarrean, errejentsa gazte baten entralalak Züberoako herri ttipi eta baztertü horietan Biggerren Mündü Gerla beno lehen, bi mintzaje ezbardinen arteko joküa (eüskara güneko mintzajea eta frantses kanpotiarra) eta gorabeherak eüskara elebakoitxeko züberotar laborari gizar-tean, züberotar emazte gazte batentako «gizarte-igangailüa» eta frantses mintzajearen bidezko emanzipazionea...

Bena horik oro ez direa amaren alde ezezagütüak edireiten dütüan seme ütütü baten hitzak? Irakurle, zük erranen düzü.

### *Liginaga-Astue, 1937. urtean - Jose Miguel de Barandiaran*

Biggerren libürü honek, arren, Jose Miguel de Barandiaranen lan ezazagütü bat agerialat ekarri dü, Allande Etxartek egin ikerka-lan bati esker. Barandiaranen xehetarzün eta ohar horik espainolez izkiribatürük beitziren, Allandek berak züberotarrealat ezarri dütü.

Haren izena eta izana hanitx ezagütüak balin badira ere, bi hitzez oritaraz dezagün nor zen Jose Miguel Barandiaran eta zer plantaz egin züan egonaldi bat Züberoako Basabürüko herri ttipi hortan.

Jose Miguel de Barandiaran eüskal antropologo eta etnologo ospetsüa Atauneko (Gipuzkoa) Perunearre etxaltean sortü zen 1889ko abentüaren 3Ian.

Gazteizko (Araba) apezikasgian eskolak eginik, apez izentatürük izan zen 1914. urtean. 1922an Aranzadi arkeologia ikerka alkarteko kide gisa jakitate biltze bidajeak egin zütüan Parise, Munich eta Leipzig hirietara, non ere erakus-

toki edo museoak bisitatü zütüan bereziki. 1926an, berriz, hor berean erakasle gisa erauntsirik, Gasteizeko apezeskolako züzendari izentatu züen. Halaber, Eüskal Herrian ediren daitean harrimahain edo trikuharrietzaz hitzaldiak eman üken zütüan Genevan, Zurichen, Erroman eta beste zonbait lekütan ere. 1935an, Nazioarteko Antropologia eta Etnografia Biltzar Iraüinkorreko kide izentatü züen, Londresen.

1936an, Franco бүrüetarik zen estatü-kolpea agitürrik, honekila piztü zen Espainiako Gerla Zibilak Ipar Eüskal Herriala ihes egitera behartü züan eta Baionan ediren züan aterbü. Ordüan züan Baionako apezküpüak bikario izentatü eta aski fite Liginaga-Astüerat igorri, 48 urtetan. Jadanik antropologian trebatürrik beitzen, ikertzeen egiteko plan xehe bat erabilten züan, Liginaga-Astüen baliatü züana.

Barandiaranek jenteer galtatzen züan istoria eta alegia edo lejenda kontatzea. Entzüna xeheki beretako idazten züan. Eüskal jakintsü eta ikerlari handi horren ezagütgarri nausia zen iraganeko güzetan arraheinki *non*, *zer*, eta *nola* galtatzen züala... haatik behin ere ez *zertarako*...

Bi libürü horik 12 eurotan bakoitxa salgei dirade. Norapait igortekotan, posta kostüak gehitü behar dira. Xehetarzun habororentako: suazia@gmail.com / 05.59.28.05.67.

2021eko urriaren 7an



## JAKIN ALDIZKARIA<sup>1</sup>

### “Euskal kultura”, 1998

[*Jakin*, 109 zk.: 59.-64. or.]<sup>2</sup>

#### Zuberoa: berezitasun eta bereizkuntza

Zuberotar bat Zuberoako kontu batzuez mintzo. Asko ez dira harrituko eta nolabait ohizkotzat joko dute ere aukera hori. Haatik, *Jakin*-entzat egin dudan lehendabiziko idazlan honekin asmoa daukat zuberotar gisako gure berezitasunak ez duela bereizkuntza erran nahi azaltzeko. Horretarako, bizpahiru gairen aipatzetik eta aztertzetik joko dut.

Nire lankidetzaren gauzatzeko erabilgarri nituen gaien zerrendan agertzen ez den gertakari batetik abiatuko naiz. Nahiz eta oraingoz, gertakizun hitza erabiltzea zegokion, zeren eta ofizialki gertatu ez, baina gertatzekotan baita. Euskaltzaindiak, Zuberoako herrien idazkera «berria» onartzeaz mintzo naitzaizue. A, zelako borroka ez dugun eraman, azken urte hauetan, euskararen eta euskal kultur lanen inguruan gabiltzanok! Eta zertarako borroka hori, bada? Beste euskal herrialdetako euskaldun guztientzat arauzko direnak guretzat ere erregela izan zitezten, besterik ez. Ezen, ikastoletan, gau eskoletan, hedabideetan, itzulpengintzan edo plazaratu beharreko edozein idazlanetan jarduten dugun Zuberoako euskaldun alfabetizatuentzat zinez mingarria zen ikustea Euskaltzaindiak zubererarekiko eta, batez ere Zuberoako herrien idazkeraren kontuarekiko zeraman jokabidea.

---

<sup>1</sup> *Jakin*-en argitaratu ziren ondoko hiru artikulua *Jakin* aldizkariaren baimenarekin argitaratzen dira hemen.

<sup>2</sup> Artikulu hau da *Jakinen* Allande Socarrosek argitaratu zuen lehen artikulua: <https://www.jakin.eus/aldizkaria/artikulua/euskal-kultura-1998/2434>.



Aurretik zehaztu ditudan sailetan gabiltzan euskaldunontzat ulergaitza, tamalgarria eta onartezina ere zela erran nezake, Euskaltzaindiak, gure berezitasuna bereizkuntza bihurtu zuela hautemateak. Nola besterik azaldu zitekeen Euskal Herriko beste herrialde guztietan idazkera arau bezala finkatuak direnak, guk, Zuberoan, jarraitu ez beharra? Hizkuntza aditu eta arau egile gisa, nola ontzat eman, Zuberoan, ahomintzozko *H*-ak atxiki beharra edota ea idatzi beharrean ia izkiriartzea? Esaterako, nola onartu *Phagola* eta *Sarrikota Gañia* bezalako itsuskeriak, Zuberoako herrien zerrenda ofizial hartan bertan Lakarri idazkera egoki emana zelarik (alta bada, Lakharri ahoskatzen dugu... ). Nolako seriotasuna ematen zion Euskaltzaindiari Berrogañe idazteko aholkua emateak eta berrogaintar bezala ematea hango bizilagunak?

Hala ere, makurbide orok badute, egun batez, beren bukaera eta Euskaltzaindiari, azken batez, Zuberoan, euskalgintzan gabiltzanoi arreta egitea gogoratu zaio. Hemendik aurrera, beraz, Zuberoako herrien izenak idazkera arautuan agertuko dira hedabideetan eta ez dugu jasan beharko, nik behintzat, folklorismo hitzaz definitu dudana jokoera. Izan ere, idazkera fonetiko edo erdi fonetiko haren atxikitzeak bazeukan sasi-azalpen bat, hau da, Zuberoan, *H* horien ahoskatzeak ohitura ez zela galdu behar. Beraz, idazkerak behar zuen ahoskeraren araei egokitu eta ez alderantziz. Zein hizkuntzatan ikusten da holako araurik finkatzea? Pentsa dezagun, esaterako, frantsesari aplikatzea sasiarau hori... Ederrik balitzateke, benetan, hain baita handia, sarritan, frantses hizkuntzaren ahoskera eta idazkeraren arteko aldea. Euskaltzaindiko onomastika batzordearekin izandako bileretan, oso iritzi berezia aditzerat eman zuen ere gonbidatu batek, hots Atarratze edo Zunarreta herrien kasuan *H* fonetiko mantendu behar zela idazkeran... hango jendeentzat onargarriagoa zelakoan! Onargarriagoa! Hau zer hizkuntza arau mota ote da? Noizdanik hizkuntza baten aurakatea (sic) egiten da, hau edo hori onargarria ala gaitzesgarria delakoan?

### **Euskara «diskriminagarri» daukaten euskal herritar horiek**

Atarratzez mintzatzen hasia bainaiz, aurrera joko dut eta atarratze askoren euskararekiko gutxiespenaz arituko naiz. Jarrera honen argibide bat gehiago izan dugu berrikitan, hain zuzen ere, «saltegiak ere euskaraz» kanpainaren barruan, Atarratze eta Mauleko merkatari guztien ikusterat ibili garelarik, euskarari leku bat ematea onartuko zutenez jakin guraz. Mauleren kasua, laburki aipatzeko lehendabizi, aurrenez ongi genekiena egiaztatu da tamalez, hau da mauletar denda jabe oso gutxi (bizpahiruk) dakiela euskaraz eta, hor-

taz, kanpaina horretan esku hartzea ezinezkoa zaiela. Alabaina, zin-zinez hori pentsatzen dutenez ez bada ziurtatzen ahal ere, euskararik ez jakitea dolugarritzat daukate eta minez bizitzen dutela aitortu digute batzuek. Ikastea, haatik, oso neketsutzat ikusten dutela gaineratu digute, denbora eskasia aitzakiatzat harturik, kasu gehienetan. Horra Mauleko egoera eta tamalgarria bada ere, ulergarria da behintzat, Mauleko bizilagun ugari —eta merkatari gutizgehienak— kanpotik etorritakoak baitira. Kanpotik erraiteak ez du erran nahi atzerrietatik datozela, zeren eta mauletar asko nafar jatorrikoak baitira, baina nafar erdaldunetakoak. Maule erdaldunak badauka, beraz, sustrai historikorik.

Atarratzeri, aldiz, ez zaio estakuru hori onartzen ahal, herri honetako bizilagun gehienak, baita merkatariak ere, euskal jatorrikoak baitira. Euskal Herrikoak bai, duda barik, baina euskaldunak ez, ezta nahi ere. Iritzi gogorra iruditzen bazaizue ere, ziorik badaukala natorkizue frogatzerat. «Saltegiak ere euskaraz» kanpaina izanen zela, eskutitz bat helarazi genien Maule zein Atarratzeko merkatari guztiei. Maulen, jada erran dudanez, harrera ona jaso genuen... baina Atarratzen! Euskararen sustatze lanetan diharduen Sü Azia elkartekook igorri genien gutunari, oso suminduta erantzun diote atarratzen merkatarien batasunekoek. Haien «harridura eta amorrazioa jakinarazi» nahi ziguten eta, «pentsaezinezkoa» zela euren baimena eman zezaten «euskara ez dakitenentzako kaltegarria litzatekeen ekitaldi diskriminatzaile bati». Hori bera! Hargatik, atarratzen merkatari hauek «euskarari begirune handiena» diotela segurtatzen zuten, nahiz eta «nahasketa eta bereizketa besterik eragin ez zezakeen egitasmo hori berehala bertan behera uzteko» eskatzen ziguten...

### **Euskararekiko lotsarik ez baina, hala ere, peko errekarat goaz**

Zinez diotsuet ihardokitze horrek ez ninduela ezustean harrapatu. Atarratzenetik sei kilometrotan kokatutako Etxebarre herriko seme naiz eta betidanik sumatu dut Atarratzeko merkatarien munduak gutxiespenez hartu duela bere inguruko nekazari mundua. Atarratzenak beti izan dira guretzat «hühü handiko jankillot frantximantak» eta hau ez da gaur egungo kontua, euskara aspaldidanik baztertua baita Atarratzeko saltegietatik. Hala ere, atzoko eta gaurko giroak bai badaukala ezberdintasun nabari bat. Atarratzen merkatariak ohartu egin dira, gutxi edo aski, euskaraz karrikan hitz egitea «lotsagarria» zen garai haiek atzean daudela, euskarak, nola edo hala, bere duintasuna berreskuratu duela. Ez bakarrik, Hego Euskal Herriko euskaldunak etortzen ikusi baitituzte, bai ordea, Ipar Euskal Herriko euskaltasuna zein abertzaletasuna sendotu egin

baitira. Eta hain zuzen ere, nire ustea da Atarratzeko «frantximantek» nolabait gaizki bizitzen dutela egoeraren bilakaera hori, hots euskaraz jakitea beraiek ez daukaten zerbait gehiago dela eta ohartze horrek diela min egiten.

Euskara, beraz, ez da gaur egun lotsaz hartzeko gauza gure Ipar Euskal Herrian. Bai baina, hara paradoxia kezkaigarria, gaur egun atzo baino gutxiagok hitz egiten dugu euskaraz. Zuberoako kontuekin jarraitzeko, demagun euskaldunenik bezala hartua den herri bateko karrikan gabiltzala, esaterako Altzain edo Altzürükun aurkitzen garela. Denbora gutxi behar izango dugu ohartzeko belaunaldiak gero eta gazteagoak izan, orduan eta euskara gutxiago ematen dutela. Egun, 10-12 urteko gazte bat euskaraz hitz egiten entzutea Zuberoan, ia mirakulutik dago. Are larriagoa, txikitatik erdaldun gisa hezitzen dira haur horiek eta, gurpil zoroarena ezin geldiarazirik, haur eta gazte erdaldun hauek are erdalduntzenago dute ingurugiroa, euren etxekoetatik hasita. Horiek horrela, Zuberoa mitikoa, euskal kulturaren gotorleku ezin hartutakoa, mito hutsa dela argi geratzen da. Euskararen beherakada itzelaren kontutik, Ipar Euskal Herriko beste bi herrialdeei alderatuta, ez dugu berezitasunik... Peko errekarat goaz guztiak.

### **Euskararen gizarte eta ekonomia baliagarritasuna bultzatu**

Hara egoeraren oharpena baina heriozbide honi nola aurpegi eman? Ez dut mirakuluzko errezetarik baina uste dut jokabide egokienetatik bat izan daitekeela euskararen zokoratzeko baliatua izan den argudio nagusi bat alde-rantziz erabiltzea lortu behar genukeela. Euskarak ezertarako ez zuela balio sinetsarazi zieten gure aitetamei, frantsesa zela aurrerakuntzarako eta lorpenerako hizkuntza, alegia.

Alabaina, nik uste dut gaur badela garaia eta aukera, alderantzizkoaz gogorazteko, hau da euskaraz jakitea dela erdaldunek ez daukaten zerbait gehiago. Euskaraz jakiteak aukera eta ahalik ematen duela Euskal Telebistari begiratzeko eta ulertzeko, Hego Euskal Herrikoekin harremanak edukitzeko eta, egia baita ere zenbait kasutan, lanpostu baten lortzeko. Azken finean, euskarari begira herabe direnak (etsai amorratu daudenak konbentzitzea alferrikako lana da, ordea) euskararen aldeko jarrerara ekartzera saiatu behar genukeela.

Ororen buru, euskarak gizarte eta ekonomia baliotasuna badaukala onartarazi behar diogu euskal jendeari. Hemen da, beharbada, berreskalduntzerako xedean, Zuberoan pairatzen dugun okerren bat, hau da, kultura alorreko osagai gisa ikusia dela bakarrik euskara eta ez gizarte eta ekonomia harremanetarako

bitarteko bat bezala. Oharkuntza hori gizartean nagusiaraztea oso bide luzea izanen da baina, nahitaez, horretarako urratsak behar ditugu eman. Horretarako ere, beste euskal lurraldetatik ez gara bereiztuta egon behar eta eredu gisa ere baliatu behar ditugu, euskararen ofizialtasun egoera berri emanda. Badakit eskas ugari eta euskararen kalterako jokaera asko daudela, bai Euskal Autonomi Erkidegoan zein Nafarroako Foru Erkidegoan, baina, hala ere, euskarak estatutuak badauzka, hobetu beharrak baldin badira ere. Oraingoan, horretatik oso urruti gaude Ipar Euskal Herrian, kontu hau lotuta baita gure onarpen juridiko-instituzionalari.

## “Euskal kultura”, 2005

[*Jakín*, 151 zk.: 51.-56. or.]<sup>3</sup>

### Euskararen onarpena gora... euskararen erabilpena behera!

Joan den urriaren 19ko saio nagusian, Zuberoako 35 udalerrri batzen dituen Xiberoa Herri Elkarteak erabaki guztiz garrantzitsu eta esanguratsu bat hartu zuen. Bileran parte hartzen zuten zinegotziek aho batez onartu zuten Atharratzeko kantonamenduko ikastolaren egoitza berria eraikiaraztea. Basabürüko ikastolaren eraikin hau Herri Elkarteak erosi duen Aloze herriko eskola katoliko baten kokalekuan egongo da. Orain dela zenbait urte atek itxi dituen eskola horretako bastiza zaharkitu eta ezegokiak lurrera botako dira eta hauen ordeaz eraikiko dira alde batetik haurtzaindegi bat eta bestetik, beraz, Basabürüko ikastola.

### Euskararen onurarako giro bat

Diru publikoarekin eraikiko da honezkero Atharratze inguruko ikastola, Zuberoan dagoen bestea —Sohütako Eperra ikastola— ez bezala, hau aldiz gurasoen eta laguntzaileen lanez, diruz eta, oro har, konpromiso osoz altxatua izan baitzen. Eperra ikastola eraiki zelarik, Herri Elkarteak ez zen sortua, baina hala izan balitz ere, ez da erabat ziurtatua Zuberoa osoko zinegotzien batzarre batek aho batez ontzat hartuko zuenik euskarazko erakaskuntzako egitura bat sustatzea. Euskararen onurarako giroa nabarmen aldatu da urte gutxitan, eta hori gertatzeko erabakigarria izan da hautetsiek eta egitura publikoek hartu duten joera baikorra.

Euskararentzat giro hobetze horrek eragile bat baino gehiago izan du, hauen artean direlarik, nire ustez, azken udal bozetan abertzale andana zinegotzi bilakatu izana, baita euskara herrialde baten garapenerako osagai izan daitekeela ohartzea ere. Euskara esparru publikora zabaltzea izan da lehenengo urratsetatik bat Zuberoan zein Ipar Euskal Herriko beste eskualde gehienetan. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean esparru publikoan elebitasuna bultzatzea autonomia egituraketa bateko eskumenei lotuta baldin badago, kontuan hartzekoa da Ipar Euskal Herrian euskarak ez

<sup>3</sup> Artikuluaren lotura Interneten: <https://www.jakin.eus/aldizkaria/artikulua/euskal-kultura-2005/3138>.

daukala inolako ezagupen ofizialik. Euskararen plazaratzea tokian tokiko egi-tura publikoen aukerako jokabidea da; ez da legez babestua eta are gutxiago behartutakoa den egonmolde bat.

### Lotsa beste aldean dago

Kontzientzien kolonizazio luze, sakon eta maltzurra jasan duen herri batean, egun batetik bestera, lekuen, egoitzen, zerbitzuen, lantokien eta gaineratiko argibideen euskarazko izenak seinale ofizialetan agertzea, zin-zinez, gogoen iraultza baten antzekoa izan zen. Euskararen aldeko jarduleek soilik egina izan bazen, salaketa egileak egongo ziren, duda barik... Baina hautetsiek, lekuko botere publikoek bultzatuta zenez, herritarrek ez dute zalantzan jarri! Kontrako iritzirik ez da aditu, halaber, Herri Elkarteak aurten bertan ere moldatu eta aho batez onartu duelarik euskararen sustatzeko egitarau bat jasotzen duen *liburu zuria*. Ez nago, hargatik, ameskerietan ibiltzen; jakin badakit euskararen plazaratze horren aurkakoak badaudela, baina hauen iritzi esparrua estutu egin da. Gaur egun, oso zaila bihurtu da euskararen aurka, argiki ala zeiharka, agertzea, kargudunen munduan batez ere. Lotsa aldez aldatu da. Lehen, orain dela ez hain aspaldi, euskararen alde mintzatzea eta jokatzeko gaizki ikusia zegoen, euskarak ez zeukan sinesgarritasunik ezta kargudunen babesik ere. Oraingoan, aitzitik, euskararen aurka hitz egitea da gaizki ikusia dena eta politika zein gizarte arduradunek nabarmendu gogo dute euskarari atxikiak daudela, hitzetan baizik ez bada ere. Giro eroso honi esker da Basabürüko ikastola nola edo hala nahikunde publiko baten ondorioz eraikiko, 25 urtez egoitza finkorik gabe noraezean egon ondoren.

### Ofizialtasuna, euskararentzat premiaz lortu beharrekoa

Onartutako eta sustatutako ikastola horrek euskararen erabilera esparrua zabalduko duelako esperantzaz hazi behar gara, zeren eta, gure hizkuntzaren egoera etengabe larriagotuz baitoa Ipar Euskal Herri osoan oro har, eta Zuberoan bereziki. Eta horra hor, hain zuzen ere, paradoxa: euskararen onarpenera gero eta gorago joaten ari den unean bertan, euskararen erabilpena gero eta beherago doala. Ikastolan dauden haurrez kanpo, ia ume eta gaztetxo bakar bat ere ez da euskaraz mintzatzen gaur egun Zuberoan. Mirari huts bat bilakatua da haur edo gaztetxo bat euskaraz hitz egiten entzutea, Zuberoako herri ustez euskaldun batean ere. Gainera, euskaraz dakiten bi haur egonda ere leku batean, haur

erdaldun bat haiekin bateratzearekin, akabo euskara eta gora frantsesa! Ez da egungo kontua ezta atzo goizekoa ere, baina egoera gero eta okerragoa bihurtzen ari dela, hori bai begi-bistakoa. . . edo belarriz nabarmen ohartu daitekeena dela.

Euskara hiltzorian dago Zuberoan eta erdipurdiko neurriek ez dute ezertarako balio izango. Nahitaez, legez behartutako neurriak hartzearekin bakarrik buelta eman ahal izango zaio heriozbide honi. Argiki mintzatzearen, euskara eskola publikoan —Frantziako Hezkunde nazionalaren sarean— derrigorrez sartu beharko da. Ezinbestekoa da, euskarazko irakaskuntza, gurasoen borondatezko urrats bat izatetik, bete beharreko araua izatera bilaka dadin eta, ordutegi kontu, oso nabarmen haz dadin. Horrelakorik ez da egongo legeak hala aginduko ez duen bitartean; eta legezko betebeharra izan dadin, euskarak, baitezpada eta premia gorrienez, ofizialtasuna lortu behar du Ipar Euskal Herrian. Abertzaleen, euskaltzaleen, herrizaleen —izen ezberdinak erabil daitezke euskararen alde jardun dutenentzat— indar egitez eta mobilizazioz lortu da ikastolen ezagupen publiko zerbait, euskara plazara zabaltzea, euskararen aldeko giroa haztea.

### **Aukerakoa izatetik behartutakoa izatera**

Orain, haatik, gehiago berantetsi ezin den borroka saila da gure hizkuntzaren ofizialtasuna eta honek deragitzan ondorio guztiak behingoz onar ditzan estatu frantziarrak. Euskara hizkuntza ofiziala bihurtzearekin, eskola publikoetan euskarazko irakaskuntza nahitaez onartu eta obratu beharko dute irakasle eta gurasoek. Ez dela demokratikoa, esango du baten batek? Demokratikoa al zen frantses hutsean Ipar Euskal Herriko seme-alabak heztea? Demokratikoa al da bere jatorrizko lurtean hizkuntza bat zokoratuta izatea, bizitzeko eta garatzeko baliabiderik gabe egotea?

Bati baino gehiagori zinikoa irudituko bazaio ere, menperatzea jasan duen herri batean, aginteak ebazten duena ezinbestez onesten dute herritarrek. Ipar Euskal Herrian, Parisko gobernuak bihar erabakiko balu euskarak behar duela ofiziala izan, ez litzateke aurkako oldarraldi handirik izango, non ez den, beharbada, Hezkunde nazionaleko irakasleen artean, hauetatik asko «Errepublikan batu eta zatietzen»aren zaindari zorrotzak baitaude. Oldarraldirik egon ala ez, irakasle hauetatik gehien euskararen menperatze mailaz eta euskarazko irakaskuntzarik obratzeko gaitasunaz, baina, zalantza handienak badaude. Beraz, bidea oso luzea da eta bada garaia euskararen ofizialtasunaren lortzeko urrats eraginkorrak egiteari ekin diezaiogun. Bestenaz, hemendik gutxira, ofiziala izango den kontu bakarra euskararen heriotza izango da.

### Santa Grazin, ikastola non grata...

Euskararen aurkariak, gaur egun, agerian azaltzera ez direla ausartzen erran dut lehenago. Ez da osoki egia, toki jakin batzuetan menturatzen baitira euskaltasunari arbuio egiten edo behintzat politika jokaerazkotzat ematen duten euskaltasunaren kontra azaltzen. Eta hara beste paradoxa bat, euskararen etsaigo hori euskaldun petto-pettoak direnek aldarrikatzea. Horra hor lekuko datorkigun urteko pastoralaren egile izango den Santa Grazin hartua izan den erabakia. Aspaldidanik, eta salbuespen bakan batzuk gorabehera, pastoral agerraldi osteko afariaren atonketa Zuberoako ikastolen esku utzi izan dute antolatzaileek. Santa Grazin ez da horrelakorik izango... pastoralaren antolaketarako batzordeak erabaki baitu jarduera hori ezin zitzaiola eman «politika egiten duen egitura bati». Hara zertan dauden Santa Grazin, edo behintzat santagraztar batzuk: duela hogeitamar urte ikastolaren bultzatzaileei aurpegiratzen zitzaizkien aitzakia zitaletan tematuak. Horiek horrela, eta mugak muga, bakoitzak nahi duena pentsatzeko eta egiteko askatasuna duelakotz, Santa Grazik eskubidea dauka ikastolari uko egiteko eta pastoraleko afariaren prestakuntza nahi duenaren esku uzteko. Eskubidea dauka, bai..., euskaltzaleek jokaera horren hazle ez izateko haizu duten bezala eta, beraz, pastoral osteko afariari muzin egiteko aukera izango duten bezala.

### Pastorala ez dadila euskararen tragedia bihurtu

Hurrengo udan, beraz, Junes Casenave-Harigile herriko semeak idatzitako *Andere Santa Grazi* tragedia (pastorala) gozatzeko aukera izango dugu. Ikastolari arbuio eginagatik, santagraztarrak euskaldunak, euskal hiztunak, direla ezin da uka. Egunero euskaraz ari diren arizaleak izango dira, beraz, pastorala honetan, hori ez baita, tamalez baina, betiko kontua... Joan den urtean, esaterako, Ligi, Atherei, Lexantzü, Zunharre eta Etxebarrek taularatu duten *Bereteretxe* pastoralean ia esan daiteke erdaldunak euskaldunak baino kopuru handiagoan zirela! Gauzak horrela, eta sinesgaitza badirudi ere, jakin beharrekoa da Jean-Pierre Rekalt errejenta frantsesez mintzatzerat behartuta zegoela mustraka edo trebealdi saioetan!

Egia esatearren, 2004an, Maule erdaldunduan eman zen *Antso Handia* pastorala joan den urtean Basabürüko herri hauek eskaini digutena baino nabarmen euskaldunagoa zen. Nahiz eta erdaldun asko egon, hasiera-hasieratik giroa euskararen aldekoa izan zen. Jean-Louis Davant idazleak eta



Jean-Fabien Lexardoi errejentak hartu eta jendeari ongi azaldutako jarrerak izan ziren, duda barik, giro horren hazle. Horrek agerian uzten du beste behin ere Ipar Euskal Herriak pairatzen duen diglosia egoera oso larria. Euskara da zokoratua eta baliabiderik gabe utzia den hizkuntza eta, aldiz, euskaldunak, euskal hiztunak gara erdaldunen zokoratzaille bezala agertzen garenak euskaraz mintzatzeagatik... Edo, beharbada, guk geuk geure buruari zokoratzaille izatea egozten diogu oharkabean. Kolonizatuaren sindromea nonbait... Albert Memmi gogoetari eta idazle tunisiarrak hain ongi aztertu duena *Portrait du colonisé* saiakera entzutetsuan. Egoera larri honen aurrean, intolerantea izateko gogorik banuke ia... , kasu honetan, tolerantziak esan bahi (sic) baitu euskararen zokoratzeari eta itotzeari «halabiz» esaten diogula.

Irnotasunez jokatu beharko genuke pastoralak bezalako abaguneetan behintzat, zinez harrigarria iruditzen baitzait euskarazko kultur sorkuntzaren adierazgarri bat izan behar lukeen ikus-entzungen hau erdaraz moldatu dadin.

Alta bada, ez dirudi horretara goazenik hurrengo urteetan. Pastoral egiteko asmorik luketen herri eta herri multzorik ez bide da eskaz. Gamere-Zihiga eta Aloze-Ziboze-Onizegaine aipatu izan dira, baita Ezpeize-Ündüreine, Ainharbe, Ürrüstoi-Larrabile eta Sarrikotapea herrien arteko elkarlanerako zer-bait ere. Ezpeize-Ündüreine eta Sarrikotapea herrietan, esaterako, euskara daiten bakanak, salbuespenak salbuespen, 60 urtetik gorakoak dira. Pastoralei dagokienez, 18. mendean eman zituzten azkenak. Ainharbe eta Ürrüstoi ere kasu berean dira, baina herri hauek euskaldunagoak dira, nolabait esatearren. Pastoralik egiten bada, honek sor dezakeen giroak, euskaraduna izatearen harrotasuna pizteak, gizarte lokarri eta harremanetarako baliabide den hizkuntza bizidunik gabe bizirik den kulturarik ezin dela izan kontzientzia hartzeak... horiek guztiek agian eragotziko dute euskara eta euskal kulturaren etorkizuna tragedia bihurtzea.

## “Euskal kultura”, 2013

[*Jakin*, 199 zk.: 66.-73. or.]<sup>4</sup>

### Euskarari errespeturik ez!

Asko aipatu da —nire aldetik ere egin dut behin eta berriro— Ipar Euskal Herrian euskararen inguruan azken urteotan nabaritzen den «giro ona», hau da, hain luzaz eta horren gogorki gutxietsia, baztertua eta borrokatua izan den gure hizkuntzari buruzko oniritzia eta haren onespena, jendartean eta maila ezberdinetako hautetsi edo agintari politikoen aldetik. Giro ona bai, hala nahi bada... Baina zein ondoriotarako? Nolako emaitzentzat? Nolako aurre-rapenerako? Egoera zehazki aztertuz gero, erantzuna gazi-gozoa dela erran daiteke eta, ziur asko, gozo baino nabarmen gaziagoa ere. *Jakin*-en zenbaki berezi honetarako urtero egin ohi dudana aipamentxo honetan, aldi bakoitz-edo, adierazi izan dut euskararen aldeko «giro on» horrek, dohakabez, argiune baino itzalalde gehiago dauzkala. Beste behin ere hotz eta motz esatearren, euskararen aldeko giro hori nabaritu daitekeenetik, gure hizkuntzaren eguneroko erabilera neurria beti eta gutxiagotuz joan da. Badirudi —eta hau ere uste dut jada adierazi dudala— euskararen egoera nolabait «hobea» zela haren alde gogor borrokatu behar zen garai haietan. Haatik, borroka garai horietara, beharbada, itzultzeko unean gaude, ikusiz Frantziako Estatuaren aldetik itsukeriaren jarreretara berriro lerratzeko joerak daudela. Ikastolen aldeko urratsak egin dituzten tokiko botereen aurka egiteak, hizkuntza gutxituen Europako hitzarmenaren izenpetzea berresteari oraindik ere uko egiteak eta, orokorki, Paris aldetik ufatzen sumatu daitekeen jakobinismo berrindartu baten haize beltzak... Horiek guzkiek iragar diezagukete jazarpen garaiak bueltan direla eta, ondorioz, borroka egin beharrarenak ere. Geroak argituko du...

Anartean, aldi honetan ez nuke Frantziari harria bota nahi, euskararen aldeko usteko «giro on» honetan, euskarari errespeturik eza nabarmentzeko orduan. Gaur egun, euskararen gutxiesle handienetarik agertzen direnak tokiko hautetsi batzuk dira, auzapez nahiz zinegotzi batzuk. Gure hizkuntzarekiko axolagabezia horren agerpen agerizkoenak karrika edo bide bazterretan ikus ditzakegu, hots, herri batzuetan jarrarazi dituzten etxaldeen edo auzoen izenen idazkerarekin. Itsuskeria edo itsukeria... ez dakit zein den hitzik egokiena, eta

<sup>4</sup> Artikuluaren lotura Interneten: <https://www.jakin.eus/aldizkaria/artikulu/euskal-kultura-2005/3138>.

biak uztar daitezkeela erran daiteke azkenean. Itsuskeria, bai, euskaraz dauden etxe, etxalde edo auzoen izen horiek ortografia frantsesa oinarritzat harturik egin baitira. Itsukeria, berriz, hautetsi horiei okerrean daudela eta euskarazko grafia besterik dela erraten bazaie... eta euren ustezko jakintzaz oso seguru daudela erantzuten dutelarik.

### **Frantsesa, euskaraz idaztearen erreferentzia...**

Euskarari errespetu eza agertze horren aurrendaria Sohüta herria izan zen, hango udal zinegotziek, orain dela zenbait urte, euskararen idatzizko arauetz jakinean izan zitekeen inori ere argibideak eskatu gabe, Hoki auzoko etxaldeen izenak ustez euskaraz ezarrarazi baitzituzten. Oraindik ere bide bazterrean ageri dira ohol horiek, gure hizkuntzarekiko ezaxolaren eta begirunerik ezaren seinale. Makurbide honetan, urte andana geroago, jarraitzaile izan da Urdatx-Santa Grazi herria, han ere etxaldeen baina auzoen izenak ere sasi-euskara batean jarrarazi dituztelarik. Egia aitortzearen, Urdatx-Santa Graziko udalaren euskararekiko ezaxola —etsaigoa ez esatearren— denen jakinean izanda, nolabait harritzekoa zen ere euskararen plazaratzeko erabaki hori hartzea! «Euskarazko» seinale horiek ikusi eta, dena den, begi-bistakoa geratu da euskaldun batzuk —Urdatx-Santa Grazin gehien-gehienak halakoak baitira, baita udal zinegotzien artean ere— izan daitezkeela euskararen etsai zorrotzenak. Seinale horiek, beraz, ahoskera batekoan eginarazi dituzte eta oro har frantsesaren idazkeran oinarrituz. Hori ez da harritzekoa, zeren eta, jende horrentzat, frantses hizkuntza baita ukatu eta ukitu ezineko erreferentzia, inoiz ere zalantzan jar ez daitekeena... euskararen kontuarekin eta bereziki idazkerarekin, aldiz, nahi dena egin daitekeelarik! Pena ematen du, haatik, Urdatx-Santa Grazi izan dadin «eredu» lotsagarri horren aurrendarien artean, jakinez herri horretako seme direla Aita Junes Casenave-Harigile eta Txomin Peillen euskaltzainak eta euskal kulturako izen handiak... Jatorriz behintzat, bertakoak ziren ere Bigarren Mundu Gerraren aurretik eta ostetik euskaltzale sutsua izan zen Albert Constantin mediku eta hautetsia eta XVIII. mendean bizitu zen Jusef Egiategi historia ikertzaile eta filosofoa. Gauzak horrela, Urdatx-Santa Grazik esker txarra die, zinez, atzoko eta gaurko euskararen zain-tzaile izan ziren eta dauden seme horiei. Herri menperatu bateko tragediaren isla... Zer erran besterik?

### Frantsesa denen gaineko erreferentzia...

Orain dela gutxi, berriz, Mitikile-Mendibile-Larrioriko udalak dio makurbide horri eutsi, hemen ere etxaldean izenak, denen agerian, euskara traketsean eman dituztelarik. Sohütaren kasuan erran bazitekeen euskararen gaitzeste garaian ginela oraindik, aitzakiazko argumentu horrek ez du balio Urdatx-Santa Graziren eta Mitikile-Mendibile-Larrioriren kontura, hemengo hautetsiek jokatibide deitoragarri horiek bultzatu baitituzte euskararen araubideez axola duten hainbat erakunde edo zerbitzu ofizial indarrean izanda gaur egun: Euskaltzaindiaz gain, esaterako, Euskararen Erakunde Publikoa eta Xiberoa Herri Alkargoaren *Eüskara zerbitzua*. Hortaz, aurreko garai batzuetan baino kontrako jarrera jakin batekin hartu dira euskarari gutxiespena edo harekiko garrantzi eskasa ageri-agerian uzten duten erabaki horiek. Gutxiespena eta garrantzi eskasa... jende horrek, ordea, sekula santan erakutsiko ez lukeena frantses hizkuntzaren aldera. Jende horrek ez luke inondik inola eta inoiz ere zalantzan jarriko frantsesez zerbaiten idazteko moldea, are gutxiago onartuko frantsesez zerbait gaizki idaztea edo gaizki idatzia izatea. Frantsesa, hots, «Errepublikaren hizkuntza»... nola pentsatzen —eta are gutxiago onartzen— ahal lukete zalantzan jartzea? Auzitan ematea? Euskararen kontura aldiz, bai, zilegi zaie egitea, euskaraz idazten sekula ere ikasi ez dutelarik, behar bezala idatzitako euskara irakurtzen ikasi ez dutelarik! Egoera horren errua, egia erran, ez zaie erabat leporatzen ahal... Euskara idatzia, dena den, zalantzan eta auzitan jartzea haizu iruditzen zaie... ez baita inolako Errepublika bateko hizkuntza ofiziala, Ipar Euskal Herriari dagokionez behintzat. Instituzio kontu, Ipar Euskal Herriak inongo izaerarik ez duenez... nola demontre euskarak izaera ofizialik eta honi lotuta dagoen begirunerik izango luke?

### Euskara idatziak euskara mintzatuari aurrea hartzen!

Euskararen inguruko «giro on» horren mugak edo itxurazko izaera, dena den, udal batzuek hartutako makurbide horiez kanpo ere ikus daitezke. Hala, afixa edo kartelen kasuan, Zuberoan gaur egun oso-oso gutxi baitaude euskaraz zerbait agertzen dutenik... euskal kantari edo soinulari talde izen batzuk edo *kantaldi* nola *talo eta xingar* —hori ez delarik zubereraz ere gainera!— bezalako hitzak ezik! Euskaraz bakarrik dagoen festa edo ikusgarri iragarpen afixarik ia ez da ikusten gaur egun, eta zinez elebidun izan daitekeenik ere oso gutxi. Alta, Xiberoa Herri Alkargoa erkidego publikoa saiatu da euskara karteletan agertze

horri bultzada bat ematen, diru-laguntzak eskainiz bide horretan sartuko ziren jai edo ikuskizun antolatzaileei. Euskararen agerrarazteko xedean, dirua eman beharrak berak erakusten du zelako egoerara amilduak gauden... baina akuilu egite horrek ere ez du, orainokoa behintzat, emaitza handirik eragin!

Alabaina, euskara idatzia —eta araez idatzia denaz mintzo naiz— plazara agertzeak ondorio txarrik ere ez ote duenez eragin pentsatzen hasia naiz... Izan ere, aurretik adierazi izan dudana bezala, badirudi Zuberoan, Ipar Euskal Herri osoan bezala, euskara egiten ari dela idatzita ageri den hizkuntza bat... mintzatua den hizkuntza bat baino gehiago! Eskolan gutxi edo aski ikasia eta irakatsia den hizkuntza bat, etxean, karrikan, dendetan, eguneroko harremanetan mintzatua den hizkuntza bat baino gehiago. Hori gero eta nabarmenago egia bihurtuko balitz, ondorioztatu beharra genuke euskara idatziaren beti eta gehiago plazaratzeak ez duela jendartean halako eragin psikologiko onuragarriarik sortu eta hazi, uste izan zitekeen bezala... eta beharbada, aitzitik ere, euskara mintzatuaren atzera egitea areagotu egin duela. Ondorioztatze hori ateratzea larria litzateke, baina salbagarri ere izan daiteke euskararen sustatzaile eta garatzaile garenon artean kontzientzia hartze baten sorburua izango balitz, hau da, mintzaira bizidun bat, lehenik eta behin, mintzatzeko egina dela! Eta, ondorioz, erabileraren bideak bultzatzeko, indartzeko, areagotzeko moduak asmatu eta obratu behar direla, premia gorrienez.

### **Pastoralaren arrakasta: onerako ala txarrerako?**

Ate joka ari zaigun 2014. urte honetan, bi pastoral paratuko eta ikustera emango dira Zuberoan. Alabaina, joan zaigun 2013 honetan ere hala gertatu da, Sohüta herriak oholtzaratu duen *René Cassin* trajeriaz gain, Mixel Etxekopar irabarnetarrak idatzitako *Ederlezi* pastoralala ere ikusgai egon baita. Baten batek pentsatuko du, beharbada, *Ederlezi* ez zela «egiazko» pastoral bat, udan aspaldidanik eman ohi diren ikusgarri jendetsu horietarik bat ez baita izan eta, aktore kopuru gutxikoa izateaz gain, bi ordu baino laburragoa baitzen. Ikusmolde horietan guzietan okerrean izango da, baina. Izan ere, pastoralala edo trajeria ez da definitzen plazaratu egiten den garaia arabera, aktore kopuruaren neurrira edo luzera kontu baten ildotik... Ezta inola ere! Pastoral edo trajeria bat bezala emana da, herri antzerki zahar-zahar horren funtsezko arauak beteak direnetik... besterik gabe! Eta *Ederlezi* pastoral bat dela esan beharrik ere ez genuke... ezjakin batzuk ez balira pastoralaren ustezko aditu bihurtu edo behintzat bihurtzeko asmotan ez balira.

Hain zuzen, hau da azken 40 urte hauetan Zuberoako antzerki zaharrak bizi duen arrakasta handiaren ondorio tamalgarrienetarik bat: jende anitzek uste dutela pastoralaz zerbait dakitela, ezer gutxi dakitelarik ordea... Udan ematen diren trajeria horien ikustera datorren jendetza handiaren artean egonda edo pasterala eman osteko azalpen edo iritzi trukatzetan, sekulako astakeriak entzun daitezke, kasu gehienetan, egia esan, euskaraz gutxi dakitenen edo euskal kulturaren mundutik aski aldenduak direnen ahotan entzuten direnak. Bai, nonbait arazoa da pastoralen jarraitzaileen kopurua horrela handitu egin dadin, euskal kulturaren ezagupena eta bizipenak nabarmen gutxiagokoak direlarik. Beste gisa batera esanik, egungo pastoralzale ugari *frantximanten* (erdaldunen) edo *erdi-frantximanten* mundutik datoz, eta horiek zabaltzen duten ikusmoldea —eurena izan dezaten zilegi bada ere— errealitateetatik aski urrundua dela erran daiteke. Euskararen eta euskal kulturaren munduetan murgildua ez dagoen kopuru handi horren eraginez, pasterala pixkanaka-pixkanaka eraldatzen ari ez ote denez galdera datorkit gogora. Hala, adibide bat bakarrik hartzearren, badirudi gaur egun pastoral «ederrik» edo ustez hala denik ez daitekeela izan dantza baleta landutako bat egon ezean edo jantzi distiratsurik agertu gabe!... Baina horiek ez dira, ezta inondik inola ere, pastoralaren funtsezko esanahi bateko baitezpadako ekaiak... Hortaz, bide horretatik jarraituz, arriskua bada trajeriaren funtsa, muina, mamia eta eitea edo itxura nahasi egin daitezen. Pastoral bat, oro har, dramaturgia bat da, ez «grand gignol» tankerako ikusgarri bat!...

### **Bi pastoral, bi ikusmolde ezberdinetatik...**

Gai honetaz harekin sarritan hitz eginik, uste dut Jean-Mixel Bedaxagar Ur-diñarbeko arotz-kantari adiskideak ere nik hementxe azaltzen ditudan kezka hauekin, gutxi edo aski, bat egiten duela. Hortaz, ikusmin handia sortu behar luke Bedaxagarrek aurtengo apiril amaiera inguruan oholtzara eramango duen *Akitaniako Alienor* trajeriak. Ez da inolako zalantzarik Akitania zaharra lurralde indartsuko subiranoa izateaz gain, Frantzia eta Ingalaterrako erregina izan zen andere handi horren bizi-urratsen kontakizuna pastoral bidez egin daitekeela. Zinezko epopeia bat da *Alienor* anderearen bizi luze eta aberatsa.

Dakidanez, Jean-Mixel Bedaxagarrek hautua egin du aktoreen kopurua ho-geita hamar batera mugatzeko, horiek denak neskak edo emakumeak izango direlarik. *Satan* dantzariak, ostera, mutilak izango dira. Idazle eta errejent ba-ten hautuak dira, beraz, pastoralaren ikusteko eta ikustera emateko era baten

araberakoak. Errespetagarriak dira, eiki, eta ikusleari uzten zaio azken hitza. Ikusleak, hain zuzen, udan baino kopuru txikiagoan izan daitezke apiril bukaerako larunbat arrats edo igande batean, baina kontu horrek ez du funtsezko garrantzirik batere, zeren eta, Jean-Mixel Bedaxagarren iritziarekin bat natorrelarik alde horretatik ere, ikusle kopuru handi batek ez baitu frogatzen pastoral baten kalitatea. . .

Ziur asko, nahiz eta honetaz daturik batere ez dudan, bide aski diferenteetatik ibiliko da Garindaine herrian uda honetan emanen den pastoralaren idazle den Pier-Pol Berzaitz kantari ezagun eta guztiz talentuduna. Horrek, dakigunez, buhame edo ijitoen gaia du pastoralera egokituko. Aurretik azaldutakoaren ildotik, ez naiz batere ziur trajeria bat den gai horren biziarazteko modurik egokiena, baina aurreiritziz ez jokatzeko, horretan geldituko naiz, behinik behin. Ziurtzat eman daitekeena da, ordea, Pier-Pol Berzaitzek ikusgarri oso aberats eta koloretsu bat onduko duela, orain arte, pastoraletan eta beste ikusgarri moldeetan egin izan duen bidetik. Pentsatzekoa da ere tauladara igo nahi izango direnak ugari diratekeela. . . Garindaine, aldiz, asko eta asko erdaldunduta dagoen herria izanik ere! Hor ere, pastoralak azken hamarkada hauetan berarekin dakarren kontraesan nagusi bat: horretan partaide izan nahi dutenak asko izatea eta horien artean euskaradunak oso gutxi! Hor ere, azken batean, euskararekiko zinezko axolarik eza eta errespetu falta. . . Noiz arte, bada?

## LIBURU BATZUK: Testu laginak

### “Züberoa: ezagüna eta ezezagüna”

[in *Züberoa Herria - Le Pays de Soule*, elebidun, 2013, Elkar<sup>1</sup>]

Zazpi euskal probintzietan –lürralde zabaldiraz era jentezionez– ttipiena, pastorala, maskaradak, euskaraz mintzatzeko manera berezi bat, dantza-jauzi bereziak, espartina ateleriak. Pirinio bortüaldeko etxeak, eliza zeinütegi hiru püntakoak, Kakuetako arroila, Holtzarteko zaldaina, Mauleko gaztelü zaharra... Horik dira Züberoaz mintzatzean kanpoko jenteari –eta kartielekoari ere hanitxetan– gogoala jiten zaitzonak. Bai, Züberoa hori oro da... bena ez hori bera! Züberoa da ere aspaldiko denboretan algar etxekidüraz ebiltan den jentarte bat, artzangoaren lege eta ebildüra besteak ez bezalakoak. Ipar Euskal Herri barnealdeko indüstria güne bakarra, mendiko laborantxa oranokoa ja bizirik begiratzen düan lürra, euskal kultürako agerküntek berritzen eta oraikotzen jakin üken düan probintzia... bena euskaraz mintzatzea geroago eta haboro gibeltzera ützen düan esküaldea ere. Aspaldiko historia baten ürratsetarik ebiltez, egüngo egüneko izateala jitearekila ohartzen ahal gira Züberoa argiak eta itzalak dütüan kartiela dela. Hanitxek uste düe ezagützea, bena ontsa soegiteko lana hartüz geroz, güti dakiela ohartüren dira. Esküetan düzün libürü hau Züberoaren hobeki ezagützen eta haren eretzeko maitarzüna handitzen lagüngarri agitzen bazaizü, botzik izanen gira.

---

<sup>1</sup> Idazleak: Jean-Louis Davant eta nagusiki Allande Socarros. Argazkiak: Christophe de Prada. Liburu horren hiru atal argitaratzen ditugu hemen Elkar argitaletxearen baimenarekin.



## “Eüskara: honetsirik bena halerik ere galbide gorrian!”

[in *Züberoa Herria - Le Pays de Soule*, elebidun, 2013, Elkar]

Mündü zabaleko mintzajeen artean, eüskararen aberastarzünatarik bat da mintzadarrak edo dialektoak dütüan hizkuntza bat dela. Eüskararen kasüan, *eüskalki* izena emaiten zaie. Züberoan emaiten dügün eüskara, arren, eüskalki bat da. Berezitarzün haboroenatarik düan eüskalki bat da, bena ez, egünko egünean ere züberotar zonbaiten ahoan entzüten den bezala, eüskara oso berez edo desbardin bat, eta orano gütiago « *egiazko eüskara* » bezala eman daiteana! Üdüri eta beste eüskalkiak « eüskara ez egiazkoak » diren...

Gaüzak argiki erraiteko, eüskarazko hamar hitzetarik zortzi Eüskal Herri orotan berberrak dira, eta ahozkatzeko manerak dü hanitx egiten eüskaldünen arteko entelegatze nekeetan. Erraiten den bezala, « *beharria behar da egin* ». Bena holakorik agitzen da mintzaje hanitxetan, bai frantsesaren kasüan ere. Segür izan gitean, Frantzia iparreko « *chti* » baten eta Provence esküaldeko hiztün baten artean, algar entelegatzeko neke zonbait izan den dela, hatsarre batez pürü...

Züberoako eüskalkiaren kasüan, hitz berezien zonbata edo nonbrea hamarratarik hirukoa izan leite. Egia da ere, aditzaren gaintitik berezitarzünak badirela, hots, egünko egünean, Züberoan bera baliatzen diren moldadüra elibat. Beste berezitarzün zonbait ere badira Züberoako mintzoan, hala nola ahomintzoko H horik, Ü gisa ahozkatzen den hizkia edo letra, U ere badügularik halere, eta azken-aitzineko hizkin edo silaba delakoan zapatzea, beste eüskaldünek, aldiz, azkenekoan zapatzen düelarik. Horik oro, nontik nahi den, mintzaje batentako aberastarzün elibat dira eta halagisa ikusi eta etxeki behar lirateke.

Halere, eüskaldünen —erran nahi beita eüskara dakien artean— aisago eta zalheago entelegatzeko gisan, euskara batua deitü den horren beharra bazen. Hortan ez da düdatzerik. Haatik, euskara batuaren izan beharrak, ez lüke eüskalkien ahültzerik, non ez den desagertzerik, ekarri behar. Bestela, horrek erran nahi lüke eüskararen sendabide bezala ikusirik izan denak eüskararen aberastarzünak ehoko dütüala. Alta, jadanik erraiten ahal da holako zerbait agitzen ari dela. Ezi, 2I. mente hatsarre hontan, hizkuntza ikerzaleek sei eüskalki baizik ez dütüe berezten: behenafarrera, bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, nafarrera, zuberera. Horrek erran nahi dü Arabako eüskalki berezirik ez dela haboro —bena seküla izan denez ere ez da hainen argi— eta Baxenabarreko eta Lapurdiko eüskalkien berezitarzünak oro peko errekalat joanik bezala emaiten direla!

## Beti eta mintzazale gütiago

Holako zorigaitzik ez lizateke agitü behar Züberoan... bena hori osoki gure eskü da! Züberoako eüskalki berezia galtzen bada... züberotarren ogena date, ez beste ihorena! Eta bada lotsa izaterik horrat bürtüz ari giren, eüskaraz geroago eta gütiago mintzo beita Züberoako jentea. 2012. urte erdixean zabaltüririk izan den ikertze soziolinguistiko batek agerian ezarri dü eüskara eta eüskaraz ikasi düen gazteen zonbata handitu dela azken hogeï urtetan... Bena, hargatik, eüskararen erabilpena gütitü dela, eta ez apür! Arren, horrek erran nahi dü eüskara –eta eüskaraz– eskoletan ikasten bada, eta gure mintzajea geroago eta haboro izkiribüz agertüririk ere –bide seinaleetan, paperkietan...– geroago eta gütiago erabilirik dela... Eüskara egiten ari zaiküa ote, eskoletako eta izkiribükö mintzaje bat? Hala agitzez, alabaderekeria bat lizateke, mintzaje bat, lehen-lehenik, mintzatzeko eginik beita! Eta zoinek düe lehen-lehenik mintzatü behar... mintzatzan dakienek ez bada? Hortan da eüskararen geroaren giltzetarik bat: euskaldünek, hots eüskaraz dakienek, mintza dezaen. Horiek ez badüe egiten, nolaz galtatzen ahal zaie eüskaraz ez dakiener ikas eta balia dezaen?

Ikertze beharrik ez zen, azkenean, Züberoan eüskara zer traza txarrean den ikusteko. Aski da herrietan, karrikan, salgünetan, bilküretan kurritzea edo agitzea, ohartzeko zonbat nahi güti direla eüskaraz ari direnak, eta zoinahi adinetan funtsean. Ber zoinüan, aldiz, pastorelek, maskaradek, kantaldiek sekülako arrakasta düe... kantari saldoak, bai gazteetan ere, seküla ez bezala emendatü dira, dantza-jauzi saldoak sento ebilten dira!... Nola debrü entelegatzen ahal da eüskal kültüra bizidünik izan dadin, eüskara taigabe gibel ari eta? Geroalat, nolaz izaten ahal lizate pastoralik, maskaradarik, kantaldirik, eüskal kantore eta kantaririk, dantza-jauzi emailerik... eüskara galtzera üzten badügü? Hor bada non eta zertan gogozkat...

Eüskararen ertzeko kanpoko etsaigoak desagertü edo gordexe direla erran leite bai... bena gure mintzajearen etsai edo ehorzle handienak ez girea gihaur egiten ari? Agian ez da holakorik agitükö!

## “Laborantxa: herriaren bizi-seinale egon beharko dena”

[in *Züberoa Herria - Le Pays de Soule*, 2013, Elkar]

Hanixetan erranik –bai eta izkiribatürrik ere–, izan da Ipar Eüskal Herriko laborantxa saila, eta arren Züberoakoa barne, hein bat bizi eta sento dela. Egia da, han-hor kurritzearekila, bazterrak xahü eta ontsa etxekirik bezala begi-bistalatzan zaizküla. Soroz eta alorrez beztitürrik dira, kabaleak alhan ikusten düütügü, eta lür eremü auherrak edo tartak hartürrik direnak oso bekan düütügü.

Hori hola da Züberoako laborarien lanari esker; laborantxa eremü bizi eta xahürrik ez beita izaten ahal, laboraririk eta laborantxaririk gabe. Züberoan, arren, Frantziako hanitx laborantxa eremütan beno etxaltean plantatze edo segidarik hartze haboro izan da, orai artinokoan ja. Bai bena, halakorik izanen ote dea hebentik aitzina? Galtoaren egiteak berak arrenküra handi bat badela markatzen dü... arrenküratzekorik beita segür!

2I. menteko bigerren hamarkadaren hatsarre hontan, laborantxa sailaz egin den ikerkak emaitza zinez griñagarriak ekarri deizkü jakineala. Hala, inkesta hortan agertzen diren zonbakietan, hamar urteren artean –2000. eta 2010. urteen artean– Züberoako laborantxa etxaltearen zonbata edo nonbrea 862etarik 740etara eraitsi da, hots, 122 etxalteren galtzea! Hamar urtetako arte hortan, 36 etxalte galdü dira Atharratzeko kantonamentüan eta 86 Maulekoan!... Bada zertaz arrenküratzerik! Egia da etxalte galtze horik beste etxalte elibaten handitzeak direla üsüan, bena bardin ere galtzeak galtze dira eta ez da segür marka hon.

Ikerka horren beste argibideek ere aihokaixto hori baieztatzen deiküe. Hala, kabalen alharazteko edo lürlankako hon diren laborantxa eremüen zabaldüra osoa hanixko apürtü da. Hamar urte horien artean, eta Züberoa osoa kontütan hartzez, SAU eremü hein hori 25.576 hektaratarik 23.372 hektaralara igaran da, hots 2.204 hektararen galtzea. Laborantxarentako galdü diren lür eremü horik, zer egin dira ote? Horietarik zonbait baleite lür auhertü edo tartatü ere diren, bena ontsatto, aldiz, etxe bastiarazteko eremü egin dira. Azken kasü hontan, horrek erran nahi lüke herri zonbaitetan laborariak gütitü direla, edo lür eremüen baliapenarentako antoladüraririk ez dela plantan ezarri, nahiz bi arrazuak ere badirela.

Zonbaki arrenküragarriekila jarraitkez eta lehenago aipatüekila düdarik batere gabe lotürrik, laborantxako langileen zonbata itsuski apürtü da. Ezi, 2010. urtean, 1.422 jente laborantxan ari bazen lanean, 2010ean 955 ziren, hots 467 gütiago... Heben gainti, zoin sailetan izan da holako gibel joaiterik?

### **Laborantxa ahültzearekin, bortüa lanjerean**

Ürrüperetako eta bortüondoko laborantzaren trazaz gaixtotze horrek badütü, prefosta, halagisako ondoramenak gure kartiel hontan, hain ohidüra zaharrekoa den bortükan. Egünko egünean, zonbat oletan ez da laborari bat edo beste baizik baratzen? Ez ote direa geroago eta haboro etxeko kabaleak bortüko alhagietara eramaiten ez dütüen laborariak? Eta aldiz, olaltetan eta builtetan üdüri lüke kabale sobera bezala badela, bazkaren grado...

Izate horrek markatzen dü ürrüperetako eta bortüondoko laborantzaren kanbioek ondoajeak —eta ez gainti honealakoak— badütüela eta aitzina ere ükenen dütüela bortüaren eta bortükarentako. Bada, arren, non gogozkatzerik eta aitzinabideak asmatzen iseiatzerik kargüdünentako, laborantxa sailekoak eta beste.

Denek dakigü, Zuberoan haboroxeagoa den laborantxa ttipiaren gibel egite hori, Frantziatik haratago ere Europako Batarzünaren heinean eginik diren hautüen ondorioa dela. Alta, zerbait gisaz beren hitza entzünarazi beharko düe hebenko laborariak, bai eta politika kargüdünek ere, eta beste laborantxa süerte batentako asmatürrik diren jokabideak kanbiaraztea edo pürü hebenko nahien eta beharrentako doitzea kausitü... gaine horietan xedatü bide horik Züberoako eta orohar Ipar Eüskal Herri osoko laborantxarentako ez ditean orozbateko galbide izan. Arrisküa beita, bai seriosa ere, azkenean heben gainti baratüren den laborantxa heinttoa bazterren doi bat xahü etxekitzeko eta aizinarteen bai bakantza igaraileentako berdegüne segürtazale bera izan dadin. Segur izan gitean, halere, Züberoak jakin ükenen düala herriaren bizi-seinale den laborantxa azkar eta sento baten zaintzen eta hazten. Gure geroaren giltzetarik bat da.

## AZKORRIA: LABORARIEN ESKÜKO GAZNAKAGIA BAT

Muskildi eta Urdiñarbeko karriketarik biderditan, Maule-Lextarre eta Donibane Garaziren arteko bide bazterrean, bastimentü berrixka elibatetan ohatü da Azkorria gaznakagia kooperatiba 2006eko urtarilan plantatü zen hortxe, gogozkatze eta lagüngo ba süstengü biltze epe baten bürian.

Züberoako I7 laborari ziren egingei horri lotü eta ez zen segür entrebaleko hautu baten egitea izan. Ezi, laborari horiek deliberoa hartü zuen Les Chaumes gazna egile indüstriariari ez haboro eznerik saltzeko, beren esküko izanen zen gaznakagia baten plantatzeko gisan.

Ipar Eüskal Herriko laborariak eta laborantxa errespetatüko zütüan haütü bat egin zuen, arren, Les Chaumes ütztü eta Azkorria gaznakagia kooperatiba eraiki züen I7 laborari haiek. Kalitatezko mozkin baten ildoaren lantzeko xedeareki abiatü ziren eta hortan ari dira 2006az geroztik. Berek ekarri eznea gaznakatzen düan kooperatiba bat izatez, halagisako ebilmolde batetara doitü dira. Hala, urteko bederatzü hilabetez, Azkorriako partxuer bakoitxak astean hiru egün erdi eskentzen dütü gaznakagiako lanentako, aldi-an-aldika eznea etxalteetara biltzera joaiteko, gaznaren egitean parte hartzeko edo salmentaz axolatzeko. Kalitate handienaren segürtatzeko gisan, Azkorriako partxuerrek arau argiak haütatü eta jarraikitzen dütüe: kartieleko hiru ardi arrazetako (büri xüri, büri beltz eta büri gorri) eznearekin aritzea, belartopo edo artotopo bazkarik ez emaita eta urtean gütienez 240 egünez ardi kanpoan alharaztea, bortülat eramaitez ere. Arau hauk Ossau-Iraty sormarkaz baliatzekoarenak beno zorrotzago dira. Kalitatearen haütüari eta axolari esker, Azkorriak sari andana bildü dü laborantxa lehiatzeetan, besteak beste ürrezko medaila Pariseko Laborantxa Feira handian, 2007. urtean.

Egünko egüean, Azkorriak hiru heinetako gaznak egiten dütü: 4 kilokoak, 2,5 kilokoak eta 900 gramakoak. Gazna süertetan, 4 kilo eta 2,5 kilokoetan, hiru kente egiten eta saltzen dütü Azkorriak: ardi ezne erraberokoa, Ossau-Iraty sormarkakoa eta Ossau-Iraty ezne erraberokoa. Gaznak bi markarekila saltzen dütü: Azkorria eta Ardika. 2011. urtean, Azkorriak 60 tona ardi gazna egin zütüan. Oro har, laborariak beren lanbidea eta izatea bera ere berek gobernatzearen ikusbide ederra eman eta emaiten dü Azkorriak.

## “Zerentako hiztegi ttipi hau?”<sup>2</sup>

[in *Euskara batua/Züberera Hiztegi ttipia*, 2016 eta  
*Hiztegi ttipia*, 1. parte: *Euskara batua/Zuberera* 2. parte:  
*Zuberera/Euskara batua*, 2019, Sü Azia]

Hego eta Ipar Eüskal Herriko eüskaldüenen artean geroago eta arrolatze haboro bada eta horrek harremangailü edo komünikazione tresnen hedatze bat ekarten deigü. Eüskaldüenen artean, algar entelegatzera aisa heltzen gira, ahozkatze desbardingoek hatsarre batez neke zombait sortürük ere. Beharria laster eginik da eta Hego Eüskal Herriko irratien eta Euskal Telebistaren jarraitzeko ez dügü indar hanitxen egin beharrik. Eüskarazko prentsarentako neke bat haboro bada, irakurten jakin beharrez... bena hori ere ez ote dea gütienezko gaüza bat bere mintzajea bizirik etxeke nahi düan popülü batentako? Frantsesez irakurten ez jakitea alabaderekoa lizate hanitxen ustez. Halaber behar leite izan eüskararen kasüan edo damügarriago orano, gure mintzajea denaz gainen.

Dena den, eüskaldüenen arteko arrolatzeen emendatzeareki, algarren arteko entelegabideak beti eta beharrezkoago dirateke eta eginkizün hori dü, hain xüxen, eüskara batuak. Argiki erranik izan dadin: Eüskal Herri osoan eüskara bat baizik ez da! Astokeria handietan ari dira “horiek ez düe gure ber eüskara” edo “gük dügü egiazko eüskara emaiten” erraileak. Eüskarazko hamar hitzetarik zortzi, non ez den bederatzü, berberrak dira Eüskal Herri osoan eta ahozkatzetik horra dira desbardingoak. Halarik ere, eüskarazko hitz bakant elibat herrialde bakoitxean edo probintzia zombaitetan baizik ez dirade erabilirik. Eüskarazko hitz horik batuan sartürük agitzen ahal dira eta horien erran nahia ez da miraküiluz jakiten: ikasi behar da. Hortarako dügü hiztegi ttipi hau egin, eüskaldüenen arteko arrolatzeak gure hein ttipian lagüntü nahiz, den güziek müga ooren gaineretik igaraiten den zerbait ezinago ederra beitügü: eüskara.

<sup>2</sup> In *Euskara batua/Züberera Hiztegi ttipia*, 2016, Sü Aziako sail bereziak 3, Sü Azia, Maule-Lextarre, 5.-6. or. eta *Hiztegi ttipia*, 1. parte: *Euskara batua/Zuberera* 2. parte: *Zuberera/Euskara batua*, 2019, Sü Aziako sail bereziak 4, Sü Azia, 5.-6. or.

## “Sar-hitza Eüskara lehen eta orai... Ziberoko Egünaria (1887-1914)”<sup>3</sup>

[in *Ziberoko Egünaria. Eüskara lehen eta orai*, 2017, Sü Azia]

“Eüskara lehen eta orai” izentatü dügün Sü Aziako argitalpen sail berri hau abiarazten dügü *Ziberoko Egünaria* edo *Armanak Üskara* urtekariaren oritzapena arrapitzaraztez. Urtean behin, urte berri-urte zahar altexe hortan, argialatzen zen kaseta honek, 1887. urtetik 1914. urteala artino iraün züan, eta бүрүтик-бүрү xiberotarrez izkiribatүrik zen.

Berrogei bat hoillako -zonbait aldiz haboro bazütüan- aldizkari hau parte desbardinez eginik zen: hatsarreko bizpahiru hoilletan, erran zahar elibat emanik ziren; ondoko bi hoilletan eta ürrentzealako lauetan, urte berriko egünaria (edo egütegia) agertzen zen; erdiko hoilletan, aldiz, honenbeste artikülü, hamar bat-edo, argialatүrik ziren. Egünariak bazüan berezitarzün oso interesgarri bat, hots hilabete zonbaiten izen zaharrak agertzen zirela, latinisatүrik izan beno lehenagokoak, hala nola ostaroa edo martxoa, jorraila edo apirila, epaila edo maiatza, bagila edo arramaiatza, бүрүila edo setemera, azaroa, aldiz gorotzila ere deitzen zelarik, negila edo abentüa...

Egiaren erraitera, ez da sobera entelegagarri nolaz eüskarazko hilabete izenen erdia latinisatүrik izan den...

### “Xurien” alteko eta “gorrien” etsai...

Lehen soegitetik, ageri-agerizkoa da *Ziberoko Egünaria* elizatiarrek etxekirik zela, apez nahiz laikoek, bena errelijione katolikoaren süstazale süharrek pürü! Urtekari hau agertü zen püntü hetan, dena den, bazterrak franko bero ziren, “xurien” eta “gorrien” arteko ixterbegigoa eta aharrengatik. Frantziako Errepublikan, “gorriak” ziren nausi, eta elizatiar “xurien” kontreko hitzak eta jokabideak oso gogorrak ziren. Estatüa eta Eliza bereixi zütüan 1905eko legeak bazterrak orano sordei gaintzatü zütüan, herri txipienetara hedatzez “xurien” eta “gorrien” arteko gerla. Egünko egüneko jentarte harremanak eta politikagintza gogor edireiten dütüenek behar lükee *Ziberoko Egünaria* edo besterik irakurri... ohartüko beilirateke, püntü hetako herra eta etsaigoen altean, zinez “epel” girela oraiko denboretan!

<sup>3</sup> In *Ziberoko Egünaria. Eüskara lehen eta orai*, 2017, Sü Azia, Maule-Lextarre, 7.-12. or.



Ziberoko Egunaria. Euskara lehen eta orai liburuko azala



*Ziberoko Egünariak*, nontik nahi den, zoin gaintikoa zen agerian ützen züan... “xurien” botzeramaile sütsüa baratü beitzen hastetik ürrentzeala. “Gorriak” hügün zütüan, gisa hortarako ikusten zütüanako oro gaitzesten eta laidostatzen zütüalarik.. eta ez güti! Harentako, “gorriak” ziren kargülantak, errejent/errejentsak lehen-lehenik, Parisen poterean zirenen alteko depütatü eta senatürrak, kartielekoak edo beste, bai eta harginbeltz edo framazuak ere. Artikülü hanitxetan ageri zen *Ziberoko Egünariako* joanarazleak, azkenean, Errepublikako laidostazaleak eta Erregegoaren laidazaleak zirela. Nabari da, halaber, jentarte antoladüra “kontserbazale” baten mezülari zela *Ziberoko Egünaria*, hots aberatsen eta praubeen, poteredünen eta haien esküpekoen, handimandien eta jente xehearen, hontarzündünen eta emütsen arteko desbardingoen edo giza-mailen iraünaraztearen aldekoak. Pentsamolde horren egarzola eta berme nausia, errelijione katolikoa zen; hortarako, errelijione hau, bere ustez, kordokan ezarten züenak oro etsai bezala hartzen zütüan: errelijione gabekoak, pefosta, harginbeltzak, bena bai eta protestant edo higaunatak ere, hauk, aldiz, “errelijione faltzüaren” jarraikizale edo “arnegat” gisa salatzen zütüalarik...

Bildüma hontako *Ziberoko Egünariaren* artikülüak irakurriko dütüzüenek, arren, gogoan hartü beharko düzüe zer-nolako giro eta üngüramenean izkiribatürük ziren, egünko egüneko pentsamolde eta egoeratik ikustearékila jüdikatzetik saihesteko gisan.

Libürütto honen moldatzeko, *Ziberoko Egünariaren* hogeï bat urtetako zombakietan agertü ziren 24 artikülü haütatü dütügü, hogeïtabosgerren testo barentako, aldiz, zombaki bakoitxean agertzen ziren erri-eginarazteko istoria elibat ezarri dütügularik. Hogeïta lau artikülü horien haütüaren egitean, *Ziberoko Egünariaren* agerraldi bakoitxeko aipageien hanixtarzüna nahi üken dügü agerialat ekarri. Hala, libürüxkot honen irakurgetan badira “xurien” eta “gorrien” arteko güdüken agerpenak, Errepublikako jokabideen, bai eta kargülanten, edo harginbeltzen nola ere 1905eko legearen salatzeekin, Historiako gertakari ospetsü elibaten aipaldiak, hala nola Üztaïlaren I4a edo Orreagako güdüka, “xurien” jentarte antoladürako ikusmoldeak, bozkatze zombaiten emaitzen ikertzea, Harizpe mariskala eta Ezponda (de Sponde) apezküpüa bezala eüskal pertsonaje aipagarri batzüen bizi-ürratsen kontakizüna, Ligiko lamiñen zübüko alegiaren oritarazte bat, pelotakan aritzeko ordünko maneretzaz aipamen xehe bat... eta eüskararen alteko aipü eta abürüpen süharrak!

Ezagütürük den zerbait da “xuriak” zirela mintzajearen süstazale zorrotzak eta “gorriak” -horietarik hanitx pürü- frantses hizkuntzaren nausigoaren alde kartsüki ari zirenak. Hala, eüskararen galarazteko eginik izan diren ürrats eta

jokamoldeen aipatzean, üduri lüke *Ziberoko Egünariaren* artikülü elibatetako zati zonbait orai düala güti izkiribatüak direla...! Bai, argi da urtekari honen egileak eta irakurleak eüskararen altekoak zirela... bena beti ere errelijionearekin üztartürik ikusten züelarik. Eüskaldün-fededün zirela erraiten ahal da, düdarik batere gabe.

### Jean-Félix Larrieu eüskaltzale süharra

Ordü da orai bi hitz erran dezagün *Ziberoko Egünariaren* joanarazle nausia izan zen Jean-Félix Larrieu mauletarraz (1863-1941). Ezen, kaseta argialatzearen lehen hiru urtetan, Zunharretako seme zen Jean Iribarne erretora izan bazen ere бүрүzagia, hortik aitzina, eta ürrentzeala artino, Jean-Félix Larrieuk zütüan *Ziberoko Egünariaren* giderrak etxeki. Bedezigoako eskolak ürrentürik, 27 urtetan, Parise kantüko Montfort-l’Amaury hiri ezagütüala joan zen bizitzera, bere etxekoekila batean. Hiri hontako zinegotxi haütatürik izan ondoan, kargütan egon zen 1892 eta 1939. urteen artean, aüzapeza ere izan zelarik sei urtez. Hiri hontan, aüzo eta adiskide bezala üken züan beste eüskal herritar famatü bat: Maurice Ravel, müsika hontzalea.

Parise kantü hartan bizi zelarik, arren, Jean-Félix Larrieuk hartü züan *Ziberoko Egünariaren* бүрүzagioa eta xiberotar eder batetan izkiribatürik zen urtekari honen argialatzearen ardüra. Ez ardüra ttipia, haatik, zeren eta agerizkoa beita lan hortan tematsüki erauntsi züala. Honen probarik ez balin bada ere –*Ziberoko Egünariako* artikülüak ez beitziren sinatürik–, arrazuak badira pentsatzeko kaseta hontan agertzen zen gehiena berak idazten edo arramoldatzen züala. Xiberoan, haatik, bazütüan ezagünak eta adiskideak, hala nola Albert Constantin eta Dominique Iribarne atharratzarrak, Marcelin eta Marc Zügün zalgiztar osaba/llobak. Horiekila arrolatzen zen ere Gratien Istillart hazpandarra. Bost eüskaltzale hauk, Kepa Altonaga ünibertsitalari eta idazle adiskideak deitü düan Atharratzeko taldeko kideak ziren\*. Hala deitü dütü, Basabürüko herri nausikoak edo üngürükoak zirelako eta Atharratzen 1910ean eta 1912an agitü ziren bi biltzarren handitan peredikü egile gisa erauntsi zirelako. 1913. urteko *Ziberoko Egünariaren* erraner sinetsi behar bazaie,

---

“Atharratzeko taldea” xehetarzün handiz aipatzen düan Kepa Altonagaren artikülüa, ondoko esteka elektronikoko hontan ediren daite:

<http://mendebalde.eus/jardunaldiak/2007/Atharratzeko%20biltzarrak%20eta%20atharratzeko%20taldea%2014ko%20gerla%20atarian.pdf>

bakia horietarik bakoitzean “ehunka parte-harziale” bildü zen, haboroek laborari mündükoak zirelarik. Arren, izaten ahal da Jean-Félix Larrieutzaz gain, “Atharratzeko taldeko” kide euskaldünak ere izan ziren *Ziberoko Egünarian* izkiribazaletarik, bena segürtamen osorik ez dügü hortaz.

Osoki segür dena da, aldiz, Jean-Félix Larrieu euskaldün eta euskaltzale süharra zela, eta hura ez bazen izan, *Ziberoko Egünariak* ez züala 27 urtez iraünen. Ordünko euskaltzaleen mündüan ezagütürük zen eta goraipatürük ere, zeren eta Euskaltzaindiko ürgazle izentatü beitzüen 1919. urtean. Ospe eta mereximentü handiko hizkuntzalaria izan den Resurreccion Maria de Azkuerekin harreman jarraikiak zütüan, Kepa Altonagak ediren bi leterak agerialat ekarri düen bezala. Bada, halere, Jean-Félix Larrieuren bizi aberats hortan misterio bat: zer plantaz ote 1914-1918ko gerlatik landa, ez züan, agerian pürü, eüskararen üngürüko igialdi eta lanetan parte-hartü? *Ziberoko Egünariaren* ez haboro agertzea argitalpen kostü elibatengatik esplikatzen ahal bada ere, ez da entelegatzen ahal, aldiz, Lehen Mündü Gerla aitzin hain eüskaltzale kartsüa izan zen bat, ez ledin haboro gerla horren ondoko eüskararen alteko mündüan parteliant izan. Gerla harek “frantsesagotü” ote züana, ipar eüskal herritar hanitxekila agitü zen bezala? Kasü hortan, halere, ez leite sobera entelegat, nolaz, 1919. urtean, euskaltzain ürgazle izentatürük izatea honartü züan. . .

Zer nahi den, eta ideologia istoriak bazter ützirik, *Ziberoko Egünariaren* argitaraldia, idatzizko eüskalgintzako aberastarzün handi bat baratüko da, nahiz eta egünko egüneko eüskal mündüan jente oso gütiz ezagütürük den. Ezjakite horren, hein batetan, xüxentzeko xedearekin dügü *Ziberoko Egünariaren* arrabiziarazte hau бүрүтү nahi izan. Ber zoinean ere, eüskararen izkiribatzeko maneretan izan diren kanbioak nahi üken düttügü agerrarazi, libürütto honen hoillaldeetako gainti batetan *Ziberoko Egünariako* artikülük ordüan agertü ziren bezala ützez, eta, beste gaintian, ber artikülük oraiko idatzarau edo ortografan ezartez. Eüskaraz izkiribatzen ikasteko paradarik üken ez düen hanitxek uste düe “leheneko maneran” –bena zoin ote, bat beno haboro izan beita. . .– izkiribatüaren irakurtea aisago dela. Haatik, lehenago idazmolde bat eta oraikoa bisan-bisean ezartez, ontsalaz ohartü behar lükee ez dela hala. Eüskara mintzaje “logiko” bat da, eta oraiko idazmoldea gramatika logikari jarraitzea baizik ez denaz gainen, eüskara “arautüa” da irakur ehiena. Halere, irakurlea ützezagün afera honen xurizale. . .

---

N.B.: Argialatü ziren *Ziberoko Egünariaren* 27 zombakietarik 23 esküetan dütü Sü Aziak. Ments düttügünak dira 1900, 1908, 1909 eta 1911. urtetakoak. Horik norbaitek balütü, gogo eta esker honez har gintiroke, treslatatzeko edo eskanatzeko baizik ez balitz ere.

## “Aita Junes Casenave-Harigile gogoan”<sup>4</sup>

[in *Pastoralen gerla Urdiñarbe – 1909-1912*

2. partean: *Aita Junes Casenave-Harigile gogoan*, 2020, Sü Azia]

Aita Junes Casenave-Harigile gure artetik joan zen 2018ko setemeraren 24an, 94 urtetako adin ederreala helturik. Euskal kulturaren sailean ützi deikün ondoretarzüna animalekoa da: emanik izan diren hameka trajeria edo pastoral eta izkiribatürük bena oranokoan emanik ez diren beste zortzi, hiztegiak, olerkiak, ipuinak, nobela eta narrazioneak, erranaldi eta sineste zaharren biltzeak, leheneko jeien aipaldiak, erlijioneari etxekara diren idazlanak, ützülpän lanak, artikülüak...

Idazlan horietarik andana argialatürük balin bada, hanitx dira oranokoan argialatügabe direnak eta Sü Azian üdüri zaikü gure eginbeharretan dela eüskararen ekei ezinago balios horien jenteengana helaraztea. Hortarako, esküetan düzün Pastoralen gerla libürü honen bigerren partean, Aita Junes gogoan saila nahi üken dügü abiarazi. Hontan, arren, Aita Junesek izkiribatü *Orai* pasterala idazlana agerrarazten dügü, zointan ere argiki eta xeheki erranik den zer den trajeria edo pasterala, non dütüan herroak, zoin diren honen arauak eta trajeria baten zatiak, herri batetan nola den plantatzen, geroalat nola joan leitean...

Munta handiko idatzi honez gain, Aita Junesen beste lanik ere eskentzen deitzüegü heben: alegia zönbaiten oritaraztea, eüskaldünen sineste zahar elibatzen aipatzea, Xarnatera edo Jondane Johane süen jei egüna nola ospatzen zen lehen.

Hasian hasiz, Aita Junes zenaren beste lanik ere agerrarazteko geietan gira ondoko argitalpenetan. Badügü hor pasta bat ezinago ederra eta eüskaldüntar-zünaren hazteko lehen-lehen esküartekoetarik da.

---

<sup>4</sup> In *Pastoralen gerla Urdiñarbe – 1909-1912* 2. partean: *Aita Junes Casenave-Harigile gogoan*, 2020, Sü Azia, Maule-Lextarre, 85. or.



## HIRU ELKARRIZKETA: ALLANDE SOKARROS ELKARRIZKETATUA

“Guk ez diogu gure historia inori zor,  
guhaurek egin dugulako”<sup>1</sup>

[in *Ipar Euskal Herriko Hitza*, 2014-01-13]

Argazkilari izan nahi zuen etxebartarrak, baina Hegoaldeko gazteria oldartua atzeman zuen. Eta arrazoiak entelegatu nahian, bera ere borrokan sartu zen. IKn lan politikoa klandestinoki egin zuen. Oraingo egunean, Zuberoako Herri Elkargoko presidenteordea da. Liburu ederra atera berri du.

Ainize Madariaga



Allande Socarros. / ©Bob Edme

<sup>1</sup> Elkarrizketa hau *Berria* egunkariaren eta Ainize Madariaga kazetariaren baimenarekin argitaratzen da.

“Neska gazte batekin abian nauzu konfesatzera!”, dio, elkarrizketa hasi aitzin. Allande Sokarros (Etxebarre, 1957) halakoa da: zirikatzailea eta umoretsua. “Maite Lephaille Xiberoko Botzako erratariak asmatu zuen kontzeptua, konfesatzea elkarrizketa egitea bezala baita: norbait baztertzea eta mintzaraztea! Oso ona da!”. Irri egitea eta eginaraztea maite baitu. Haatik, serio jarri behar delarik, ez du hutsik egiten. IK Iparraldeko talde klandestinoan ibilia da, kartzelan egona ere bai; militante historiko eta nekazina da, itzultzailea, eta kazetaria. Hautetsia ere bada gaur egun.

### **Nola abertzaletu zinen?**

Argazkilari izan nahi, eta Hegoaldera partitu nintzen. 1978. urtea zen; urte zinez gogorra. Gazteria oldartua topatu nuen bertan, eta, arrazoiak ulertu nahian, hurbiletik interesatu nintzen gaiari. 1980 garaiko belaunaldi osoa bezala, izugarri afektatu ninduen gertakari batek: Baionan Suprefeturaren kontrako atentatua prestatzen ari zirela, Txomin Olhagarai eta Ramuntxo Arruiz lehergailua eskuetan zartaturik hil ziren.

### **Nola eman zenuen, beraz, mundu batetik bertzerako salto hori?**

Mixel Labegerirengana hurbildu nintzaion, jakin nahi bainuen Maule-Baitako baitha horrek zer erranahi zeukan. Euskarak elkartu gintuen. Labegeri, niretzat, betidanik abertzalea izan da, burutik buru. Berak, ondoren, Biarnora eraman ninduen: Bayrourenganaino. Han zentristekin hilabete zorbait egin nuen. Bayrou izugarri prezatzen dudan norbait da, gisakoa eta jendekaria baita.

Baina, gero, Hegoalde hori zegoenik banekien, eta ezezaguna zitzaidan. Eta argazkigintzaren estakuruaz bertaratu nintzen. Aipatu hilketa horiek izugarri afektatu ninduten, eta nik uste orduan eman nuela jauzia.

### **Zer da abertzale izatea zuretzat?**

Kontzientziaduna izatea da; herri batek bere eskubideak, eskubide osoa baitu, ez errespetatuak dituelako jakitun izatea. Injustizia horren sentitzea da abertzale izatea.

Kultur asteak antolatzea abertzale izatea da: ibiltzea, mintzatzea, elkar gurutzatzea... Juntatzen gaituzten ideiak bilatu behar dira. Herria biziaraztea da abertzale izatea; aisialdian jende orotarikoa bilduz, adibidez. Eztabaidatzeko

paradak sortu behar dira. Borrokan sartu gabe ere izan daiteke abertzale. Ni, ordea, aski fite sartu nintzen borrokan.

### **Nolakoa zen borroka hori?**

1980. urteen hastapenak ziren. Oso garai gogorak ziren. Ikastolen borroka pil-pilean zegoen, MIACA egiturak (Akitania kostako antolamendua helburu zuen misio interministeriala) proposatzen zituen turismo egitasmoak beldurgarriak ziren, eta, garai hartan, hautetsi gehienak Euskal Herriarekiko ezaxolagabe ziren, inongo euskal kontzientziarik gabeak euskara zein euskal izatearekiko. Ez zen besterik egiten ahal borrokan sartzea baino.

Hori bai, Etxebarretik atera beharra zen abertzale izateko; bertan egon izan banintz, askoz ere mugatuagoa izanen zen nire parte hartzea.

Baionan hasi nituen lehen lan militanteak: Mende Berri kultur elkarteak bazuen bere adar politikoa, Ezker-Berri zena, eta haien hilabetekarian kolaboratzen hasi nintzen; *Gernika* deitzen zen. Bertan ezagutu nituen Gabi Mouesca, Gabi Oiharzabal eta Mattin Larzabal, besteak beste. Baina Gabi Mouesca eta biok ez ginen ber denboran IKn sartu; berantago topo egin genuen bertan. “To, hi hemen? Ze sorpresa!”. Kur-kur-kur!

### **Eta ondoko urratsa, IKra?**

Nire bila etorri ziren. Baigorri izan ziren tiroketen ondotik, IK jendez berriztu zen. Tiroketa horiek jendea beldurrarazi zuten, eta batzuk urrundu egin ziren; baina beste asko buru-belarri sartu ziren, ni tarteko. Iparraldea Iparraldeko jendeak aitzinarazi behar zuen; horregatik, ni beti anti-ETA izan naiz, haren sudur-sartzeen erabat kontrakoa. Hemengoak hemengoek kudea dezatela. Garai gogorak ziren, ETAk IKri bidea tratatzen ziolako, baina ez zuen sekula lortu IKri bidea moztea. ETAk Iparraldea bere babesleku gisa mantendu nahi zuen, bere bakegunea; bertako abertzaleak bere menpe nahi zituen. Guk ez diogu gure historia inori zor, guhaurek egin dugulako. Historia horiek oso ezagunak dira, eta iragana dira, gaingituak dira jada, nahiz eta oraindik Hegoaldeko frankok Iparraldeko egoera sobera gutxi ezagutzen duten.

Orduan oso zabalduak ziren herri taldeak, eta jendeak uste du horietatik sartu zela jendea IKra. Zuberoan ere baziren; alta, nik, nonbaitik ere, ezin gauzak sinple egin! Ez nuen horretan batere parte hartu! Baina IKn sartu nintzen berdin-berdin!!



### **Nor ziren kide berri horiek?**

Herriaren seme-alabak ginen. Borroka armatuak Iparraldean ondorio onak eta eraginkorrak ekarri baditu, arrazoi honexegatik ekarri ditu: herriko jendea ginelako, jendeak bazekielako ez ginela ero talde bat. Herriko bizian eta erreallitatean erabat murgilduriko gazteak ginen.

Denetarik zegoen: laborari seme-alabak, burgesiatik zetozenak eta langileak. Nik beti diot: IK izan zen abertzaletasunaren esparru zabalena. Ezkerrekoa zela hura? Eskuinekoa bestea? Ez dakit, ez zuen inporta, herriaren alde ari ginelako. Hori genuen helburua.

### **Armak erabiltzen entrenatzen hasi zinen, beraz?**

Sekula ez. Nire borroka ez zen armatua izan, klandestino baizik. Ni armarik gabeko sailean ari nintzen lanean; politikagintzan. Bi adar baitzituen, politikoa eta armatua, nahiz eta biak politikoak diren. Klandestino-legala zara etsaiak ezagutzen ez zaitueno; gero ilegala bilakatzen zara, kur-kur!

Ni 1989ko urtarrilean bilakatu nintzen ilegal, atxilotu nindutelarik. Mendikotan gertatu zen, paper batekin sakelan harrapatu nindutelarik sator batek salaturik —badakit nor izan zen, kur-kur-kur!—.

Orduan, sekulako bidaia egin nuen: Etxebarretik Parisera! Eta, gainera, hegazkinez, lehenbiziko aldiz!

Ez zidaten iritzirik eskatu jakiteko hegazkinez ala trenez bidaiatu nahiago nuen! Kur-kur-kur! Sei hilabete eman nituen La Sante kartzelan. 1991n auzipetu ninduten, baina zigorrik gabe atera nintzen... Michel Rocard —orduko Frantziako presidentea<sup>2</sup>— eta IKren arteko elkarrizketen fruitua izan zen.

Bigarren aldian, 1993an, Sarako prentsaitzinekoan kazetari baten hutsegitearen ondorioz gertatu zen, San Inazio lepoan, Larruneko trenaren estreinaldi egunean, jendez mukuru zegoelarik. Seiak atxilotu gintuzten.

Baina Gabi Mouescak dioen gisan: abiadura handiko presoak izan ginen! Denbora gehiago pasa genuen Poliziaren eskuetan, presondegian baino! Izan ere, esku-hutsik harrapatu baikintuzten, dokumentu eta armarik gabe aldean.

---

<sup>2</sup> Michel Rocard orduko Frantziako lehen ministroa zen, ez presidentea (argitaratzailearen oharra).

### Parisera eraman zintuzteten?

Bai, hegazkin militar batean sartu gintuzten seiok. Abiatu aitzin jada, patruilako batek ez zuen bertara upatu nahi, beldurtuta. Eta hegan gindoazelarik, guk baino beldur handiagoa zuten berek! Izugarriko burrunba egiten baitzuen traste hark! Horiek segur trenez itzuli zirela! Eta bai gu ere!

Egia erranik, ber trena har genezakeen, berehala etxeratu baikinen, inolako frogarik gabe ez gintuztelako epaitu ahal izan. Betti Bidart izan zen gutariko bakarra, hiruzpalau hilabetez Parisen egonarazi baitzuten; deitura ez zuelako edonorena. Erabakia errotik politikoa izan zen, gure kasu bereberean baitzegoen.

### Ataka larrian ere irriz?

Umorerik gabeko jendarte bat sekta bat da; egitura totalitario bat! Elkarbitzarako arazoei eta totalitarismoari buru egiteko oinarrizko baliabidea da. IKren barnean, borroka izugarriaren erdian, sekulako umorea ibili dugu beti, baina bagenekien serioski aritzen ere. Umoreari beti lekua ematen jakin izan diogu.

Egun batez, buruarinen batek murru batean zera idatzi zuen: *Borroka armatua egiazko borroka da!* Eta guk erantzun egin genion: *Apo armatua [dortoka] egiazko apoa!* Kur-kur-kur!

Beharbada, egun batez, anekdota guztiak biltzeko liburua idatziko dut.

IK niretzat betidanik erakunde demokratiko eta umoretsua izan da. Egoera ez-normal eta injustiziaren baten ondorioz sortu baitzen borroka armatua. Demokrazia formal horrek ez dituelako desberdintasunak onartzen. Eta, zorritzarrez, beharrezkoa izan da borroka armatu hori, baina ondorio onak utzi ditu: kontzientzia hazi eta zabaltzeko balio izan duelako. IKrik gabe, Sokarros ez baitzen sekula Zuberoako Herri Elkargoko presidenteorde izanen. Gaur egungo egoera larria da, baina egoera desberdina da, badirelako tresnak — adibidez, lurraren gaineko espekulazioari aurre egiteko, SAFER eta EPFL, kasurako—, eta hautetsien kontzientzia hazi delako.

### Nola bizi duzu Zuberoako Herri Elkargoan abertzale gisa jardutea?

Zuberoa oso berezia da, abertzale izatea oso erraza delako, nahiz eta hauteskundeen ehunekoetan eraginik beharbada ez duen. Herri ttipiak dira, eta elkarren ezagunak gara. Ni abertzale bat naiz, hautetsi. Ez naiz hautetsi abertzale bat. Baina Etxebarren, 2001ean, ez ninduten abertzale naizelako hautatu,

ni naizelako baizik. Lurrealde Elkargoaren kasuan, besteak dira hurbildu aberzaleengana. Bide egin dezakegu abertzale ez direnekin ere. Jendarteak ez du harresien beharrik, zubiena baizik. 2008az geroztik bulegoa osatzen duten II presidenteordeetarik bat naiz. Euskara, kultura eta ondarearen batzordeburua naiz. Presidente bera zen nire bila etorri. Zuberoan oso-oso usaia zaharra dugu jende desberdinen arteko errespetua, elkar aditzea. Aurore Martinen aferan, naturaltasun osoz aipatu genuen horren kontra izenpe zezakeela nahi zuenak. Eta abertzale ez zirenek ere, arazorik gabe, izenpetu zuten.

### **Zer eskatzen duzu, Lurrealde Elkargoa ala autonomia?**

Lurrealde Elkargoa behar da Iparralde bere osotasunean kontuan hartua izateko. Bistan dena ez dela aski, baina autonomiara heltzeko bidean dago. Sekulako akatsa egin du Frantziak ezetz erantzutean, bertako gehiengoak eskatzen duelako, abertzale ez direnek ere sentituko dutelako injustizia bat. Nolatan Frantziak Lurrealde Elkargoa onartu dio Lyon eskualdeari, eta guri ez? Ezin du esplikatatu, erabakia erabat politikoa izan delako! Baina injustizia horretaz jendea ohartzen ari da, eta Frantzia bere buruaren kontra doa. Bidegabekeria horretaz abertzaleak baliatu behar dira. Ez dute aski egiten.

### **Kazetaritza *Gernikan* hasi zenuen?**

Bai. Mende-Berriren aldizkari horretan hasi nintzen kolaboratzen. Euskaraz alfabetatu nuen neure burua. *Zeruko Argia* irakurriz ikasi nuen batua; ulertzen ez nituen hitzak azpimarratzen nituen, eta hiztegian bilatzen. Horrela ezagutu nuen Pello Zubiria, *Egunkaria*-ren lehen zuzendaria.

### **Eta *Egunkaria*-n hasiz geroztik nazioarte sailean egon zara beti?**

Ba, azkenean bai! Hemezortzi urtez! Azkenean, Afganistan zokoan gertatzen zenaz jakitun nintzen, baina Mauleko karriketakoaz ez! Kur-kur-kur!

Hasieran, Baionako delegazioan, nehork ez zuen Frantziako berrien ardura hartu nahi, eta niri berdin zitzaidanez, hartu egin nuen. Eta gustatu! Ez nuen geroztik besterik gehiago egin!

### **Aurkeztu berri duzuen *Zuberoa Herria* liburua zubereraz idatzi duzu. Zer irizpide duzu zubereraz idazteko?**

Bada niretzat funtsezko araua: irakurlearentzat ulergarria izan dadila. Hizkuntza bat beti aldatzen ari da, eta hori biziaren seinale ona da. Hitzak asmatu egin behar dira, beti egin den bezala. *Otoa* hitzak, adibidez, ez du ez buru ez buztanik, ez du inolako zentzurik. Kasu horretan, hiztegi zaharrera jo dut, eta *botiira* hartu dut, ulertzen delako. Eta *botiira*-ri, baztergia gehitu diot. Nahiago izaten dut hitzak asmatzea, artifizialak erabiltzea baino, aparkalekua den bezala. Baina ez naiz batere purista; ez diet latinetik eratorritako hitz guzietan uko egiten. Zuberera gure berezitasun esparrua da; haren alde egin behar dugu, beste euskaldunen kontra joan gabe. Batuak, ez barka, Komunikaziozko Euskara deitzen diot, badu huts bat: hiztegi oso-oso mugatua duela. Euskara estandarrak baliabidezko tresna bat baino gehiago izan beharko luke, eta ez jendarte zehatz bati loturik egon. Damugarria da Nafarroako eskualde zombaitetan bertako euskara bere berezitasunekin galtzea eta oraingo hiztunek batuaz baizik ez jakitea. Ez zen hori euskara estandarraren funtzioa. Bistan da, hobe da horrela batere euskaraz ez mintzatzea baino!

Idazteko, aldiz, bai, nik oso argi dut. Funtsezko araua badela hor hizkuntza orendako balio duena: hitz bera denetan berdín idatzi behar dela, nahiz, normala den bezala, eskualdearen arabera arrunt manera desberdinez ahoskatzten den. Beraz, liburua idazteko ez dut inolako duda edo zailtasunik bizitu. Zubereraz idaztearen marka bakarra *ü* da, guri baizik ez dagokigulako. Bestela, liburuak euskara komunikaziozkoaren arauak errotik errespetatzen ditu. Euskal Herri osoko irakurle ororentzat prestatua dago, ulertzen ez duenak hiztegiara jo dezala.

### **Eta nolako *Zuberoa* marraztu duzu?**

Bere konplexutasunean, alde baikor zein ezkorrak salatuz. Zuberoa karta postaletik atera dugu, eta bertan bizi garenon begietatik aurkeztu dugu. Zuberoa ongi bizi dela erakusten dugu; badela, maskaradez eta pastoralaz gain, industria eta laborantza ere, eta ez dutela, zoritxarrez, denek euskara ematen. Liburuaren historiaren atala egiteko, Jean Louis Davantengana jo nuen. Argazkilaria, berriz, Christophe de Prada da. Elkar argitaletxekoek zidaten lan hau eskatu, hutsune bat zegoelako alor horretan. Frantsesez eta espainolez ere badaude.



## “Allande Sokarros: ‘Inkestek gezurrak esaten dituzte; euskararen egoera larria da Xiberoan’”<sup>3</sup>

[in *Gara* eta *kazeta.eus*, 2020-07-27]

Idoia Eraso

Pettarreko lau herrietako biztanleek “Abdelkader” pastorala eskaini behar zuten uztailaren 26an, igandearekin, baina koronabirusaren izarriak 2021 urtera arte gibelarazi du kultur ekitaldia. *Gara* egunkariak pastoralaz, euskarak Xiberoan bizi duen egoeraz eta joan den mendeko Xiberoaz Allande Socarros kazetari, itzultzaile eta hautetsi abertzale ohiarekin solastatu da.



Allande Socarros. / ©Bob Edme

Xiberoako euskara elkarte nagusia den Sü Aziak, xibereraren ezagutza eta hedapena bultzatzearekin batera, herrialdeko euskal kultura sustatzea du xede, eta, bide horretan, liburuak argitaratzen ditu. Elkarteko kide da Allande Socarros eta plazaratu duten azken argitalpenari buruz mintzatu da *GARA* egunkariarekin: “Pastoralen gerla: Urdiñarbe 1909-1912”. Liburuan, herri antzerki zaharraren inguruan aritzeaz gain, Urdiñarbe “gerla” horretara eramán zuen inguru sozial eta politikoa ere azaleratzen da. Obraren bigarren

<sup>3</sup> Elkarriketa hau *Gara* egunkariaren eta Idoia Eraso kazetariaren baimenarekin argitaratzen da. Naiz eta *Kazeta.eus* webguneetan eta *Mediabask* astekarian argitaratua izan zen ere.

partean Euskaltzaindiko ohorezko kide eta pastoral idazlea izan zen Junes Casenave-Harigileren argitaragabeko lan batzuk bildu dituzte.

**“Pastoralen gerla: Urdiñarbe 1909-1912” liburuan gatazkaren oinarria izan zen gizarte egoera agertarazten duzue.**

Allande Socarros: Gorrien eta zurien artean izan zen borroka da. Gorriak, ez ziren hain gorriak ere, baina antiklerikalak ziren, erlijioak gizartean ezarria zuen menpekotasunaren aurkakoak; zuriak menpekotasun horren aldekoak ziren. Gatazka hori piztu zen, lau urte aitzin Frantzian onartu egin zutelako Estatua eta Eliza bereizteko legea, eta horrek bazterrak sutan ezarri zituen.

1896tik auzapeza zen Lazare Bedaxagar [Jean-Mixel Bedaxagar kantari ezagunaren birraitona] eta gorrien alde egin zuen, nahiz eta ez zen antiklerikala, baina bai langileen aldekoa, erlijio katolikoak gizartea menpeko ezartzeko zuen nahiaren kontrakoa. 1906an Urdiñarbera etorri zen Auguste de Mendite, apez aski oldarkor bat, eta “Eskualduna” astekarian idazten zituen kronikek giroa sumindu egin zuten. “Pastoralen gerla” deitu dugun horren ardatza da hori, zeren eta 1909an Urdiñarben izan ziren hiru pastoral. Lehena apirilean egin zuten “Roland” izan zen, eta, prestatzen ari zirelarik, antza, batzuk sumindu egin ziren, eta erabaki zuten beste pastoral bat egitea, hiruzpalau hilabeteko tartearekin. Zuriek, orduan, “Abraham” paratu zuten, maiatzean. Eta bigarren emanaldia egin zenerako, emazteek bakarrik beste pastoral bat egin zuten: “Sainte Helene”. Horrela, 1909ko ekainaren 6an bi pastoral egon ziren Urdiñarben, gizon zuriena eta emakume gorriena.

**Baziren, beraz, emakumeen eta gizonezkoen pastoralak.**

Pastorala ez zen mistoa, bazen gizonezkoen pastorala, eta gutiago egiten zena, emakumeena. Gaur egun den mistotasun hori berantago hasi zen, II. Mundu Gerratik landa. Arizale askoz gutiago ziren; 30 ziren gehienez.

**Horrelako gauzetan ikusten da pastoralen inguruan gauza anitz aldatu direla.**

Bai, aldatu ez direnak dira funtsezko arauak; oso guti dira. Bi talde behar dira, bata bestearen arerio direnak, talde horiei erraten zaie, urdinak eta gorriak, edo giristinoak eta turkoak; urdina zeruaren kolorea da, eta gorria infernuarena.

Aldiz, aurten covid-19agatik atzeratu den “Abdelkader” pastoralean ezin izanen da erran giristinoak urdinak direnik, zeren eta sujeta, pertsonaia nagusia, musulmana da. Erdi Aro aurretik egiten zen sailkapenari bueltatu beharko da, gorriak eta urdinak, onak eta gaiztoak, zeren eta pastorala aspaldiko kontua da, Erdi Arokoa baino askoz aurrekoagoa; tragedia greziarrarekin ahaidetasuna badu. Baina datorren urteko pastoralean, ez dira giristinoak eta turkoak izango.

### **Zeintzuk dira funtsezko arau horiek? Zertan aldatu da?**

Behar da lehen perediku bat, jeltaldia, hogei inguru, eta azken peredikua. Ontsalar behar luke pertsonaia nagusiak hil, zeren horrek agerrazten du tragedia bat dela. Eta ezaugarri inportantea da ere euskaraz izatea.

Gero gauza anitz aldatu dira, mistoak dira, aberastu egin dira edukian, bada taula jokoa, dantza gehiago sartu da... Garaikidetu egin da, eta horrek salbatzen du. Normala da aldatzea funtsezko arauak gutxi gorabehera errespetatzen badira.

**Xiberotik kanpo pastoralak egiten hasi dira. Baiona inguruan, adibidez, “Katalina de Erauso”, “Gerezien denbora” eta “Andere Serora” izan dira azken urteotan.**

Bai, ni ez naiz hain aldekoa. Ez da nahi dudala gorde xiberotarrendako, baizik eta aski artifiziala delako. Xiberoan zergatik iraun du pastoralak? Tradizioan garatu baita eta transmisioan oinarritu. Hor transmisiorik gabeko zerbait da, gainera, xiberotar anitz badira arizaleetan. Nik transmisio hori nabarmen ikusten dut, eta ez dut uste luzaz iraungo duenik.

Gero Xiberoan ere luzaz iraungo duenik ere, kontuz! Hor badago, eragile nagusi bat, funtsezkoa dena, galtzen baldin bada pastoralak ez duena irauteko ziorik, eta hori euskara da. Euskararen praktika galtzen bada pastorala galduko da, eta Xiberoan galtzen ari da, hori argi eta garbi erran behar da. Ez da batzuek uste duten bezain sendoa.

### **Nola ikusten duzu euskararen egoera Xiberoan?**

Zail, oso zail. Hor inkestek gezurrak esaten dituzte, ez da posible, ez da jada Xiberoan herritarren %70ek euskara dakitela; jakitea, beharbada, bai, baina praktikatzen dutela behintzat ez. 14.000 xiberotarretatik euskara egunero bizi



direnak 3.000 badira anitz da, anitz! Egoera larria da, Euskararen Erakunde Publikoak nahi duena erraten du, baina egoera larria da.

Errealitate horretaz ohartzen gara, edozein herritara joanik, euskara guti entzunen duzu, eta belaunaldi gazteetan oraindik gutiago. Egia da ere, ikastoletan, hezkuntza elebidunean, badela ikasle kopuru bat, urtetik urtera handitzen dena gainera, baina horrek ez dio galerari aurre egiteko nahikoa ematen.

**Kostaldeko pastoraletan ikusi da oraindik Xiberoan ez dena ikusi, hau da, errejenta edo zuzendaria emakumea izatea.**

Hori ondo dago, eta ez dut uste Xiberoan kasik inork duenik horretan arazorik. Gertatzen dena da gaur egun ez direla lehiatzen, oraindik. Izan ziren bi; “Ederlezi” pastoral alternatiboko errejenta Nicole Lougarot izan zen, eta, aurretik, “Jesüs” pastorealean, San Frantses kolegioko gazteek eman eta Aita Junes Cazenavek idatzi zuena, errejenta Sophie Larralde izan zen.

**“Eskualduna” kazetako artikulua eman dituzue liburuan. Artikuluon bitartez, garaiko gizartea ezagutzeaz gain, euskara eta ortografia nolakoak ziren ere ikus daiteke.**

Bai, nahiz eta erran behar den kazetako bultzatzaileak eta jarduleak zuriak zirela, erlijioaren eta kontserbatismoaren aldekoak, baina bazuten hori, euskararen aldekoak ziren, atxikimendu hori argi ikusten da. Aldiz, gorri anitz euskararen kontrakoak ziren, baina ez Bedaxagar.

Liburuko berezitasun bat da kronikak bi orrialdetan ematen ditugula, ezkerreko orrian jatorrizkoak agertzen dira eskaneatuta, orduko ortografian, eta, eskuinean, guk geuk eman ditugu egungo idazkeran. Horrek aukera ematen du ikusteko zer-nolako aldeak izan diren euskara idazteko moldean. Gero, euskara polita da, aberatsa baina herrikoia; gaur egun ere atzematzen diren esamolde batzuk ere badira, eta hori aberasgarria da. Nahi izan dugu lehen idazten zen bezala eta egun idazten den bezala agerian eman.

**Junes Cazenave-Harigileren lan argitaratu gabeak ere ezarri dituzue liburuan.**

Oso euskaltzale sutsua izan zen. 2018ko irailean hil zen eta nahi genuen baitezpada bere lan argitaratu gabeak agertu. Bere lan anitz argitaratu dira,

pastoraletako testuak demagun, baina gehienak ez dira atera oraindik. Sail berri bati hasiera eman nahi izan diogu Aita Junes Cazenave-Harigile gogoan, eta horretan jarraitzeko asmoa dugu hurrengo argitaraldietan.

Liburuaren bigarren partean, bere bospasei testu badira. Bada testu bat, bereziki garrantzitsua dena eta pastoralaz bere jakitatea erakusten duena. Emanen dituen datuak dira ustez nondik datorren pastorala, zein diren arauak, zein bilakaera ikusten dion... Jean-Louis Davantek gauza bertsua egin du, baina frantsesez, Elkar argitaletxearekin. Liburuko beste testuak, sineste zaharrak dira.

### **Beste obra anitz gelditzen dira oraindik argitaratzeko?**

Anitz daude, etengabe idazten zuen. Lanetatik erdia baino gehiago oraindik argitaratzeko badirela erranen nuke. Horren erronka da euskarazko irakurleak izan daitezen, eta haz daitezen. Eta hor bada arazo bat, oro har Euskal Herrian, baina baita Xiberoan ere: irakurtzeko ohitura gutxi da.

Aurretik irakurtzen zen gehiago, baina gero izan dira euskararen aurkako eraso horiek, eta transmisioaren etetea parte handi batean. Xiberotarrek euskara gehien irakurtzen dugu, hain zuzen ere, pastoraletan. Pastorala ikusten den momentuan berean, testua irakurtzeko.

### **Zein da euskara batuaren eta zubereraren artean Xiberoan bizi den harremana?**

Xiberotar gutxiak dakite batua, edo gutxiak egiten dute indarra ulertzeko edo egokitzeke. Baina, bestalde, erran genezake Hegoaldetik, Nafarroa Beheretik edo Lapurditik etortzen diren etatik, zenbatek egiten dute indarra zuberera emateko? Dagoeneko pozik egongo nintzateke zuberera salbatuko balitz, hortik bada aukera harremanek beharra sortzeko, euskara batua ere erabiltzeko. "Ere" esaten dut, zeren eta nik ez dut sekula zuberera salduko batuaren beharrean, hori argi egon dadila.

### **Zein ikuspegi dago Xiberoan euskara batuari buruz?**

Euskalkiak eta batua ez dira bata bestearen etsai, baizik osagarri eta aberasgarri. Leku askotan, hasieratik batua ikasten dute, beste aukerarik ez dago, bertako euskalkia galtuta badago. Batua ikasten da, eta hori euskara da.



## “Euskal Herri bat izan behar bada, euskalduna behar du izan”<sup>4</sup>

[in *Argia*, 2020-10-11]

Miel Anjel Elustondo

Euskarari eta Euskal Herriari emana da bere buruaren jabe egin zenez geroztik. Praktikatu ditu militantzia batzuk eta bestek, iparrorratza gidari, Ipar Euskal Herria ardatz. Txoria bezain alegera jin zaigu, nahiz belaunaldi bat betikotz zauritu zuen minak bere horretan irauten duen, sendaezin.



Argazkia: Zaldi Ero

### Allande Sokarros Estekondo.

(Etxebarre, 1957)

Pasta oneko zuberotarra, kazetari, itzultzaile, idazle, militante, hautetsi, euskaltzain urgazle... Iparretarrak IK-ko kide izana, Zuberoako Herri Elkargoko presidenteorde ohi, Sü Azia elkarteko kide, hamaika ditu lan eginak, eginkizun dituenak bezainbat. Bide horretan, hala ere, zenbait liburu ditu onduak: *Maule-Lextarre*, *Züberoa Herria* –Jean-Louis Davantekin lankidetzan–, *Ziberouko Egunaria*, *Hiztegi Tipia Euskara Batua-Zuberera / Zuberera-Euskara Batua...* Zinez aktibo da sare sozialetan Twitter nahiz Facebook-en, eta Hitzapitz bloga ere badu. Oroz lehen, euskararen zerbitzari da, “baina politika ikuspuntu batetik, eta politika ikuspegi batera”.

<sup>4</sup> Elkarrizketa hau *Argia* aldizkariaren baimenarekin argitaratzen da.

**Iduri du Zuberoan ere lanik frango badela euskaraz bizitzen. Adinekoek ontsa badakite. Gazteei denez bezainbatean, ez da ber egoera.**

Jakin behar duzu herri txiki eta ertainetan naturalki transmititu dela euskara. Hirian, hots, Maule-Lextarren, besterik da. XIX. mendearen hondarrean nahiz XX. mendearen hastapenean hasi zen erdalduntzen Maule-Lextarre. Hemen bazen industria. Bazen zapatagintza, bazen kautxugintza... eta industria horrek jendea ekarri zuen hona. Eta horrek eragina izan du euskararen gibelatzean. Ondotik, Espainiako gerla zibilak ere ez zuen lagundu, bistan dena, gerlarekin, nafar eta aragoitar anitz etorri baitziren Maule-Lextarrera. Erdaldunak ziren gehien-gehienak, eta eman zioten Maule-Lextarri hein bateko espainol kutsua.

**Besterik izan da, haatik, herri txikietan, erran duzunez.**

Nihaur, 6 urtetan hasi nintzen frantsesaren ikasten eskolan. Etxebarrek bazuen orduan eskolarik, eta hara sartu naizelarik, frantsesa ikasi nuen. Baina josteta uneetan euskaraz ari ginen, eskolan ere, erran nahi dut, eta errejentak ez zuen ezer erraten. Gertatu izan da, hala ere, errejent batzuk erratea: *“A l’école on parle le français!”* (Eskolan frantsesez hitz egiten da!), baina Etxebarren ez. Herri gehienetan, ez, erranen nuke. Gure etxean euskaraz ari ginen beti, eta ene gurasoek euskaldun kontzientzia bai, baina politika kontzientziarik ez zuten.

**Batzuek eta besteek errana da gerlek ekarri zutela alde honetako euskaldunen frantsestea.**

Bai, eta gehien bat 1914-1918ko gerlak, “14ko Gerla Handi” deituak. “Eskuara baizik ez zakiten haiek, mort pour la patrie”, Gorka Knörren kantua da, ezta?, oso kantu indartsua. Hala 1914ko Gerlak, nola Bigarren Mundu Gerlak bere parte egin dute hemengo jendea frantsesteke, seguru.

**Gurasoek ez zizuten kontzientzia politikorik. Zuk baduzu.**

Berandu hartu nuen kontzientzia, 1978-79 inguru horretan. Iparralde zale makurra naiz, baina aitortu behar dut nire kontzientzia politikoa etorri zela, parte batetik, bederen, Hegoaldetik. Lehenik, German Rodríguezen heriotza hura! Sasoi hartan argazkilarik nahi nuen saiatu, eta joan nintzen Hegoalderat argazki batzuen hartzera, Iruñeko sanferminetara, istilu egun haietan. Sekulako



Argazkia: Zaldi Ero

liskarrak izan ziren, eta horrek puruki inarrosi ninduen. Bigarrenik, beste gertakari larri bat izan zen kausa: Txomin Olhagarai eta Ramuntxo Arruizen hiltzea Baionan, 1980ko martxoaren 26an. Bi gazte abertzale, Ipar Euskal Herrian borrokan hil diren lehenbizikoak. Sekulako txokea izan zen haien hiltzea. Agian, oroitzen zara: lehergailu baten paratzen ari zirelarik, honek eztanda egin zuen eta biak batean hil ziren. Hogeitsu urteko gazteak ziren.

### **Bi heriotza...**

Baina, otoi, ez dut borroka ikuspegi mortiferorik. Ez dut jasaten ahal. “Iraultza ala hil”, eta horrelako tentelkeriak. “Iraultza eta bizi!”, behar du. Ikuspegi hits eta ilun hori eskuin muturrak izatea, ontsa liteke, baina guk? Otoi! Hala ere, nahi izaten dut beti Txomin [Olhagarai] eta Ramuntxoren [Arruiz] hiltzea gogorarazi, baina mezurik ezarri gabe: “Jo eta ke, irabazi arte!” eta horrelakorik ez. Hala ere, hil zirela Euskal Herria defendatzeagatik.

### **Bi gertakariok inarrosi zintuzten.**

Orduan hasi nintzen pentsatzen. 1978an Germán Rodríguez hil zuten Iruñean, eta, ondoko urtean, Gladys del Estal Tuteran. Eta, gero, Txomin eta Ramuntxoren hiltzea. Urte horietan dut abertzaletasun kontzientziaren hartzea, eta euskaldun kontzientzia ere bai. Zuberoatik kanpo, hala ere! Eta hasi nintzen *Zeruko Argia* irakurtzen. Hasiera batean ez nuen tutik ere ulertzen. Uste nuen ateratze, Atharratze zela! Jalgi erran nahi zuela ulertu nuen arte! Hiztegi txiki bat egin behar izan nuen, zubereratik euskara baturakoa, *Zeruko Argia* irakurriz osatu nuena. Horren ondotik, idazten ere hasi nintzen, *Zeruko Argia*-n berean. Ez dira, beharbada, idatzi diren kalitate handieneko lanak, baina hastapenak dituzu!

### **Hiletatik bizietara igaran gara, noizbait ere.**

*Zeruko Argia*-ren garai horretan, kultur asteak egiten genituen Zuberoan, eta hori biziki garrantzitsua izan zen askorentzat, euskal kontzientziaz harro izaten lagundu baikaitu. Bazen elkarte bat, antolatzaile, Bedaroa izenekoa, hots, “belarra egiteko aroa” duzu bedaroa; parte batez, Ühaitza kultur etxe bilakatuko zen. Bedaroa hartan ezagutu nituen nik lehen abertzaleak: Jean-Louis Davant, Ttitika Rekalt, eta beste... Enbatakoak ere baziren hor. 70eko

hamarkadan mundu horrekin loturarik ez nuen nik, baina giro horretan sortu zen, demagun, Piper Beltx antzerki taldea. Beraiek izan ziren kutsu politikoa zuen kultur giroa hazi zuten lehenak. Pette Etxekopar, Xarles Hoki eta beste zenituen Piper Beltxen...

### **Gizonezkoak, denak.**

Nire oroitzapenetan ez da emazterik garai hartan, eta ez, hala ere, batere baztertzen genituelako. Hautetsi izana naiz, eta ohartu naiz, batzuetan, berak baztertzen direla. Herri batean hautetsi zerrenda egiten delarik, emazteek ezetz erraten dute gehienek. Gizon gutik erraten du ezetz. Gizonezkoak maite du boterearen ustekeria, ilusio hori. Emaztea, oro har, ez da batere espiritu berdinekoa.

### **Hautetsia izana hamabost bat urtez, eta kazetari, eta itzultzaile, eta euskaltzale, eta militante...**

Militantzia dago horien guztien giblean, prefosta. 1980 inguruan bilakatu nintzen militante politiko eta, politikarekiko lehenbiziko lotura Mixel Labeguerierekin egin nuen, Enbatako sortzaileetarik bat izan baitzen Labeguerie! Hark François Bayrourengana eraman ninduen eta, frantses zentrista haiekin egon nintzen sei hilabete, ez gehiago! Mixel Labegueriek ez ninduen Euskal Herrian erre nahi, eta Biarnora eraman ninduen. Oroitzen naiz, han ginelarik, galdegin ziotela kantatzen zuen kantu haietarik bat kanta zezan, eta berak, niri begi keinua egin eta “Gu gira Euskadiko, gazteri berria...” hasi zen kantatzen. “Zozoilo horiek ez dute tutik ulertuko!”, erranez bere baitan.

### **Militantzia politikoaz ari, Iparretarrak erakunde armatuko kide izan zinen, IK-koa.**

Baigorriko gertakari horren osteko militantea naiz. Horrek eragin handia izan zuen, gertaera hark jende andana beldurtu zuen, hoztu, eta erabat beste militante belaunaldi bat sartu zuen IKn. Erabat beste bat. Batzuk geratu ziren, aurrekoetatik, baina militante belaunaldi berri baten aldi izan zen, eta ni, haien artean izan nintzen. IK beti saiatu zen ahal bezain guti arrisku jartzeko, hilak ez eragiteko. Borrokaren gogortzerik, etsaien hiltzerik... IK-k ez zuen sekula horrelako erabakirik hartu, eta sekula ez genuen hartuko. Gertatu zirenak, deskalabruz gertatu ziren, ez, hala ere, nahitara.



### 1983an Jean-Louis Larre *Popo* desagertu zen.

Gure militante baitan dagoen zauri sendaezina da. Bilatu genuen *Popo*, bai, bilatu genuenez! Gure militante bat desagertu zela zabaldu aitzin, zurrumurruak baziren. Ihes egin zutela kide gehienek, eta, haietarik batek, basora buruz ihes egin zuela. Zurrumuru hori bazen, baina handik bi asteren buruan IK-k ofizialki erran zuen: “Gutarik batek ez du ihes egitea lortu, eta ez dakigu non den”. Anartean hasi ginen bilaketak egiten. Bilatu dugu AEBetaraino, eta Irlandaraino, kontaktu zenbaiten bidez. Baina ez genuen sekula ere aztarnarik aurkitu.

### Eta?

Indarra hartu zuen hipotesia da poliziak harrapatu zuela, zeren lau orduren buruan fiskaltzak jendarmeriari auzia kendu, eta ezarri zuen polizia judizialaren eskuetan. Bitxikeriak ere izan ziren, berri faltsu zabaltze batzuk. Ez, beharbada, poliziaren aldetik etorriak; ez denak. Gertatu ziren berri faltsu horien hedatzeak guri bitxi iruditu zitzaizkigun. Zurrumuru horietarik batzuek pentsarazi ziguten ez zutenez gure laguna harrapatu, edo tirokatu. *Popo* ez zegoen armatua, hori segurtatzen ahal dugu. Beste hipotesirik ere izaten ahal da, leku hartan bada urmaelik asko... Halako batean erori zen, edo ez. Une honetan sendaezinezko zauri bat da *Popo*, oraindik ere.

### Hautetsi izana zaitugunez, urte hauetan egitura berriak altxatzen ikusi duzu, Euskal Elkargoa, Euskararen Erakunde Publikoa...

Erakunde horiek borrokaren ondorio izan dira, nolabait. Eta IK-k eraman duen borrokaren ondorio ere bai. Baina guk ikusi ez genuen zepoa da hori: frantses sistemaren barruan gara beti, eta, hor, “elebitasuna” da lelo nagusia. Eta Ipar Euskal Herrian ez da elebitasunik batere! Batere ez! Zer dute elebitasuna? Euskaraz dena ere frantsesez ezartzea!... Hori miresgarria da. Gaur egun Euskararen Erakunde Publikoak bultzatzen duen politika hori da. Euskaraz bakarrik zegoena ere, gorde genituen gure eremu zaindu horiek ere frantsestea. Hori ez da elebitasuna, hori diglosia da. Nahastu egiten dute, nahitara, Euskal Elkargoan eta Euskararen Erakunde Publikoan. Elebitasuna da bi hizkuntzak guztiz eskubide eta baliabide berdin-berdinak izatea, gehi atzerago den hizkuntzaren hobesteko laguntzea. Hori da elebitasuna.

### **30 urteko borrokak, politikoak-eta, ekarri duena.**

Eta balio du borrokak ekarri duen horrek, baina jakitez horrek badituela bere mugak. Urrats txikiak egiten dira politikan. Onartzen dut, gaur egun gehiengo politikoa ez dela abertzalea. Hori da egoera soziopolitikoa eta ez da egiten ahal hori ez balitz bezala, bistan dena. Politikak errespetua ekarri dit, ikasten da besterekila lanean. Garai batean baziren bi mundu, elkarrekin ibiltzen ez zirenak: hautetsi ziren abertzaleak sartu direlarik hautetsi frantses sistemaren aldekoekin, gauza batzuk aldatu dira. Bata bestearen ikusmoldetik ikasi eta onartu dute batzuek eta besteek. Eta, demagun, Zuberoan, lan egin dugu euskararen bultzatzeko, eta ez baginen hor izan, ez zen egina izanen.

### **Nola ikusten dituzu Zuberoatik Euskal Herriaren beste bi administrazio entitateak, EAE eta Nafarroa?**

Eusko Alderdi Jeltzaleak EAEn daraman kudeantza ez dut batere txarra antzematen, salbu gauza batean: ez dut ulertzen zergatik, eta alderdi abertzaleek dutelarik gehiengoa, nolaz ez duten printzipioz ezartzen autodeterminazio eskubidea. Hori ezin da saihestu. Hori erraten ez duteno, besteek autonomista deituko dituzte. Hori seguru! Autodeterminazio eskubidea ofizialki ez aldarrikatzea akats handia da.

### **EAEn hitzean eta hortzean harturik dabilta beti “autogobernua”.**

Ez da batere gauza bera. Autogobernuak erran nahi du estatu-nazioa ez duzula auzitan jartzen. Autogobernuak ez du gaur egungo Europa eredua auzitan ezartzen. Autodeterminazioak bai. Autodeterminazioak erraten du beste Europa bat behar dela, Europa federala, autodeterminazio eskubidea onartuko duena; eskatzen duten herriei, erran nahi dut, eta badakit batzuek ez dutela eskatuko.

### **Zure iduriko, euskaraz ala elebitan izan behar du dena delako Euskal Herriak, dela autogobernatu, autodeterminatu nahiz independenteak?**

Onartezina da tolerantziaren izenean euskararen kontra egitea. Tolerantzia da, ez bakarrik euskarari eskubideak aitortzea, baina arabera baliabideak ematea. Gaur egun, iduri du “tolerantziaren izenean”, ez dugula deus galdegin

behar. Eta ber bidetik ari gara Ipar Euskal Herrian. Intolerantea da erratea: “Mezu hauek euskaraz ziren, eta euskaldun munduari zuzenduak ziren, eta nahi bazenute mundu horretan sartu, euskaraz ikasi behar duzue!”. Eta kito!

### **Baina behin ere ez baita “Eta kito!”.**

Badakit ontsa nik hori. “Ez, ez, elebitasuna!”, diote, baina faltsua da hori. Diglosia nahi dute, betikoz! Gaur egun, euskararen mende ziren eremuak ere diglosiaren mende jartzen ari dira, eta onartezina da. Eta pastoraletan ere ageri da hori. Bide horretan aitzina, egunen batean, pastoral batean ariko diren hamarretarik zortzi erdaldunak izanen dira. Pastorala euskaraz emanen dute, ikasiko baitituzte bertsetak eta kantuak, baina ez da besterik izanen. Makurtzen ari gara euskaraz ez dakitenen egokitzera. Eta ez da hori bidea. Euskal Herri bat izan behar bada, euskalduna behar du izan. Ez baldin bada Euskal Herri euskalduna, beste izen bat eman diezaiozun.

### **Iparretarrak (IK)**

“Ez dugu inoiz jakin zenbat militante ginen. Badira zifrak, baina ez dira guk emanak. Poliziak erraten zuen IK-ko komandoko kide bakoitzaren inguruan bospasei militante bazirela. Eta nonbait han ziren. Zifra hori atera zuen gure kontra borrokatzen zen edo Frantziaren zerbitzuan zen Charles Sanz kapitainak, gero koronel bihurtu zenak. Aita, espainiar errepublikarra zuen, gerla denboran Frantziara ihes egin. Maule-Lextarreko jendarmerian egon zen, eta, ondoren, ikerketa zerbitzuko buru bilakatu zen. IKren atzetik ibili zen jardule nagusia! Donibane Lohizuneko emazte batekin ezkondua zen, koinata abertzalea zuen... Hau txiki da, hau Ipar Euskal Herria da! Nik ere, jendarmeria nuen osaba!”.

### **Frantses sistema**

“Lau mila bizilagun biltzen dira pastoral batean. Eta egun hartan euskara asko entzunen da, baina biharamunean gauzak berriro frantses sisteman sartuak izanen dira. Ez gara frantses sistematik atereak. Euskaldun izatearen harro direnak ere, beren iritzian euskara biziarazi eta indartu nahi dutenak ere, une batean, ez dira urrunago joaten, frantses sistemaren barruan geratzen dira. Eta frantses sistemaren barruan, goiz edo berant, euskara desagerraraziko da”.

## ETA-ren ikuspegiaren kontrakoa

“Ni IKn sartu nintzen ordurako, erabateko haustura egina zuen ETArekin. IK-k bere ekintzak bere kabuz egin zituelarik, eta berak sinatuta, eta bere argudiaketarekin, ETAk erran zuen: ‘Batere ez dakit gazte hauek zer ari diren!’. Ni erabat ETArekin kontrakoa nintzen, eta naiz. Ez ETArekin borrokaren kontrakoa, hala ere, ETArekin jokamoldearen kontrakoa, ETArekin ikuspegi totalitarioaren kontrakoa baizik”.



## **LEKUKOTASUN BATZUK**



*“Aunitz maitte duenak aunitz sofritzen du”*

**Iker Aranburu**

Berriako kazetaria eta Allanderen lankidea

Egunkariaren garaietan

Antzinako garaietara itzuli behar izan dut Allande Sokarrosekin izandako lehen harremanaz oroitzeko. Antzinakoa ez soilik 1990eko hamarkadaren hasiera izan zelako; antzinakoa, batez ere, orduan kazetaritzan erabiltzen genituen tramankuluetako batzuk antzinakoak direlako gaur egungo begiekin: idazmakina, faxa, teletipoetako aparailua, eta Internetik gabeko eta pantaila beltzeko konputagailu geldoak. Tresna horiekin saiatu ginen Allande eta biok *Euskaldunon Egunkariako* ‘Estatuak’ saila aurrera eramaten, 1991ko udatik aurrera. 21 urte bete berritan, bekadun gisa egindako bi hilabeteak ziren nire esperientzia bakarra; hutsaren parekoa, alegia. Allande, ordea, kazetaritzan aritua zen aurretik ere, eta hark emandako patxadak lana asko errazten zuen.

Paternalismorik gabe, beti errespetuz eta berotasunez, telefono elkarrizketa luzeak izaten genituen, egunero gure esku zeuden bizpahiru orriak nola bete erabakitzeke: Aturritik iparralderakoak (eta Barkoxetik ekialderakoak) haren esku, Ebrotik beherakoak niretzat. Teletipoen laguntza nik, irratiak eta frantses egunkariak hark, aktualitateari tenperatura hartu eta *Egunkariako* irakurleei modu ulergarri batean eman nahian. Hasierako urteetan haren testuek ahal zuten moduan egiten zuten Zuberoaren eta Andoainen arteko bidea: faxez eta eskuz idatzita normalean, baina batzuetan baita telefonoz diktatuta ere, Mendikotako Sü Azian edo Xiberoko Botzan makina ez zebilenean.

Urte mordoa aritu ginen eskuz esku, Estatuak saila Europa bihurtu arte bederen. Harengandik asko ikasi nuen Frantziatz eta klase politikoan hain errotutako frantses jakobinismoaz —“Oh, Iker! Hori benetako frantsesa da!”—; baina, batez ere, asko ikasi nuen Ipar Euskal Herriaz eta bereziki Zuberoaz. Hegoaldean garai hartan hain zabalduta zegoen mistizismotik urrun, pastoraletatik eta maskaradetatik harago dagoen lurraldeari zion maitasuna erakutsiz, bere argilun guztiekin.

Amaitu zen aro hori, elkarrekin lan egiteari utzi genion Allandek eta biok, baina eguneroko harremanak sortutako adiskidetasunak jarraitu egin zuen. Lehen eguneroko harremana zena tartean behinekoa bihurtu zen, eta lanean oinarritutakoa izatetik, mendizaletasunean errotutakoa izatera pasatu zen.



Harekin mahai baten inguruan biltzerik ez zegoenez —nik behintzat ez nuen lortu—, Zuberoako muinoetan, basoetan eta herri arteko bideetan elkartzen ginen tartean behin; baten eta bestearen berri ematen, zubereraz hau eta bestea nola esaten zen entzuten, eta politikari erreposoa egiten, beti jakin minez baitzegoen gauzak nola ikusten genituen mugaz bestaldeko kontaktuek.

Hegoalde eta Iparralde arteko zubi izateko gogo horrek Gipuzkoako eta Nafarroako mendietara ekarri zuen Allande, eta haren atzetik Bortukariak Zuberoako mendi taldea. Kuadrilla bitxia eta bizia; euskaldunak batzuk —aupa Christophe—, frantsesdunak beste batzuk; abertzaleak eta frantximentak ... eta ingeles bat edo beste. Ahaztezina izan zen entzutea Jojo zuberotarra eta Tolosako Eguzkitza sagardotegiko nagusi zaharra elkarrekin bakoitza bere euskararen elkarrekin lasai asko hizketan; hamaika lelo eta manifestazio baino eraginkorragoa euskararen herria egon badagoela eta gure txokoa baino zabalagoa dela uste dugunontzat.

Izan ginen Hernion, izan ginen Aizkorrin, eta Mailopean bizi garenon ganbara handira, Aralarrera. Baraibar eta Lizarrusti arteko bide luzean entzun genituen Allanderen adar jotzeak, hitz joko kaskarrak eta politikari abertzaleen inguruko iruzkin maltzurak ere bai; oker ez banago Xalbadorrek esan zuen "Aunitz maite duenak aunitz sofritzen du"ela, eta esango nuke esaldi hori bete-betean zegokiola Allanderi.

Eta egiteke geratu zitzaigun beste mendia, Beriain. Neurri batean bizitza bezala den mendia, zabala hasieran, eta helmugara iritsi ahala, estuagoa, amildegi latz batekin alde batera eta bestera. Hara igo gabe amaitu zen Allanderen bidea, nahiz eta gutako batzuen gogoan oraindik han dabilen, bere txapelarekin, mutiko gaiztoaren irribarrearekin, eta mingain aldi berean gozo eta aldi berean zorrotzarekin.

Ez adiorik Allande, eta eskerrik hanitx.

## “*Eta maita Herria üken dezadan plazera*”

Jean Mixel Bedaxagar

*Sü Azia elkarteko lehendakaria*

2021eko abentü hatsarrean, Allande Socarrosen heriotzeak izoztü züan Eüskal Herri osoa! Bat-batetan, nehor ere debeiarazi gabe, maite zütüanek eta lür hontako lankei güziak saihets ützirik, etxebartar adiskidea Bostmendietan gora, hantxen harat orozbakoz joan zaigüla. . .

Berak zion 1978an Sanferminetako gatasketan eüskal kontzientzia iratzarri zeiola, gü ere han gainti ginelarik, bena ez güñüalarik orano algar ezagützen. Denbora haietan Jean-Louis Davant eta Ttittika Rekaltek süstatzen zütüen Eüskal kültür asteak Züberoan, Bedaroa alkartearen üngürüan. Erraiten ahal dügü ordüan zirela hasi züberotar gazteak eskualdüngoari lotzen. Uztaro eta Ühaitza alkarteetako Jean-Louis Davant, Frantxoa Hastaran, Maddi Oihenart, Gonzalo Etxebarria eta hainbat lagünekin, Ziunta «Pista joküa»-ren züzentzale izan zen Allande, hau zelarik Züberoko herri eta bazterren üngürüan 1997an eraiki joküa.

Gure herriaz handizki maitemindürik, eta haren alde borrokatü nahian, lagün andana batekin, IK erakundean sartü zen. Militante sühar bezala atxi-lotü züen 1989an. Pariseko La Santé presontegian jasan züan kartzelaren zigorra. 1993an, azkenean, bakea eman zeioen. Berantealat kontatzen zaizkün hanko oren latzak, haatik, zombait aldiz omore leinürü batekin. . . Hantik harat, Maulen kokatü zen, eta eüskararen sailari osoki lotü.

### Eüskara jalgi hadi plazara

Etxebarreko haütetsi izatez, Allandek Züberoako Herri Alkargoan (egitüra ohia) lehendakaritza ordea ardietsi züan. Ordüan züan bai gure gizonak bere jakitate eta eüskararen joria zügünki lankider hedatü, elebitarzünaren Herri Alkargoan sarraraztez. Bai eta eüskara teknikalariak hüllantik jarraikitzez eta aholkatzez ere, bereziki ützülpentan. Eüskarriak ere ützültzen zütüan, bideetako seinaleetikak zühürki adelatzen eta zabaltzen, iragarki desberdinak

ere haren esküetarik igaraiten ziren inprimatü gabe, hala nola herriko besta, Pastoral ala edozoin jeietako afitxak. Halaber Herriko Etxeetako ützülpentak oro: agiantza eta berri arruntak bai eta urteko aldizkari eta beste.

Alkarte mündüan ere, arraina hurean bezala zabilan Allande. Bereziki Xiberoko Botzeko behazale kartsüek egürükitzen züen arrahenki haren "Egün bat hitz bat"! Eta ez da erraiteko baizik, ez nüan haren heriotze berria jakinik baizik, non eta irratiazen bidez entzütän düdan : «Nik exi goraintzi erran izozü!» (*nik exi delarik ene partez xiberotarrez*) Agitzea ere... Eta hortan zen Allanderen gano miresgarria: hura Ahüzükiko ütürrik bezala, hitzak ahotik jelkitzen zeitzaion! Gure kantütégiko altxorak ere Beñat Larrorirekin jorrazten zütüen, orai kasik ahatzerik diren erranaldiak eta hitzak berriz arra-oritaraztez. Aisantzia bat ere bazüan erranaldi gordeen edireiteko eta aztertzeko.

Ximun Uthürraltekin ere ibilaldi aberasgarriak egiten zütüen, Zübero osoa hanitxetan zeiharkatürrik ezin atertüzkoa beitzen, haatik, olhalte ala lekü ize-netan, gisa berean herri eta etxalte izenetan.

Bortükariak taldekoek ere, nola ez, Allanderen pazientzia, jakitatearen partekatzeko gusta eta izpiritü zorrotza peretxatzen zütüen, Zübero eta Baxe Nabarrako bazterrer gainti.

Sü Azia alkartearen xedea hatsarrez eüskarazko argitalpenen süstengatzea beita, sail hortan ere amiragarria izan da gure adiskidea. Inprimatü aitzin, obra bakotxa zügünki miratzen züan, bereziki idazkera, ttittadüra etb. Holaz, libürü horik agertü ziren: *Aita Artzain zen* (Panpella Etxebarnekilan batean), *Hiztegi Tiipia* (Allande Socarros, züberotarretik eüskara batualat), *Züberoko egünaria* (Allande Socarros), *Xiberoko xendak* (Allande Socarros), *Züberoa Herria* (Jean-Louis Davantekin batean), *Aitzina Pika* (Jean Mixel Bedaxagar), *Pastoralen Gerla* (Marcel Bedaxagarrekin), *Bizi simple bat* (*Battittu Coyos*), *Liginaga Astüe 1937an* (Allande Etxart). Berriki, 2019 urtean, *Maule Lextarre* libürüxkan parte hartü züan ere, Asisko Urmenetaren kidegoarekin marrazkietan, eta azkenik, Marcel Bedaxagarrekin, arauz denbora batentako baizik irauntü den Pod Cast emankizünean, zointan zübereraren mintzamena eta ahozkatzea süstatzen beitzüen.

Basabürü eta Pettarreko bizzate kültüralaz gain, Allande beste egitüra andana batetan partaide zen izan dadila Baionan edo Hegoaldean.

### Baionatik Bilbora

Kazetalarigoan, lehen berriketak *Zeruko Argia*-n kolaborazale gisa egin zütüan. Ondotik, Pello Zubiriaren denboran *Egunkaria*-n, bereziki nazioarteko

sailean, baita *Argia* eta *Jakin* aldizkarietan, berantago *Berria* egunkarian. Iparraldean, *Herria* astekarian ere irakurgeti ziren haren Züberoko kronikak, Iparraldeko batuaz eta zübereraz.

Euskara “plaña”, beste euskalki zonbait eta batua errotik menperatzen eta idazten balin bazütuan, frantses erdaraz ere alabadere zirrikazale zen gure gizona! 2016az geroz haren webgüinean edirengari zelarik “Hitza Pitz” kronika. Besagainka eta ahoan bilorik gabe jorratzen zütuan Iparraldeko aktüalitate politikoa, institüzioeak bai eta bürüan ez zütuan erakunde politikoak. . . Prefosta, nahiago beitzütuan goraiapatü borrokalari lagün ohiak, eta nolaz ez kartzelan ezagütü korsikar adiskide minak. Jakin behar da ere Korsika zela haren bihotzeko bigerren lürraldea.

2018ko ütztailan, Philippe Etchegoyhen, Marcel Bedaxagar eta nihaur, üsätü bezala algarretarätüririk ginelarik, Allande agertzen zaükü izigarriko txestü honean “Ez dakizüe berria? Euskalzain ürgazle nük!” erraiten deikü. “Au secours . . .!”<sup>1</sup>. Eta han baratü ginen lauak erri karkabilotsez. Beraz, goraxago erran bezala, Euskaltzaindiarentako lan andana bat eraman züan. Züberoko lexikoa lantü züan alde batetik, bai eta lau batzordetan erauntsi, hala nola *Euskara Batua*ren *Eskuliburua*-ren idazteko lanetan 2017-2021 urteen artean, edo Onomastika batzordean. Hortaz gain, euskara batuan azken 30 urteetan izan diren lerratze, okerreria edo düda zonbaiten xüxentze eta argitze lanetan erauntsirik zen, Euskara Eskuz Esku xedearen baitan 2018-2021 urteen artean. *Jakin*-en berriz “Agosti Xaho, laiko eta ezkertiarra, kristaudemokratek eta eskuindarrek omendua” artikülüa idatzi züan 2003an, eta mendebalde.eus-en “Züberoa mitoan ezaguna, errealitatean ezezaguna”, 2007an. Azkenik, Allandek “Ipar Euskal Herrian, euskararentzako erronka berriak” geiaren üngürüan parte hartü züan 2017an, Euskaltzaindiaren Jagon Jardunaldietan, Battittu Coyos zelarik gai eramaile.

Erran gabe doa zerrendatto hau ez dela aperentziarik ere osoa. Holako ibilbidea begistatüririk, edonork aisa entelegatüko dü ez dela halako üngürüko jakintsün bat egünetik biharamüneala aisa ordezkutzen ahal.

Aita Junes Cazenave eta Jean-Louis Davantekin Allandek, segür ere, lehenik ezagütü, eta gero lan kostüz hazi züan zübereraren gain-gaineko enjogidüra hori. Zonbat nahi trebe eta etxekirik izanagatik beste euskal mintzadarrer, Züberoan, züberotarrekilan zelarik, bat-batetan lehiatzen zen hain maite züan

<sup>1</sup> Ürgazle: Euskaltzaindiako kide izateaz gain, «secoureur» zentzüa ere badü.

eüskalkialat! Haren mintzoa, hiztegi aberatsa, "rr" eta "r" horien erabilteko manerak, bizi gireno arantüren dira gure beharrietan...

### **Eta orai?**

Allande ontsa ezagütü dügünek, erraiten ahal dügü ttipitik xühürki bizitzera üsatürük zela. Ez zen segür gizarte kontsümoko mündüan zahartzen, nahiago zütüan lagün beharrünantenak süstengi edo erosketen egiten lagüntü. Ardürenean hoinez bazabilan, botüra edo autoa ez züalarik behar ordü gorrietan baizik erabilten, hala nola, etxondoalat edo Baionarat joaiteko, eta orano, noiztenka baizik. Gure gizonaren egün oroztako akodiña goxoenetarik bat zelarik, bere aüzüneko adiskide hüllanenekin (haboroxeak andereak), ühaitz bazterreko gatü, ez sobera dohakabeen bazkatzea!

Igaran abentüko berri latzetik landa aski goibel izanik, orai, belhixetan ari gira. Gure bidealdi lüzeetan, holako nahigabeak ügari izan dira, eta beti hor gira... Beraz, geroari begira, mügerki bühürtü behar dügü, eta egingeak arraplazaratü arraheinki.

Egürükantxa iparroratz, lerra giniro kobla hau: "Lagün erortean, hire leküan lagün bat itzalpetarik agertzen da...".

## *Kazetari eta gogoetari*

Eneko Bidegain

*Mondragon Unibertsitateko irakaslea*

Beste hainbat etxetara bezala, gurera ere heltzen zen *Ekaitza* astekaria, bereziki Euskal Herri kontinentaleko giro politikoaz eta gertakariez ari zena. Artikuluak ez ziren izenpetuak. Izen-deitura bakarra zen ageri zena, bazter bateko lauki batean, legeak behartzen zuen bezala: Allande Socarros, argitalpen zuzendaria. Nerabea nintzen, atxilotu eta Iparretarrak erakunde armatuko kide izateagatik preso sartu zutenean. Geroztik, artean ezagutzen ez nuen kazetari haren izena gehiagotan entzun edo irakurri nuen, auzi gehiago izan zituelako, aldi haietan, astekariko zuzendari gisa.

*Ekaitza* astekariak zenbait auzi izan zituen argitaratutako artikulu batzuen harira, hautetsi edo polizia batzuek jarritako salaketen ondorioz. Astekariaren lege ordezkaria izanik, hura izaten zen auzipetua eta epaileen aitzinean erantzun behar zuena. Bere gain hartzen zituenak ez ziren, ordea, bere erabakiak eta bere ekintzak. Funtsean, ez zuen zuzendaritza lanik egiten, astekariak ez baitzuen zinezko zuzendaririk. Erabakiak taldean hartzen ziren. Egin eta erabakitzen zena erabakitzen zela, Allandek bere gain hartzen zuen, auzitara eramaten bazuten.

Astekariak erredakzio talde bat zuen, gehienbat boluntarioek osatzen zutena, eta bizpahiru langile zituena. Allande Socarros boluntario haietako bat zen, Maulen bizi zena. Astekariaren egoitza Baionan zen, bilerak han egiten ziren eta astekaria ere han osatzen zen. Han egin nituen kazetaritzako lehen urratsak. Allande Socarros ez nuen berehala ezagutu, papereko zuzendaria noizbehinka baizik ez baitzen joaten Baionara bisitan, eta –eskuz– idazten zituen artikuluak fax-ez igortzen baitzituen.

Han lanean hasi nintzenerako, Allanderen izena beste hedabide batekin ere lotua nuen, *Euskaldunon Egunkarian* ari baitzen lanean. 1990eko abenduaren 6an atera zen astekariaren lehen zenbakia, eta lehen zenbakitik hasia zen egunkari hartan lanean. Baionako erredakzioko lau kazetarietako bat zen, Luzien Etxezaharreta, Jaki Lautre eta Xan Goenagarekin batera.

Aski laster egin nuen *Ekaitza*-tik *Egunkari*arako aldaketa, ordezkapenak egiteko. Baina, ordurako, Allandek Maulen egiten zuen lan. Batzuetan etortzen zen Baionara, bilera nagusiren bat izaten genuenean. Ez da lan erraza kazetaritzalanak erredakziotik kanpo egitea, taldearekiko zuzeneko loturarik gabe. Are

zailagoa zen Internet oraindik zabaldu aitzineko denboran. Alabaina, egunkari bateko lana da egunero harremanean egotea erredakzioarekin, eta eguneko berri freskoenen berri biltzea, biharamuneko papererako idazteko –hori, *Egunkariaren* garaiko urteetan, gero berrien zirkulazioa azeleratu baitzen–. Allande Socarrosen kazetaritza-lana etxetik egindakoa izan da, gehiena. Denborarekin, komunikazio teknologiak hobetzen ikusi zituen, eta horrek hainbat lan sinplifikatu zituen.

Bereziki Frantziako eta Frantziaren menpeko herrialdeetako berriak idazten zituen, hastapenean “*Estatuak*” izeneko sailean. Alabaina, *Egunkariaren* lehen urteetan, “*Estatuak*” eta “*Nazioartea*” sailak bereziak ziren. Euskarazko egunkariak berritasun bat ekarri zuen, hala ere; beste egunkari batzuek “*Estatua*” saila zutelako, hots, Espainiako berriak ematen zituen saila. *Egunkariak*, gisa hartan, azpimarratu zuen Euskal Herria ez dagoela bakarrik Espainiaren menpe.

Handik urte gutxira, “*Estatuak*” saila desagertu zen, eta Frantziako eta Espainiako berriak, munduko beste edozein herrialdeetako berriak bezala, nazioarteko sailean sartu zituzten. Aldaketa haren ondotik, Allandek munduko edozein berriri buruz idatzi zuen. Baina, “*Estatuak*” sailean hasi zenean bezala, beti arreta handiarekin jarraitu zituen beren askatasunaren alde borrokan ari ziren herrialdeetako berriak, oroz gainera Korsika, Britainia, Kaledonia Berria, Guadalupe edo Martinikakoak. *Euskaldunon Egunkaria* itxi ondoren, *Berrian* segitu zuen lanean, eta munduko berri franko landu zuen: Quebec, Boli Kosta, Frantzia, Libia, Kosovo, Sri Lanka, Portugal, Errusia, Belgika, Korea, Txetxenia, Iran, Irak eta abar.

Allande Socarrosek, hainbat lankidek bezala, erakutsi zuen irakurleek posible dutela euskaraz munduko berri ongi ezagutzea eta gertakari horien erroak eta ondorioak sakonki ulertzea. *Egunkariaren* –eta geroago *Berriaren*– ekarpenetako bat izan da euskarari balio oso bat ematea, erran nahi baita, euskal irakurleei informazio osoa lortzeko aukera ematea, beste hizkuntza batera jotzeko beharrik gabe. Kontua ez baita euskaraz irakurtzea bakarrik, zer dela ere aipatzen dena, baizik eta euskara beste edozein hizkuntzaren mailan jartzeta. Eta, beraz, denetaz aritzea euskaraz.

Eta bere begiradarekin –hots, Euskal Herriko ikuspegiarekin– lantzen zituen gai haiek. Korsikako eztabaidak edo Belgikako gobernua osatzeko zailtasunak, adibidez, ez dituzte berdin ikusten Frantziako hedabideek. Horregatik ere, eta ez euskaraz irakurtze hutsagatik bakarrik, beharrezkoa ikusten zuen nazioarteko gai horiek lantzea. Hots, munduko berriak euskaraz irakur-

tzea hizkuntza askatasun bat izateaz aparte, askatasun politiko bat da herri honentzat.

Allande Socarrosek beti sutzuki defendatu zuen Euskal Herriaren askatasuna, eta, kazetaritza lan horiekin, hein batez, askeago egin zuen. Baina horrekin ez zitzaion aski. “Autonomia” zen Euskal Herri kontinentalarentzat eskatzen zuen neurri ttipiena. Kazetaritza lanak utzi zituenean, bere gogoetak idazten jarraitu zuen, blogetan bereziki. Gogoeta horietan, ahoan bilorik gabe kritikatzeko mugimendu abertzalearen azken urteetako bidea. Gogoeta horietan eguneratu zuen autonomiaren proposamena (urte batzuk lehenago Iparretarrak erakundeak aurkeztu zuena, zeinarenatik atxilotu zuten). Xeheki esplikatu zuen autonomia hura izan daitekeen autonomia mailarik gorenekoa litzateke.

Militantzia politikoan izan zuen ibilbideari buruz elkarrizketa luze bat egin nion duela zenbait urte. Kazetariak kazetariari, baina ez kazetaritzaz. Analisi politiko zorrotzeko militantea zen. Baina militantzia politikotik –eta nagusiki frantsesez funtzionatzen zuen giro hartatik– harago, euskarari eta euskal kulturari leku eta garrantzia handia ematen zion. *Berria* utzi ondoan ere jarraitu zuen Zuberoako maskaradei eta pastoralei buruz idazten, urtero. Halaber, mendizalea zen, eta Euskal Herriko irakurleei mendi ibilbideak proposatu izan zizkien, *Berriak* mendiari eskaintzen dion sailean. Xiberoko Botzan ere kolaborazio batzuk egiten zituen, zubererari buruzko podcast bat ere abiatu zuen.

Ez zuen huts egiten Sarako Idazleen Biltzarra. Gehienetan, egun hura izaten zen Allanderekin elkartu eta kalakan aritzeko parada ematen zuena. Baina ez bakarria. Hil aituzineko astean mezu bat idatzi zidan, euskaltzain urgazle izendatua izateagatik goresmenak emateko. Pentsatzen nuen gure bideak hor elkartuko zirela berriz. . . Beste elkarrizketa luze bat ere egitekoa nintzen harekin, oraindik kontatu gabeko istorio batzuei buruz. Eta kontatu gabe joan da. . .





**“Guk ez diogu gure historia inori zor,  
gubaurek egin dugulako”**

**Xan Coscarat**

*Ezker abertzaleko militantea*

*Erretretatua*

1985eko urtetik landa aski hurbiletik ezagutu nuen Allande. *Enbata* zen kaseta abertzale bakarra Iparraldeko gertakariak aztertzen zituen. Ikuspegi arras alderdikaria zuen, Iparraldeko gertakari politikoak desitxuratzen zituen eta guk hori ez ginuen soportatzen. Beste aldizkari bat ez ote ginuen plazaratu behar hasi ginen asmatzen, Iparraldeari leku osoa emanen ziona eta Iparraldeko ikuspegi batekin gauzak aztertuko zituen. Eta hor astero-astero elgar kurrutatzen ginen, elgarrekin eztabaidatzen ginuen. Eta emeki bada emeki, *Ekaitza* astekariaren lehen alea 1986ko apirilean agertu zen. Denen artean, zuzendari gisa, Allande hautatu ginuen. Garai hartan, astero, autobusez, Maule-Baionako joan-jina egiten zuen.

### **Allande: Kultur gizona - Xuberotar euskaltzalea**

Zuberotarra, Iparraldekoa eta euskalduna zen Allande Sokarros, Zubero eta Iparraldeko abotsa Euskal Herri osoan hedatzen zuena. Zuberoa izan du bere ibilbidearen ardatz nagusienetarikoa, herrialde horren garapena akulatze-ko lan frango eginez.

Kazetari, (*Zeruko Argian*, *Euskaldunon Egunkarian*, *Argian*, *Jakinen*, *Gernikan*, *Abil-en*, *Ekaitzan*) artikulu eta liburu askoren idazle, kulturzale, (maskarada eta pastoraletan aritua, Sü Azia elkartean parte hartzalea), euskaltzale, euskalzain urgazle, itzultzaile (Maule Herriko Etxeko dokumentuen euskaratzailea, EEP Euskararen Erakunde Publikoarentzat ere bai), Xiberoko Botzan ere hainbeste emankizun, baina hori guzia jada aintzek aipatu dute. Bizitza osoan, atxiki duen herriarekiko maitasuna eta euskal kulturarekiko engaiamendua agertzen dira lan guzi hauetan.

### **Allanderen ibilbide politikoa**

Berak zion bezala, lehen urrats batean, Mixel Labeguerie-rengana hurbildu zen «Euskarak elgartu gintuen». Eta ondoren Bayrourenganat joan zen,

han bide labur bat zentristekin egiten zuela. Gero, argazkigintzaren estakuruz, Hegoaldean partikulazki, 1978 urtetik landa iragan gertakariei hurbiletik interesatu zen. Ondotik, 1980an, Baionan Suprefeturaren kontrako atentatua prestatzen ari zirela, Txomin Olhagarai eta Ramuntxo Arruiz militanteen heriotzek ainitz hunki zuten. Orduan kontzientzia hartu zuen Euskal Herriari eskubide osoak ukatuak zizaizkiola eta Euskal Herria biziarazi behar zela, bertze militanteekin juntatzeko hautua egiten zuela.

1980ko garaia Iparraldean oso gogorra zen. Ikastolen borroka pil-pilean zegoen. MIACA egiturak (Akitaniako Kostako antolamendua helburu zuen misio interministeriala) proposatzen zituen turismo egitasmoak beldurgarriak ziren. Garai hartako hautetsi gehienak Euskal Herriarekiko axolagabe ziren, inongo euskal kontzientziarik gabeak, euskara zein euskal izatearekiko. Zer egin? Borrokan sartzea baizik.

Baionan Ezker Berri mugimenduan eta *Gernika* haien hilabetekarian kolaboratzen hasi zen. Besteak beste han ezagutu zuen Gabi Mouesca, berarekin berantago topo eginen zuela IKn.

1982-ko Baigorriko tiroketaren ondotik IK jendez berritu zen. Allandek hori zion *Ipar Euskal Herriko Hitzak* egin zion elkarriketza batean: «Nire bila etorri ziren. Tiroketa horiek jendea beldurrarazi zuten, eta batzuk urrundu egin ziren; baina beste asko buru-belarri sartu ziren, ni tarteko. Iparraldea Iparraldeko jendeak aintzinarazi behar zuen. Horregatik, ETAren sudur-sartzeen erabat kontrakoa izan naiz. Hemengoak hemengoek kudea dezatela. Garai gogorak ziren, ETAk IKri bidea tratatzen ziolako, baina ez zuen sekula lortu IKri bidea moztea... Guk ez diogu gure historia inori zor, guhaurek egin dugulako».

Herri Taldeetarik jende ainitz sartu bazen ere IKn, nik ez nuen Herri Taldeetan parte hartu, baina hala ere IKn sartu nintzen.

Borroka armatuak Iparraldean ondorio onak eta eraginkorrak ekarri baditu, arrazoi honengatik ekarri ditu: Herriko seme alabak ginen, laborari seme-alabak, burgesiatik zetozenak eta langileak.

Allandek hori beti erran du:

IK izan zen abertzaletasunaren esparru zabalena. Ezkerrekoa zela hura, eskuinekoa bestea? Ez dakit, ez zuen inporta, herriaren alde ari ginelako. Hori genuen helburua.

Nire borroka ez zen armatua izan. Klandestino baizik. Ni armarik gabeko sailean ari nintzan lanean: politikagintzan. Klandestino legala zara etsaia ezagutzen ez zaitueno, gero ilegal bilakatzen zara.

1989ko urtarrilean, atxilotu zuten, Mendikota herrian, paper batekin sakelari harrapatu zutelarik. Pariseko La Santé kartzelan sei hilabete egon zen. 1991an auzipetua izan zen, baina zigorrik gabe atera zen.

Bigarren aldiz, 1993an, Sarako prentsaitzinekoan, San Inazio lepoan arrastatua izan zen «20 urtez borrokan, Autonomia lehen urratsa askatasunaren bidean» IKren dokumentua prentsari presentatu ondoren lagun batekin.

### **Herri hautetsi**

2001ean Etxebarreko hautetsi hautatua izan zen, 15 urtez egon dena: «Ni abertzale bat naiz hautetsi, ez naiz hautetsi abertzale bat, ez ninduten abertzale naizelako hautatu, ni naizelako baizik».

2008tik 2017a arte Xiberoko Lurralde Elkargoan lehendakariorde egon zen, euskara, kultura eta ondarearen batzordeburu: «Besteak dira hurbildu abertzaleengana. Bide egin dezakegu abertzale ez direnekin ere. Jendarteak ez du harresien beharrik, zubiena baizik».

### **Autonomia lehen urratsa askatasunaren bidean**

Sarako prentsaurreko hortan IKren autonomia aintzin xedea presentatua izan zen, Iparraldean, ondoko Aberri egunean hedatua izan zena. Aitzineko hogoi urtetan abertzale mugimenduak eraman dituen gogoeta eta aintzina-mendu frango biltzen dituen dokumentu bat zen eta bestalde etorkizunari buruz itzulita zen proiektu bat aurkeztua izan zen. Lan horren bultzatzailetarik izan dela Allande, ez da dudarik.

Autonomiaren aldeko borroka izan da Allanderen egiazko aportazioa. «Autonomia asma dezagun» zion 2019ko Hitza Pitz blogean. Autonomia zenda-ko? Gure aferak eskuetan hartzeko, gure oraina bai geroa guhaurek finkatzeko, deliberatzeko eta egiteko ahalak eskuetan ukaiteko. Iparraldean, egitura horren ardiesteko eskubidea badugu eta honen ibilarazteko ahalak behar ditugu. Dena mugitzen ari den mundu huntan, euskal populuak bere leku osoa aurki dezan, egiazko autonomia bat federazio moduan antolatua den Europa batean ikus ginezake, kudeaketa klasikoaren gain lege egiteko ahalmena dituenak. Burujabetasuna berreskuratzeko bidean, hurrengo urratsa, autonomiarena izan behar luke. Bixtan dena, autonomia horrek egiazko herri proiektu politiko, proiektu oso, sinesgarri, ulergarri eta onargarri baten ekarle izan behar luke.

## Hitza Pitz bloga

2016an, bere hauteskunde karguak utzi eta berriz blogara jo zuen. Hitza Pitz blogak amnistia.net-en segida hartzen zuen. Hitza Pitz blogaren helburua libreki mintzatzea zen, pentsatzen zuelako, gauzen ez erraiteak edo ixilean uzteak, beldurrez edo konformismoz, adierazpen askatasunari uko egitea zela, izpiritu kritikoa suntsitzen zuela, erreflekzio eremuak mugatzen zituela.

Ideia nagusia hauxe zuen: pentsamendu eihartu batean kokatua den abertzale mundua inarrostea. Hitzari, eztabaidari lekua eman nahi zion. Abertzale mugimenduaren eboluzioak kezkatzen zuen. Ez zuen eskola emaile baten jarrrera erakutsi nahi, pentsamendu libre, kritika hobetzaile, gogoeta baliagarri bat plazaratu nahi zuen, nahiz batzuk bere gogoetak gaitzetsi.

## Gizona

Izpiritu librea, mendiko gizona, urratsez urrats «Bortükariak taldea berriz juntatu zuan eta Iparraldeko, Biarnoko, Nafarroako ta Aragoiko bortuak zeharkatu zutuan. Ebilaldiak antolatu eta izadiatz eta ondareaz zuan jakitate handia partekatzen zuen».

Irri egitea eta eginaraztea maite zuen. Berak zion: «Umorerik gabeko jendarte bat sekta bat da, egitura totalitario bat. Elkarbizitzarako arazoei eta totalitarismoari buru egiteko oinarrizko baliabide bat da umorea. Egun batez buru arinen batek murru batean zera idatzi zuen: "Borroka armatua egiazko borroka da"... eta guk erantzun egin genion: "Apo armatua egiazko apoa..."».

Errauste egunean, Beñat Espil adixkideak agurtu eta besteak beste hauxe zion: «Etxebartar seme eta iparreko anaiaren bizia ez beita beti izan lasaiezko ibai luze bat... ororen gainetik arraileriant handi bat beitzen, txirtoa maite zuan eta bere arrapru gogokoena "Herriak Bizi behar du" balin bazen ere, "Irriak bizi behar du" ezpainetan erria emaiten zeion. Apurka-apurka abertzaletu zen gure laguna. Osoki abertzaletu, egintza publikoetan nahiz itzalpekoetan parte hartuz... Denaren emaile, erdi biderik gabe... beti burua txut buhurtu eta etsai bakar bat ere ez da izan haren plegarazteko...».

## *Allande Socarros (1957-2021)*

Jean-Louis Davant

*Euskaltzain emeritua*

Allande Socarros euskaltzain urgazlea joan zaigu, hirurogeita lau urteak zituela. Abenduaren bederatzi arratsaldean, osteguna, ohean hilotz aurkitu du bere lagun batek. Zer gertatu zaio? Abenduaren zazpiko arratsaldean, asteartea, Allanderekin mintzatua nintzen telefonoz. Aitzineko egunetan, telefonoan ezin aurkituz, mezu hau posta elektronikoz utzia nion: «Ostegun arrastiri apa-lean Baionara lagüntüko naika, Euskaltzaindiaren gomendioan eginen düdan libürü aurkezpenela, hor *Ozaze Jaurgainean* idazlana presentatzen beitüt?» Beraz astearte arratsaldean telefonoz deitu ninduen erantzunez ezin zela etorri osasun arazo batzuegatik, nahiz larritasunik gabe. Behar ziren botikak hartzen zituela, egonkortasun bat bederen lortuz, eta poliki-poliki hobekitzeko esperantza zuela. Gainera Sü Azia elkartearen xedeak aipatu zizkidan. Beraz etsidurarik ez zidan agertu, eta ez nuen inondik ere asmatzen ahal bi egunen buruan hedatu beharra zen berri latzaren menturarik. Itxura guztien arabera, bihotzak huts egin dio, beharbada nekaduraz.

Allande Socarros Etxebarre udalerriko seme zen, Etxeberria baserrikoa. Etxebarre Zuberoa Basabürüko herri txiki bat dugu, ehun bizilagunez petikoa, Bosmendieta mendi kate ertainaren maldan kokatua, Larraineko bortu goratik hurbil, Ühaitza ibaiaren ezker aldetik. Horko etxe baten izena ezaguna zaigu Bereterretxen Kantoreari esker, altitudez apalena, Ezpeldoia, gaur Ezpeldoipea, Bereterretxen lauburu sonatua kasik atean duena. Haatik Allande Maule-Lextarren plantatua zen goizik, eta hor zendu zaigu.

Ama Mendibilekoa zuen, Mitikile udalerriko auzune batekoa. Beraz Allandek ez du sekulan eduki basaburutar batzuek pettarren, hots pettarren aurka duten aiherkunderik, ezen zuberotarron artean ere badugu normalki «manxei» buruz baliatzen dugun erran zahar bat, Montori Berorizeko paper zahar batetik berriki agertu zaidana: «Pettarretik – hots Beterritik – ez da horra – hots ez dator – aize honik, ez jente honik». Haatik Allanderi ama Pettarretik etorri zitzaion, niri aldiz Basabürütik, Altzaiko menditik. Beraz urguilu poxi batekin erran dezaket Allande eta biak zuberotar osoak garela. Ez dakit hortako ginen ote hain ongi konpontzen, bestalde politikan bereziki genituen diferentzia bartzuen gainetik? Baina beste arrazoinik ere ukan dukegu elkarlanerako.

Allande Socarros euskal politikan goizik sartu zen, hogeitatu urteetan, Mixel Labéguerieren inguruko zentristekin. Laster gogortu zen, bereziki hirurogeita hamazortzian Iruñeko San Ferminetan biziriko istilu bortitzen ondotik. Laster Iparretarrak edo IK erakunde armatuko atal politikoan sartu zen, Zuberoa eta Baxenabarre artean anitz korrituz. Laurogeita bederatzian, autoz bazabilela, bide kontrol batean paper baten ezin irentsiz gendarmeez atxilotu zuten. Auzi baten ondorioz sei hilabetez presoner egon zen Paris aldean, La Santéko presondegi famatuan. Laurogeita hamahiruan berriz atxiloturik, Parisera eraman zuten, baina epaileek han libre utzi. Azkenean Lizarra-Garaziko hitzarmenaren kariara, IK erakunde armatua gelditu zen deus erran gabe, eta gero ez zen berriz hasi.

Azken hamarkadetan Allande Socarros Etxebarre udalerriko zinegotzi egon da franko luzaz, ber denboran horko delegatu Zuberoako Herri Elkargoan, baita lehendakari orde, kultura saileko arduraduna. Azkenik Euskal Hirigune Elkargoan parte hartu du, haatik ez luzaz, azken udal hauteskundeetara ez baita berriz aurkeztu.

Bizi politiko aberatsa ukan du beraz, haatik aberatsagoa du kulturakoa, bai idazle bezala, bai animatzaile urratsetan. Harrigarri da zenbat lan egin duen eta eginarazi, nagusiki Zuberoan, baina Zuberoatik at ere ikusiko dugun bezala. Sü Azia elkarteko ekintzaile nagusia genuen. Ber denboran Euskarenen Erakunde Publikoan itzultzaile lanetan ari zen, eta horren idazki ugariak ere kontutan edukiz, Euskaltzaindiak urgazle hautatu zuen 2018ko uztailean. Kargu hori oso funski hartu zuen, lan akademikoetan parte hartuz gartsuki, bereziki lau batzordetan. Jadanik ari zen Euskalkien lan taldean (2013tik), eta Euskara Batuaren Eskuliburuan (2017tik). Izendapenaren ondotik sartu zen gainera Euskara Eskuz Esku egitasmoan (2018) eta Onomastika batzordean (2019).

Auzolan eta elkarlan horrek guztiak ez du ezkutuan utzi behar Allandek bere lumaz egin duena, idazle zinez emankorra eta ona izan baita berrogei bat urtez, bai zubereraz, bai euskara batuan, erakutsiz gainera praktikan euskara batua eta euskalkiak ez direla elkarren etsaiak, alderantziz elkar laguntzen dutela eta osatzen.

Lehenbiziko lanbidea fotografian zuen: gaitzeko argazki sortak baditu bilduak, eta ofizio horretarik kazetaritzara iragan zen. *Zeruko Argian* idazten hasi zen, eta gero komunikabide askotan parte hartu zuen, nagusiki *Euskaldunon Egunkarian*, *Argian*, *Jakinen*, *Berrian*, *Herrian*, eta Xiberoko Botza irratian. *Herria*

astekarian Zuberoako berriak usu ematen zituen zubereraz, bereziki maskaradenak eta pastoralenak, bere argazkiak lagun. Beraz kazetetan asko idatzi du Allandek.

Xiberoko Botza irratian ere lan asko egin du, bereziki hiztegegintzan, hala nola «Egün bat, hitz bat» sailean. Hitz galduen bila zebilen, lexikografian gaitzeko altxorra bilduz, hiztegilari sena eta jakintza idatziz ere agertuz *Hiztegi Ttipia Euskara Batua – Züberera / Züberera – Euskara Batua* liburuxkan (2019).

Beste libururik ere agertu du Allandek:

- *Ziberouko Egunaria*, XIX. mende bukaerako almanak bat (*Ziberoko Egünaria*, Sü Aziak 2017an argitaratua).
- *Xiberoko xendak. 36 ebalaldi Eüskal Herrian* (Xiberoa Herri Alkargoa, 2005). Bortukari eta mendizale handia zen Allande, mendiko ibilaldiak antolatzen zituen eta gidatzen, beraz bere esperientziaren berri ematen digu liburuxka horretan.
- *Züberoa Herria* (euskaraz eta frantsesez, baita euskaraz eta gaztelaniaz), Elkarlanen, 2013. Bien izenean eman zuen, baina berak hamarretarik zortzia eginez: nik Zuberoako historia laburra baizik ez dut hor idatzi.

Idazteaz besterik egin du Allandek Xiberoko Botza irratian eta Sü Azian: berriak, itzulpenak, zuzenketak, aholkuak, komunikazioa... gainera batzuen eta besteen arteko loturak eta sustapena, neurtzen ahal ez den lana, etengabea, eta hori guztia musutruk. Zer izan da mutil hori? Euskaraz ez dut hitzik. Frantsesez deitu nezake «*militant multicartes*» eta «*multipermanent gratuit*». Euskaraz halere erran dezaket Euskal Herriaren eta euskararen zerbitzuko jarri zela apez bat Elizaren zerbitzura joaten den bezala, eginbide horri emanek osoki, eta nahiz ez zen kristau fededuna, santu laikoa bezalako norbait izan dela. Berak ez zuen holako kanonizazio laiko ez eta laudoriorik onartuko, baina maluruski ezin dit erantzun.

Irudi hori ezin dut baztertu, azeta bat bezala bizi baitzen, oso apalki, xuhurki, ene iduriko pobreaki, bai jan-edanetan, bai jantzian (gorbata ez ttattarrik ez diot behinere ikusi). Ez zuen jaun baten itxurarik, ezta nahi ere. Bere buruari kasu eskasa egiten zion, ez dakit noiz debru lo egiten zuen, eta ni beldur bere lan erraldoiak leherturik joan zaigula.

Alta bada, ez zen pertsona triste haietarik, alderantziz, mutil alai zen, zirtolaria, ihakin eta imintzio egile trebea, maiz arrailerian eta txantxetan; ixtorio barregarririk bazuen ausarki zaku barnoi bezain kokillot batean, eta edonoiz



bat ateratzen zizun harrigarriki. Maskaradetako beltzerian ikus nezake trajeria-ko urdinetan baino seguruago. Eta bizkitartean erraten zidan pastoral errejent edo taula zuzendari lanetan hasteko gogoia zuela, holako guti baitugu, idazleak hogeit bat garelarik, Etxahun-Iruri mende laurden batez bakarrik egon ondoren. Gainera pastorala Zuberoatik at hedatzen ari zaigu, Baionan eta Nafarroa Garaian, zergatik ez Gipuzkoan? Noizko arren Txillardegi pastorala Donostian?

Allande Socarros langilea bezain lagunkina zen, maitagarria eta maitatua. Beraz horren bat-bateko heriotzak jende asko txunditurik utzi du, bereziki Zuberoan eta Euskaltzaindian. Galtze handia dugu, eta ez bakarrik Zuberoan: batetik euskaldun guztien arteko zubi egile arraroa genuen, bestetik Iparraldeak orokorki parte gutixko hartzen du orain Euskaltzaindian, langile mentsez, eta hor ere hutsune larria uzten digu Allanderen joaiteak.

Denak ezin erranez bukatzera noa. Gorago aipatu dut Allande Socarros ez zela kristau fededuna. Haatik obretan bide horretarik zebilen, ber denboran besteen sinestea gain-gainetik errespetatuz. Aita Junes Casenaveri atxikimendu handia zion, eta pentsu dut orain harekin dagoela Parnasoan. Hor ez dut zalantza ez dudarik, ezen azken epai eta jujamenduko arauak, San Mateoren Ebanjelioan agertzen direnak, ongi bete ditu, jende asko lagunduz, eman dezagun samariar onak bezala, oroituz samariarra heretikoa zela, gutienik zismatikoa. Guhauk edonori ber laguntzak eginez, erran dezakegu: ikus arte Allande, betiereko bortu goran.

## “*Militantziak bizitza hartü deit’*”

Beñat Espil

*Socarrosekin batera, Iparretarrak taldeko kide izana*

Allande Sokarros-etaz dütüdan oritzapenek aspaldiko aroetara eramaiten naüe... Urte eta urte behar izan da lagün honen maskorraren pean zoin nola-ko süak igiarazten züan denmendren bat bada ere ikusteko. Egiaren erraiteko, ez dakit norbaitek kausitü düanez bere maskorraren elkaraztea edo bederen erreskiñatzea, zütüan bihotzminak eta barne ausnarketak mihi püntalat ekarrazteko. Ondoko hitzetan, *Argia* astekariaren berriketariari egin zeion algarriketaren zati zombaiten bidez ohartüren gira bere ibilbide politikoaren aipatzeko ez zela hitzez zühür bena barneko sentimentüen agertzeko püntüan, atea hesten züan eta giltzatzen. Zoazte züen bidetik, heben ez da deüs ikustekorik!

Arren, Allandetaz, lehen-lehen oritzapena, leiho baten gibelean agertü zen begitarte bat date. Hola nola, lagün baten etxean, Euskal Kultur astearen antolatzen ari ginelarik, berrogei lagünetarik batek, ahapeka erran zeigün: «So egi-züe leihoaren gibelean norbait kukuxka ari zaigü!» Erran gabe doa segidan denak leiho hari so egin geneiola, jüsto ikusteko begitarte bat bertan desagertü zena. Bena segunda zombaiten bürüan izigarriko flash argi batek denak txütia-razi güntüan eta zoin lehentaka kanporat elkarazi. Erran behar da aro haietan, hede xuriek akudiña handiak zütüela abertzale bazter nahasle haien nolabait tinkatzeko edo pürü beren egingeietaz ahal bezain bat xehetarzün biltzeko. Bena gaü beltza zen, txakür herexarik ihon ere ez, bena ezezagün harek esküal-dea gük beno hobeki ezagützen züan, horkoa zelakoz: Etxebarrekoa. Etxearen jabeak erdi lasaitü güntüan erranez ezagütü züala, herriko seme bat zela eta bere ofizioa argazkilari zela. Balinba uste üken züala talde politiko baten bilkü-ran ginela eta bera Bayrouren alderdikoa izatez bere eginbeharra «Enbatak edo Enbata zikinak» deitü abertzale horien egitaten begixtatzea zela. Funtsean berak *Argiari* egin zeion algarriketan aitortzen züan bezala:

**Argia:** Ibilbide politiko aski bitxia duzu hala ere.

**Allande:** Bai. François Bayrou Departamenduko bozetan aurkeztu zen lehen aldian Paue-ekialde kantonamenduan bere taldeko kidea izan nintzen, 1977an. Michel Labeguerie ezagutu eta Pau aldera eraman ninduen: «Badago gazte bat Zuberoan politikan abiatu nahi dena, zentrista...» esan zion Bayrouri. Ez nekien holakoa nintzenik ere, nire burua ez nuen abertzaletzat alta.

Politika maite nuen. Abertzaletasuna laster heldu zitzaidan. Hegoaldean, 1978an, Irunen German Rodriguezen hilketan izan zelarik, argazki errepor-taje bat egitera joan nintzen Hegoaldera eta ezagutzen ez nuen errealitate politikoarekin egin nuen topo. Hegoaldeko egoera politikoa ezagutzeak egin ninduen abertzale. Ez naiz batere lotsa horretaz, ezta hori aitortzeaz ere...

Holaxe beraz abertzaletarzüna nola sortü zeion eta bi urte berantago, 1980an Iparretarrak erakundeko bi lagün hil ziren Baionan, suprefeturaren kontrako egintza bat prestatzen ari zirenean. Txomin Olhagarai eta Ramuntxo Arruiz güdülariren hiltzeak lazgarriko bihotz hunkidüra Iparralde osoan sorre-razi züan eta ondorioz honenbeste militante bultzatü sasiko güdükan sartzea. Allande horietarik zen.

Halerik ere hastapen hontan, Allandek, Bayrouren alderditik elki ondoan, bere argazki erreportajeak jarraiki zütüan eta Xiberoan izigarriko arrakasta eta fama hona züan *Egia* izeneko hilabetekarian idazten hasi zen. Hilabetekari hau gustatü zeion jaunkilloten egitate maltzürrek gaitzesten zütüalakoz eta Allanderi hügün zeion gaüza bat, maltzürkeria zen. Gainera ohartü zen ere idazteko jitea bazüala, arraileria gustüko züalakoz, bere ikusmoldea txirto fi hartan troxatzen ahal züala eta irakurleak bere idatziak botzik hartzen zütüala. Berantago, *Egia* hilabetekariaren idazleagoako kide zonbait, barne arrazu baten-gatik, üztera behartürik izan zelakoz, baratzen züenek builta jarraiki züen eta beste hilabetekari bat sorrerazi *Abil* deitüko zena. Honek ere bere bidea eginen züan eta Allandek, besteak beste, idazteko gano izigarria agertüko. Hari es-ker ziren hedatü Xiberoan aro hartako politikako lehen artikülüetarik euskara hütsean. Xiberoan diot zeren Allandek *Zeruko Argian* idazten züalakoz, Kul-tur asteetako egitarauak eta gaüaldien edükinak agertzen. *Bedaroa* hastapeneko alkartearen eta ondotik *Übaitzaren* bozeramailea bilakatü zen hots! Ondotik *Argian* honenbeste erreportaje bere izenpedürareki agartü ziren. Nola ez aipa *Euskaldunon Egunkariako* berriketaria izan zela eta ondotik *Berrian* ere artikülü andana bat idatzi züala. Ororen gainetik, bere borroka eremüa euskara zen, ohartüa zelakoz Xiberoan, eta nolaz ez beste probintzietan, euskara galtzen ari dela, hilibide honen nolabait tratatzea zen bere egingeietan eta hau izan da bere bizi parte handienean bere borroka nausia: Euskal Herri euskalduna. Borroka bide hontan lillüragaltze hanitx bada, edo erdera gero eta geroago eztabadetan sartzen edo gero eta gehiago karrikan entzützen, edo egoera honi oldartzeko euskalzaleen indarrak ahülegi, edo Frantziako aministrazioaren mespretxüa, edo kartieleko ardüradün politikoen nagitarzüna, edo... Bena artetarik bedaro

zonbait ere badira eta nola ez aipa herri ttipiñi baten bühüreria jakobinoen eskümakilen bürrater? Herri ttipiñi hau, asmatürik dükezüe eta heltübada entzünik ere Etxebarre herria da. Bai, euskararen zaingoako «kürütxada» abiarazi düan Allanderen sorterrria. Arren, teoriatik egitate edo pratikalat, hola nola Allande edireiten dügün, pintseüa esküan, beste gaüko txori eli bateki, Xibero osoko herrien izena agertzen den sargiako zurezko taulen prestatzen: segatzen eta kolte bati itzatü ondoan, herriko izenak euskaraz tintatzen eta ber gaüaldian denak herrietako ateetan lantatzen. Erran behar da Frantziako aministrazioari bigabostetan galteginik izan zeiola gure herrietako izenak euskaraz jartea bena beti bezala, euskalzaleen galtoak, jakobinen lanoetan galtzen ziren. Arren, norberak ez badü egiten ez beita sekülan eginik izanen, abertzaleek beren gain hartü züen herriko izenen euskara hütsean agerrerazte. Bena etsaiak goaitan ziren, eta aski bertan, lantatürik izan ziren taula güziak ebatsi edo elki eta prefosta desegin zütüen. Güziak? Ez haatik, bat, lüzaz egon zen txütik. Taula hau Etxebarrekoa zen eta herriko altxor bat izan balitz bezala, Etxebartarrek zaintü züen, gaü eta egün. Etsaiak hüilantü ziren bai behin beno haborotan, bena taulatik hürrün baratü ere, zeren bertan ohartü beitziren taula hori hunkiz beren larrüa ere, hoinoihal gisa herriko atean ütüziren züela. Hilabete zonbait berantago, tinta galtzen hasi zelarik, taula hau, herritar gazteek berriz tintatü züen eta berriz lantatü ere. Azkenean, urte zonbait berantago, taula ofizialak ezarririk izan ziren... Ez da garaipen ttipirik! Gertaldi honen erakutsi züan züzentarzüenaren babesteko herri bat tematzen balinbada azkenean garaile dela. Hizkuntzaren arresküalatzeko garaipenak eztabadetan pizten zirelarik, ikasgei hau artetarik oriterazten züan Allandek. Gainera, bere sorterrian zen agitü, hain maite züan herrian eta barne-barnetik haren zati senditzen zen herri euskaldüean.

Euskara, euskararen berpiztea egünorozko bizitzan, Euskal Herri osoan euskaraz, betidanik Allanderen borroka bidea izan da eta beraz, erakasle behar gorrian zen AEK Xiberoko Gaü Eskolak, erakasle bolondres gisa behartü züan. Ez zen bi telefona dei izan beharrik. Hain xüxen, Jojo Etxebarne barkoxtar lagünak zion bezala: «Allandeki bai edo ez da. Ez dük erdi biderik!».

Haatik, ez zen iholaz ere erakasbide bat jarraikiko züan kide bat. Bagana-kian. Bena ez zen arrenküragarri ikas maila batetik aitzina, komunikazioa lortüa delarik, euskararen hobekuntzako ürratsa hartü behar delakoz. Eta kanpo-areki mintzatzeko, lotsa gaintitü behar da. Allandek, alde batetik ikasleak beren hizkuntza berrian fidantxa harrerazten kausitzen züan eta gainera euskara

hobetzen zeien (hiztegi xüxena erabilaraziz, aditz egokienak etb...). Ikasle eta erakasleeki mintzatüz, Gaü Eskolako nekeak ikusiz, hiztegi ttipi bat ere agerre-razi züan. Gisa batez Aita Junes Casenaveren ürratsak jarraikiz. Zeren, aita Juneseki harreman tinkoa züalako. Hona heben itzal handiko gizon hontaz zer zion *Argian* 1999ko agorrilaren Iean *Tantoa* deitü artikülütxo batean:

Idazle, gramatikari, olerkari, irakasle, landareen bitartez sendatzaile, la-saialdi kurtso emaile, apaiz... jarduera horietatik bakoitzak bizilagun arrunt baten bizitza erraz beteko lukeelarik, Junes Casenave-Harigilek, ordea, denak eraman ditu edo, hobeki erranda, daramatza gaur egun ere. Ezagutzen dutanenetik begikotasun handia datxikiot Junesi, langile porrokatua, abertzale suharra, zerbitzu emaile eskuzabala eta beste kalitate askotakoa baita. Junesek beste dohain bat ere badauka, hain zuzen irekitasuna, baita erlijio kontuei buruz ere. Ni sinesgabea naiz eta ez dit behin ere oharrik egin honengatik. Umoreduna eta jolasegile dela erranen nuke azken batez, eta honen argigarri pasadizo bat kondatuko dut. Landako herriak (Biarno), Puyredon pastorala eman zuelarik (1997), argazkitan hartzeko baimena galdegin genion eta, txiste modura edota arrailerian, pastorala oholtzako deabruaren aitzinean hartuta izatea proposatu geniolarik, berak baietz erran zuen. Ez dakit apaiz askok onartuko zuten bromaz jokatzera erlijioari lotutako gai batekin; Junes bai ordea, Zuberoan, erran ohi dugun bezala, arrailerianta baita. Luzaz irauin beza gure artean, lan anitzez betetako bizibide luzean!

Ontsa oritzen niz, nola ikastaldi batean, pista jokü batetarik landa, Gaü eskolako ikasle eta erakasleak loriatüririk ginen haier beha. Biren arteko konplizitatea ikusi behar zen hitz batetaz mintzatzen zirelarik. Erri karkaza bateki ürrentzen züan ondoko ikusbide hau Allandek bigabostetan aipatzen züan:

Aita Junes, segür zira septentrional iparretarrak ützüli behar dela?  
Baaaai! Boreal bezala: iparrean dena... Ordüan, iparretarrak hitz egokia da. Zer nahi den Allande, ez düzü ützülpn xüxenagorik edirenen...

Ez züan ez, gogoeta handirik eramanen beste hitz baten edireiteko, ützülpengintzak, artetarik, libertate osoan kurritü behar beitü eta segürtamen hau bi hoiek ontsa bazakien, beraz, üsüan erriño eta begi klixka batek eztabada güziak geldiarazten zütüan.

Bai, apez hau gogoko züan Allandek. Gogoko zütüan bezala «septentrional» taldeko kideak. Arren, Allandeki erdi biderik ez zelako, bere borroka bidea ez züan egiaztatzen ahal, denaren emaiteko prest ez balinbazen. Bertan

eraküntearen adar politikoaren taldean bere leküa hartü züan. Gibelsorik gabe, erreski aitortzen ahal da borroka bide argia ützi düala Iparretarrak erakün-te politikoan eta beraz Ipar Euskal Herriko hixtorian. Militante hanitxek bezala espetxeko bizi torpea ere ezagütü züan bai eta ere txakürren herra, beste kide eli bateki kateatürrik Parisera eramanik izan zelarik. Erakünteko kideek, Ipar Euskal Herriko egoera politikoa ontsa ezagützen züen prefosta, herriaren alaba-semeak izanez gero eta eztabadek hazirik, Ipar Euskal Herriak galdü düan nortarzüna-aren ardatz nausiak: lürra eta euskara, herria eta hizkuntza hots, ber- rriz esküalatzeko bideak ideki zütüen «Autonomia» deitü aitzin xedean. Eta hola nola, Hizkuntza eta Herria bi idiak ützarrian, pertika esküan, Autonomia aitzin xedea organ sartürrik, abiatü zen Allande unaia bere ondoan zoatzen honenbeste abertzaleeki, hazigarri zen (eta orano den funtsean), «Eraikitzen» taldean hontürrik izan zen eta aitzin xedetik xede osoalat egiaztatü züen honen- beste alkarteek, (sindikak, sozial saileko talde, kirol talde, kultur eta hizkuntza batzorde etb...) Ipar Euskal Herriko Autonomia, herritarren aurkeztera. Allan- deri galtegiten zeiolarik zer ote den autonomiaren bidean beste batean ez dena eta egün batez Euskal Herriko Iparraldeal heldüko denez, erantzüna bertan heltzen zeion:

Autonomia xede politikoa da, eskakizun zerrenda bat beno gehiago da, ez da errebindikazio katalogo bat. Frantziak autonomia honartu beharko du edo Europar Batasunarik (EB) ez da izanen. EBk izigarritzko kontraesanetan ezartzen du Frantzia. EB ere ez dugu gogoko, merkatarien Europa ez dugu maite, bena euskaldunek instituzioa dukegu, ez abertzaleena bakarrik, herri honen izaera politikoa honartuko duen instituzioa.

Haatik, nahiz eta Iparraldeko kuntra potere andana batek Autonomia xedea berenganatürrik izan, eta xede honen azpitudüan irakurten ahal: «lehen ür- r- tsa askatarzüna-aren bidean», Hego Euskal Herriko aro hortako nausikeriazko strategiari lotüak zitzeizkionek, ustekeria faltsüak hedatüz, ipar eta hego al- dekoen arteko güdüka politiko arrunt batetarik harat, itsuski lerratüz, orgaren iraularazteko, indarrak eman zütüen eta ororen bürü, nolabait kausitü ere... Geroztik Allandek, sare sozialeko «*Hitzapitz*» izeneko bere blog günean, es- külarürrik jauntsi gabe eta noiz nahi bere izkiribüen ondorioen arrisküak goai- tatüz, zorionez agitü ez direnak, jokütria edo manipulazio hoik, besteak beste, salatü behar zütüan... Alta Allandek Iparretarrak erakünteko militanteen gisa popülüaren askatarzüna-aren ikurra ez züan saihets etxekitzen. Hola nola *Argiak*

galtegin zeiolarik: «Militante politiko bezala non kokatzen duzu zure burua?»  
Hona heben zer erantzün zeion:

Ipar Euskal Herriko esparru politikoan. Baina hemengo borrokabideen alde tinko egoteak ez du ikuspegi nazionala ez dugula esan nahi, gure lehen-tasuna hemengo errealitateari lotua da. Aspaldiko militantea... Militantziak bizitza hartu dit. Ez dut deus ezkutatzeko. IKko militantea izan naiz. Agian, militante orokorrak izan gara horregatik, alderdi politikoen jardueraren gainetik. Eta horrek ez du esan nahi, IKn denek ildo bera edo bakarra defendatu genuenik.

Hala ere militante güzi horien begietan, argi, alkartzüna, anaitartzüna ikusten ahal zen eta mila bederatzü ehün eta lautanhogeita hiruko agorrilaren zazpi hartan, Landesetan, lagün horietarik baten herexa har eta txakürrek ihiztekatü ondoan... desagertü zen edo xüxenago izateko, balinba desagerrazirik izan zen. Zerbait berriren jakiteko nahian, urteak igaran ziren eta Allande bilatze lan güzietan zen. Egün arte, Popo Larre borroka lagünaren berri denmendrenik ez da izan eta ezinbeste honek zauri sendaezin baten gisa, beste lagünak bezala Allande mintzen züan.

Ipar Euskal Herriko egoera politikoaren aldaketek sasiko biziaren üztea ahalbidetü ondoan, erakaslegoatik ere apür bat baztertürük beste egingei franko züalako, halerik ere, üdako ikastaldietan, arrosa bat bezain fresk agertzen zeigün edo eztabada arrastiri aldi baten animatzeko edo ibilaldi baten egiteko eta bereziki izadiatzeko eta ondareaz zütüan jakitatearen partekatzeko. Zeren, ez da uste üken behar ordenagailü baten gibelean egünak eta gaüak xuritzen zütüala. Mendi eta bortüen gainti kurritzea gustatzen zeion. Nor nahik beno hobeki ezagützen zütüan; ez haietaz zerbait irakurri edo pantailetan ikusi züalako bena bai kurritü zütüalako, artzaineki harremanetan sartü, kartieleko jenteekei mintzatü. IGN mapa eskü batean, makila bestean, zaküa bizkarrean eta argazki tresna soinean zoan gure bortükaria. Orogen bürü hola deitzen zen hainbeste urtez parte hartü züan Bortükariak alkartean. Azken urte horietara arte, kasik aste ürrentze oroz, Xiberoan, edo Nafarroan, edo Biarnon edo Aragoian kurritzen zen, zelüa hunkitzen düen tinien gainti bai ta ere apalagoko mendixken zeharkatzen. Sail hortan ere bere jakitatea alimalekoa zen. Lekü bakoitxarentako bazüan hixtoriako herexa bat edo anekdota bat edo izadiak eskentzen deigün berezitarzün bat kontatzeko. Arren ez da harrigarri gure bortükariak ibilaldi libürüa idatzi balinbazüan: «Xiberoko Xendak. 36 ebilaldi Eüskal Herrian». Nola ez datean harrigarri ere segürtatzen balinbada

ibilaldi hoik oro esprabatü dütüala. Azken denboretan, nahiz eta noiztenka hatsalbo entzüten, Xiberoko Botzako mikroan, erreportajea beti ber ümore bizian egiten züan.

Mendi eta bortüetan laket balinbazen ere, sütondoan egoitea gustüko züan eta bereziki sü azien atitxatzea. Hola nola Xiberoko kultur sailean itsasargiak diren kide zonbaiteki Sü Azia alkartearen joanerazle bilakatü zen. Kultur sail-eko honenbeste hontarzün (kantoreak, müsika etb...) denen esküetara üzteko, Sü Aziako lagüneki, Allandek lan izigarri aberatsa egin züan.

Herri bat hizkuntza bat! Gustüko züan arraprua ikurra bezala hartüz, *Ziberouko Egünaria*, eta *Hiztegi Ttipia Euskara Batua-Zuberera* hontü züan eta Sü Azia-koeki argialatü zütüen. Lehenak hizkuntzaren aldetik aberastarzün izigarrikoa eskentzen dü eta hiztegi ttipia euskalkitik euskara batualat heltzeko zaldain bat izaten ahal da. Nahiz eta xiberotarrari zinez etxekia izan, bazakian Allandek honen eremüa hertsu dela eta egün batez, nahiz eta euskalkia komunikazio tresna bezala etxeki eta garatü behar, idatzia eta mintzamina euskara batuaz egitea beharrezko dela.

Ützülpen lan parrasto bat, gehienak ordaintürrik izan gabe, bere gain hartü züan eta Herri Alkargoa eta Aüzetxeetako idazki aministraziokoak euskara batualat moldatzeko behar gorria ikusten züan. Haatik, xiberotarrari, arau berrieki, izkiribüa baitezpada etxeki nahi zeion. Hola nola lan sail berri hontan, honenbeste pastoral libürü xüxentü zütüan eta ber ildotik doan Jean Louis Davant euskaltzaina Xiberoko hixtoriaren lantzeko behartü züan. Biek eta Christophe de Prada argazkilariak egin argazkiek apaintürrik *Züberoa Herria* libürüa idatzi züen. Egünko Xiberoa agertzea helbürüa züen eta ez hegoaldean hain gustüko düen Xibero mitiko bat. Hixtoria, kultura bere aberastarzün güzieki, üsaintxak, izadia eta ondarea, artzaingoa besteak beste lantü dütüe. Nahiz eta Allandek pentsatzen bazüan ere Jean Louis Davantek züala lansaila handiena bete behar, berak ezeztatü behar züan erriño batez, segürtatüz lan hontan Allande unaia zela eta Christophe de Prada eta bera idiak. Erraiten neizüelarik gizon honek unaiatik zerbait nabari bazüala...

Unai honek beraz, bere organ karreiatü düan beste haxe bat Iparraldeko instituzio berria izan da. Etxebarre bere herrian zinegotxi haütatü ondoan, Xiberoko Herri Alkargoan herriko ordezkari gisa sartü zen eta lehendakari ordari izentatü züen. Nahiz eta ontsa bazakien, Frantziako potereak herriaren küdeatzeko ützen dütüan ahalak ahülak direla, iseiatü da beste kideeki Xiberoko garapenaren azkartzea. Aski zale halerik ere lan sail hontaz mügak agertü zeitzon eta düala hogeü urteetako izan diren aldaketetaz bere abürüpena agerrerazi züan:



Duela hogeituro urteko eta egungo hautetsiak, frantses egituretan ari direnak, ez dira berdinak. Zuberoako esperientziak eta borrokak euskalduntasunaren aldeko giro bat ekarri du, ez du esan nahi behar diren baliabideak ekarri dituztela. Herrien Elkargoak ez du bitarteko politikorik, adibidez, euskararen aldeko politika bultzatzeko. Lan egiten du, baina askoz gehiago behar da. Alegia, giroa aldekoa da, baina aldi berean ohartzen gara euskara duela hogeituro urte baino kinka larriagoan dagoela. Karrikan gutxiago entzuten da. Ihardukitzerik gabe ez ditugu gure arazoak konponduko. Instituzioek ez dute arazoak gainditzeko eskuduntzarik, gogoetatzeko balio dute, hein batean, baina ez dute baliabiderik. Anartean zein da abertzaleon proiektu politikoa? Frantziako alderdi politikoei badute proiektu politikoa, abertzaleok ez. Antieuskaldunak lehen baino gutxiago dira, baina badira oraino ere.

«Militantziak bizitza hartu deit!...» Bizitze bat militantzean... Güdükarte goxoei (Paueko presontegitik bi kideen libraztea ikusbidez) indarrak berrituz eta güdükarte txarrek (militanteen heriotza besteak beste...) egartuz. Haatik, azken horietarik ixil-ixila bere korpitzan egartü düan tortürüzalea, hortzetako mina izan da. Urte eta urtez hagineta minak, gaü eta egünak gastatü deitzo. Ondorioz, güti jaten züan. Lagün hanitx harritü da bizpahiru egünentako ekarten züan anoa ikusten züelarik: ogi txoina erdi bat eta bizpahiru banana. Erran gabe doa, gaixki hazte horrek osagarriari kalte egin zeiola. Bena nork entzün dü Allande kurrinkaz, nork borogatü düti bere hasperenak? Ihork, zeren barneko sendimenterien gordatzea ikasi beitzüan. Urte eta urte traza hortan igaran ondoan, azkenean, ezin bestean, artatzen ibili zen eta hortz gaixtoak oro elkarazi zütüan bena, bere itxüra, beti bigerren maila batean etxekitzen züan eta beraz hortz ordaririk ez züan ezarrerazi. Hola nola AEK Xiberoko Gaü Eskolako üdako ikastaldialat jiten zeigün bizkaitar kokillot lagün batek, ahapeka erraiten zeigün: «Allanderen emankizüna Xiberoko Botzean: 'Egün bat, hitz bat' behar züen izentatü 'Egün bat, hortz bat' ez zaizüe üdüri?» Eta gü, gure gizontto eta emaztetto itxüra nokügabe-koeki, hala üdüriarazi nahi pürü, gü bai gü, txirtokoiak, erri karkazaz prefosta...

Ata, ahapeka erraitea ez zen beharrezko, berartaz erri egitea ez züalako kexaraziko, txirtoa, hitz joküak maite zütüalako eta Allanderen gogoa, gurea mügatürrik den eremütik harat zoalako. Haatik, bizia antzerki bat beita, Allanderen antezoihala, apür bat baizik ere baztertzen balinbazen, nahiz eta lehen-lehenik erri bat ikusi, ez zen erri ozen bat. Allande gozoa zen, gisakoa, bihotz zabala, alta berartan gogorkeria bat, oinaze bat borogatzen zen, ixiltü nahi ez zen oiartzün baten gisa... Gizon kaana, lagün hitzekoa, adixkide ahatzezina, anai algarkidea, Allande Sokarros Euskal Herriko etxebartar Jauna Agur! ta ohore!!

## *Allanderen jakintza eta ùmorea*

Manu Gojenola

*Ekonomilaria*

Allande Sokarros hegoaldeko euskaldünentako Xiberoko enbaxadorea üken dügü. Hebertik -Hego Eüskal Herritik- harat -Xiberualat- joaiten zirenentako beti agertzen zen Xiberoko mintzajeaz, pertsonetaz, leküetaz informazionea emaiten. Agitü izan zeitan Ane emazteareki hebertik Altzairat joaita, Jean-Mixel Bedaxagar, Titika Rekalt eta Juan Mari Beltranen ekitaldialat. Txaranbela soinütresnaren eta kantatzeko manera zaharreko edo atonala denaz egin züen emanaldian, aldameneko jarleküan bi hegoaltiar ziren, espeleologoak. Haiekila amiñi bat mintzatü nintzan eta Allendereki izanak ziren aitzineko egünean, Xiberoko gaüzetaz informazionea biltzen. Eta ondoko egünean ere berareki biltzeko ziren.

Üdan, Gaü eskolakoek ikastaldia antolatzen düe aste betez, pastoralen bi emanaldien artean. Orai hasiak dira hiru emanaldi emaiten. Azken hogeü urte hoietan, Mendikotan, laborantxa eskolan. Bena egin üken düe Berrogainen bi aldiz, Mauleko Agerrian behin. Xiberotarrentako emaiten dira eskolak bereziki, bena baita baxenafartar, lapurtar, hegoaltiar edo kanpotik jiten direnentzat ere: bretoi, kanadiar, aleman, errusiar, New Yorken bizi den Paris üngürükoa, ingles... Hamalau aldiz izanik niz. Üsü joaiten zeigün Allande. Zonbaitetan, egitarauaren barnean mintzaldiaren emaitera, bestetan elkaldi baten egiteko ikasleeki norabait, bortüalat ikusbidez. Bena baita instituzione edo Xiberoko egüneroko bizitzari lotürik zaion zerbaiten ezagützeko. Bena langile, errejenta edo lagünzale gisa ez bazen ere, jiten zen bazkaritera edo aiharitera gürekila.

Haren jakintzaz jabe egiten ginen, bena baita errieginarazten zeigün ere. Zerbait erriegingarria erran aitzin, büria zotükatü, ahotsari holako “mmmm”a elki, begiak gora eta behera igitü eta erriño maltzür ttipi bateki prestatzen güntüan erranen züanari erriz lehertzeko. Maitatüa zen ikastaldietan ikasle eta erakasleen partez. Hoietan, zonbaiten aipatzeko: Beñat Espil, Jef Goyhenexpe, Hubert Catalogne zena, Jüje Etxebarne, Jean Claude Sehebiague, Maite Davant, Xantiana Etxebest, Maika Etxekopar, Graxi Bedaxagar, Maritxu Castillon, Niko Guiresse, Patxi Patalagoiti, Joana... eta baita atelierrak emaiten zeizgüen lagünzaleen aldetik ere: Battitta Guiresse,

Maidier Bedaxagar, Jean-Louis Davant, Pette eta Joanes Etxebarria, Nicole Lougarot, Mixel Etxekopar, JohaÑe Bordaxar, Joana Etxart, Leonie Agergarai, *Llargo* Etxeberri, Allande Etxart, Marijo...

Maskaraderat joaiten ginenean Bilbotik, goizanko 5etan jeiki eta 6etan bat egin Iniaki Martiartureki. Gero Urruñan 8 orenetan Joseba Aurkenerena bildü eta Xiberoalat 9ak altexean heltü. Üsü Allande günian lagün, txülülaren lehen soinüa behatü aitzin. Argitarzünak oro emaiten zeizgün. Herriaz, aüzoetaz, hanko bizizaleetaz, jente historikoetaz, urtearen zehar herrian agitü zenaz eta Maskaradetan hartaz mintzatüren zirenaz Kabana Handia edota Buhame Jauna. Aitzinetik, informatüa zen Maskaraden antolakuntzaz, arizaleetaz, nola herrian norbaitek oihan motoa erosi eta berehala moztü zütüala zühainak! Maskaraden kargüetan zoin ez ziren elkiren eta zoin azken 50 urtetan lehen aldiz elkiren zen. Beti erraiten züan ez zela ez dantzari, ez kantari. Bena dantzaz ere bazakian eta emaiten zeigün informazionea.

Eüskararen mütür biek, xiberera eta mendebalde edo bizkaiera mintzazaleek beti üken dügü alkar ontsa hartzeko zoria. Agian, erdiko mintzajeek egite bazüela, nolabaiteko batarzün bat, gü mütürretako biek kanpo üzten güntüana. Hegoaltea diren institüzione eta diharü hanitxek sortü düe, beste hainbat erakünteren artean, bizkaieraren alteko *Labayru* sendoa -Bizkaiko *Sü Azia* edo izan ziteana-, eta ahülago den *Euskerazaleak*. Bena, haiek güti izanik, hirugerren bat ere antolatü züen: *Mendebalde* izenekoa. Orai desagertürrik edo dena. Bena bizirik izan zen hamabost urte üngürüan, urte oroz ekitaldia eratzen zen gei baten üngürüan.

Urte batez, 2007an, “Mendebaldeak badu Ekialdea” izenekoa eginik izan zen, Jabier Kaltzakorta eüskaltzainak proposatürrik. Harat jin ziren Xiberoko “indar biziak”, hala nola Aita Junes Casenave, Jean-Louis Davant, Txomin Peillen, Mixel Etxebest, Battittu Coyos, Titika Rekalt, Jean Bordaxar, Philippe Etxegorri Biarnoko eüskaldüna, Dominika Agergarai, Beñat Etxebest, Jakes Etxeberri *Llargo*... eta, nola ez: Allande Sokarros. 2007.05.25 eta 26ean izan ziren emanaldi hoik. Ordüan mintzatü nintzan lehen aldikoz Allandereki, pausü-denbora batetan. Gogoan düüt galtatü neiola hegoalteko kantarietan eia xiberotar kantoreak ontsa emaiten zütüen kantaririk ote bazenez. Arrapostüa eman zeitan: ‘Bat baizik ez dük: Imanol Larzabal’.

Berareki pertsonalki egon ondoan, bere izkiribüzko lanak dütü batetik eta botzezkoak edo audiozkoak bestetik. *Euskaldunon Egunkaria* eta *Berria* izeneko egünarietan irakurten nütüan haren lanak, nazioarteko aferetaz haboroxenak, bena baita Maskarada eta Pastoralen kronika zorrotz eta interesgarriak ere,

Xiberoko kùltùrgileeki alkarrizketak ere emaiten zùtüan. Hortik landa, *Herria* aldizkarian, Xiberoaz hain güti mintzo den astekarian, bena hala ere agerkari interesgarrian, Allandek betetzen züan Xiberoazko informaziona —J. L. Davantek ere egiten züana—, izigarri botzik irakürten nüana. Zonbait libürü eta pùblikazionetan izkiribatü üken dü Allandek. Garrantzitsüenetako bat, *Züberoa Herria* J.L. Davantekin batera.

Botzezkoetan, hala nola Xiberoko Botza, Maulen den irratan behatzen nüan. Han Xiberoan nintzanean transistore ttipi batetan, eta Billboko etxen, internetez. Joan zeigüla pena handia da, bai pertsona gisa eta bai kùltür gizon bezala. Xiberoko kùltüraren süstazale nausienetako beitzen. Bena orano entzün dezakegü haren ahotsa “Egün bat, hitz bat” izeneko emanaldi llabür, bena izigarri interesantan. Xibereraren hitz zahar eta berrien jakintza bazüan. Erran daiteke ez zela ezagützen ez züan bazterrik bere eüskalkian.

Edota “Kantore kronika” izeneko emanaldia, non dantzan eta kantatzen ez omen zakianak argitarzün zinez interesgarriak emaiten zeizgün Xiberoko 40 üngürü khantore nausietaz, hain ezagütürük direnak, ikusbidez: *Txori erresiñula*, *Eperra*, *Goizian goizik*, *Orai basten niz kantatzen* herrikoiak direnak; Etxahun Barkoxeren *Maria Solt eta Kastero* edo *Bi bertset dolorusik*; Etxahun Iruriren *Ai zer plazera* eta *Ama Euskadi*; eta baita egünko kantariak sortüak ere, hala nola Berzaitzen *Baratze bat*.

Kantoreen aztertzean, hiztegiak ükeiten ahal dütüan kuxelüz oro argitzen zeigün. Bere trebetarzün handienetako bat erakusten bazakian holako lanetan. Xiberoko eüskalkiaren eleen errejenta zen, nontik jiten ziren, zonbat erranahi züen, frantses, biarnes ala espainolaren eragina bazüen. . . Holakoa zen zoinahi egoeratan, bazkaria edo aihari batetan, menditik oinez, biltzar batetan, zoinahi manerako jentea berareki biltzen zelarik, hitzen erranahia, nontik jinak ziren eta abar, argitzen züan.

Hizkuntzalaria dei geneikeo. Bena, horreki batera, kazetaria. Üngürüan agitzen zen orotaz züan interesa. Etxezilo zela erran zeitan behin, bena kanpoan agitzen zenaz bazüan jakiteko interesa eta manera zonbait. Eta ontsa ekarten züan paperera, nazioartekoa, zoin Eüskal Herrikoa ala Xiberokoa.

Sü Azia Xiberoko kùltüraren alte lan zinez handiaren egiten ari den taldea da. Xibererazko libürü zaharrak egokitü eta karrikarat elki, idazki zaharren txerka, khantoreen bilketa lana eta baita ments diren bertsetak bildü, Xiberoko soinügile, dantzari eta kantarien biografiak plazaratü, soinü tresna zaharrak bildü. Xiberoan zinez beharrezkoa den kùltür taldea da.

Lan handia egin züan Allandek *Sü Azian*, talde honen sortzapenetik. Azken urteetan denetarik egin züan: elki diren zonbat libürüen izkiribüzko puzken biltzale eta eüskararen zaintzale üken dügü, hala nola *Ziberoko Egünaria*, *Pastoralen gerla* Marcel Bedaxagarreki batera; gazteer bereziki xüxentürük ziren irratsaio llabürren builtzazalea, *Xiberokazt* izeneko podcastak, Marcel Bedaxagarreki batera; bena baita xiberotar kültüraren builtzatzeko orrien banatzea jenteen artean edo autoetan üzteaz ere. Zoinahi lan. Izigarri langile beitzen.

*Sü Aziakoek* Aita Junes Casnave-Harigile zenari omenaldia Santa Grazin egin zeioenean 2019ko ürrietan, Andres Urrutiareki Bilbotik Santa Grazirat joan ginen, Baionan Txomin Peillen bildü ondoan. Elizarat sartü ginen mezan zirelarik. Laster jin zeigün Allande eta azken herrokan kantari ari zirenetan, Pastoraletako süjetak eta kantari handiak zirela erran zeigün (Erik Alzazebe, Jean-Louis Aranburu, Mixel Arotze, Jean-Pierra Barneix, Johañe Bordaxar, Niko Etxart, Jean-Pierra *Tutu* Luro, Jean-Noël Pinque eta Dominika Urruti). Ez zakiala kantatzen erraiten züan Allandek. Agian hala zen, bena Xiberoko kantarien eta kantoreen berri bazüan.

Eüskara Batua ontsa ezagützen züan. Hala, lan egin züan Eüskaltzaindiaren *Euskara Batuaren Eskuliburuan*, bere jakintza erakutsiz. Bena erran behar da zübereraz erakusten züala bere jakintza zabala. Morfologia, aditza, egitüra... oro bazakitzan. Nihaur gehien harritzen nüdüana zen hitz edo ele zaharretaz mintzo zenean. Udüri züan hitzen arkeologoa zela, desagertürük zirenak ere ezagützen zütüan. Agian horregatik hüilantü zeitzon hatsarrean aipatü dütüdan espeleologoak!

Bere bizitzako beste alte zonbait ezin düüt zehaztü, bena ondokoak ez nütüke aipatü gabe ützi nahi, Sü Azia eta Eüskaltzaindia-tik landa. Hiru anaiak bazütüan, zoinetan nik biga ezagützeko parada üken nüan, lagün baten autoa hondatü zelarik. Haren Etxebarreko sortetxerat eraman güntüan, konpont lezaen. Isabella, bere bizikidea eta maitarzüna. Bortükariak izeneko taldean ebilten zen bortüetan, hanitx maite zütüanak. Eta azkenik, politikan ere ebili zen, Iparretarrak taldean, eta geroago Abertzaleen Batarzüna alderdi politikokan, Etxebarre bere herriko häütetsi izan zen eta Eüskal Alkargoan ere ardüra zonbait üken züan.

Bizitza emankorra üken züan xiberotarrari, kültürari, lanari eta politikari lotüa. Eta jente hanitx ezagütüaz, oroer Züberoa eta xibereraren berri emaiten zeien, oroer erria sortzez. Allande, pertsona eta xiberotar handia.

## *Allanderi omenaldia*

Jean Pelle Iriart

*Aloze-Ziboze-Onizegainenko auzapeza*

Allande, hi «Etxebarreko ertzua», hiaurk erraiten hüan bezala. . . Hori elkirik leheneko erran zaharretarik, Xiberoko herritarren izengaintikoak berriz agerrazi beihütüan hire Sü Azia-ko lagüneki «XiberoKast» egitarauaren bidez.

Ez Allande, ez hintzan ertzo, bena bai ertzotürik maite gure lürraldea eta gure hizkuntza. Gazte denboran azkarki borrokatü hintzan, gei horien ün-gürüan. Berantago hautetsi bezala ber helbürüarekin jarraiki dük: euskararen azkartzea egün oroztako bizian, ez baizik erakaskuntzan. Ene aldetik hori diat nahi azpimarratü.

Hirekin igaran ditiat sei urte, Xiberoko Herri Alkargoan, Euskara batzordearen barne. Aitzindarigoa hartü hüan (ez zen besterik izaten ahal!..), eta segür gaüzak ontsa eraman sail hortan. Zerrenda lüzegi da osoki agertzeko bena gaüza zonbait ooren artetik:

### **Eremü püblikoan**

- Eüskara sarrarazi Herriko etxe eta Elkargoan: gütün, webgüne, seinaletika (bastimentüak, lan eremüetan) eta xede berrietan.
- Lehen lürraldea ginen hiztegi ttipien egiten (orain Iparralde osoan zabal-türük dira): adibidez haurtzaintegier, ondarkingüner eta igerixkagiari бүрүз.

### **Eüskararen erakaskuntza**

- Ikas Xiberoa antena sortzea Xiberoan.
- Eüskararen ikasteko beka plantatü dügü.

### **Besta komite, saltegi, jatetxe**

- Besta batzordeen afitxak, % 50a finantzatürük baldin eta eüskara hü-tsean edo elebidünez ziren.
- Afitxaketa proposatürük saltegiatan ezarteko (beztitzeko hiztegia, osatü. . .).
- Eüskararen alteko kanpaina bat egin gүнüan irratietan.

Bestalde, erran behar diat ere, ützülpén hanitx egin düala Alkargoarentako eta formaküntza bat antolatü hüala gazte zonbait planta ditean sail hortan.

Zonbait aldiz, gaüzak ez ziren aski zalhe aitzinatzen hiretako, eta jakinarazten hüan (ez hintzan gizon epela!...). Bena bahakian ere, gure hizkuntzan salbatzeko güdüka lüzea izanen zela eta egün oroztako lana dela...

Azken denboretan, franko arrenküratürük agertzen hintzan gure lürraldearen egoeraz eta geroari бүрүз. Hala dük badügüla oraino lan hanitx egiteko Ipar Euskal Herri hortan, gure gazteriari ütз dezagün lürralde bizi bat eta prefosta euskaldüna!... Hire oritzapenak lagün gitzala xede horren eraikitzen.

*Allande Sokarros,*  
**Herria astekariko berrikerari**

Peio Jorajuria

*Kazetaria eta Herriako kolaboratzailea*

*Herria* astekarian lanean hasi nintzelarik, 1994ko urtarrilean, administrazio lanetan eta kontu egile gisa, bai eta kronikari eta tokian tokiko berrikerari boluntario sarearen koordinaketa lanetan –garaian hirurogei bat boluntario bazeuden– hiru izen aurkitu nituen Zuberoako kronikari eta berriemaile bezala ekarriak zirenak: **Jean-Louis Davant**, **Panpeia Etxebarne** eta **Allande Sokarros**.

**Jean-Louis Davant** larrabiltar euskaltzainak, batetik Zuberoako berriak helarazten zituen *Herriari*, bestetik kronikari lana zuen betetzen. Egiari zor, iruditzen zaidanaz, tokiko berri emailegoa baino, kronikari lana du gehien bat bete, molde jarraikian. Panpeia eta Allanderi zoakien Zuberoako berrien zabaltzea, baina horien partetik iturria doi bat agortua bezala zegon garaian, Jean-Louis-ek hartu zuen luma, *Igarailea* izenpetuz bidaltzen zituen berriak, ahal zuen guzietz, ezin zuelarik irakurlea abisatzen zuela: “Xiberoko berririk ez düt bildü ez igorri ahal ükan aste hontan, Eüskal Herria utzi behar ükan baitut egün zonbaitez” (2000-02-17).

Aldiz, “Jainkoa, Bizia, Gizona” kronika sailean erregulariki idazten zuen eta gaur egun oraino sail horretan aitzina darrai. Emil Larrek zuen kronika sail hori sortu, Jean Hiriart-Urruty zenaren “Eliza berri” sailari segida emateko. “Galdegina zaizuen, zioen Emilek, fededun baten gogoetak, bereak, bihotza mintzo, ebanjelioa plazaratuz, biziratuz, gaurkotuz, bakoitzak berak sentitzen duen gisan, gaia libre, muga horien barnean...” Dozena bat laguneren artean onduriko kronika saila, besteak beste Mixel Itzaina, Maite Iratzoki, Jean-Louis Laka, Klaudio Harluxet, eta bistan da Jean-Louis Davant. Nihaur ere sarrarazi ninduen geroxeago Emilek sail horretako kronikari gisa, Klaudio Harluxet zendu zenean. Hamar bat urtez eramán dudán kolaborazioa. Eta diozuet eskola ona dela, gogoeta sakonenak molde argian eta sintetikoan idazten ikasteko! Gaur oraino bizi den saila dugu, “Jainkoa, Bizia, Jendea” titulupean, “gizona” hitza bazterturik, “jendea” hitzaren faboretan, zuzen den bezala. Oroit naiz bilkura batean proposatu nuela titulua ere osoki aldatzea, beldurrez gaur egun “Jainkoa” hitz horrek irakurle potentzial andana bazterrean utz zezakeela.



Baina Jean-Louis Davantek galdegin zigun titulu hori den bezala atxikitzea, *Herria* euskal aldizkari bakarra delakoz erlijiozko kronika astez aste ontzen duena, eta hori baitezpada atxiki behar dela zioen.

**Panpeia Etxebarne** *Ximits* irabarnetarra zuen *Herriak*, urte andana batez, Zuberoako berrien emaille nagusia. Han hemenkako berriak zituen zabaltzen. Egia erran, ez guk nahiko genituen bezainbat. Alde horretatik, aitor dezagun *Herria* astekaria aski pobrea izan dela betidanik, edo “praubea” han dioten bezala. Baina Panpeiak idazten zuena, zuberera biziki onean idazten zuela zidan erran Allande Sokarrosek berak, Sarako Idazleen Biltzar batean gurutzatu nuen batez.

*Herrian* idazteaz gain, liburu batzuk ere ondu zituen Panpeiak, hala nola Robert Laxalt estatubatuarraren “Sweet promised land” (Mon père était berger) zubererara itzuli zuen *Aita artzain zen* titulupean, bai eta ere Antoine de Saint-Exuperyren “Le Petit Prince”, *Printze ttipia* titulupean. Zoritxarrez, aski gazterik zendu zitzaigun Panpeia, 67 urtetan, 2016ko urtarrilean. Allandek artikulu eder batez omendu zuen *Herria* astekarian: “Eüskaltzale süharra zen Jean-Pierra Etxebarne eta osagarri arrenkürek ez baleie bidea trabatü, eüskararen eta Eüskal Herriaren alde lan hanitxez haboro бүрүтүкө зүтүан, дүдарик батере gabe. Ez adiorik, Panpeia!”.

**Allande Sokarros**, gorago idatzi dudan bezala, Saran gurutzatu nuen lehen aldikoz, Idazleen Biltzarrean. Nahiz lehenagotik ere ikustez ezagutzen nuen, politikaren alorrean denek dakigun euskal militante suharra baitzen, eta garai batean *Ekaitza* aldizkariaren publikazio zuzendaria ere. Pastoraletan ere urte oroz ikusten nuen bere argazki tresna eskuetan. Eta nola ez, Bortükariak el-karteak antolatzen zuen Zuberoan gaindiko mendi ibilaldietan, Allande mendizale suharra izaki.

Sarako Biltzarrean erran zidan Allandek, Jean Lahargou zenak zuela *Herria* astekarira hurbilarazi. “Gizon hori miresten nian, nonahi ikusten nian, kultur elkarretaratze handi guzietan, Herri Urrats, Nafarroaren Eguna, pastoral edo beste, mahai ttipi batean pausatuak zituen *Herria* astekariaren aleak zabal-tzen, eta ahal bazuen bakoitzaren izen-helbideak hartzen, horien harpidetzeko xedez”. Horrela zuen Allande *Herriaren* saretara “bildu”. Suhuskundarra zen Jean Lahargou, Euskal Herritik kanpo lanean ari izana. Langile xumea. “Beti kezka berak zabilan: jende langile xehearen griñak eta ezinak, eta beti berak baino gutiago zakiteneri laguntza sustengu egitea” du idatzia izan Emil La-

rrek. “Langileriaren aldeko sindikalismoan zuen aurkitu bere bihotz handiaren beteko bidea”. Erretiroan, proposatu zuen *Herria* laguntzea, “jakinik kazeta guziak mehetik ari direla diruz”. Eta zenbait urte laburrez artoski jo zuen kazetaren itxura hobetzeari, kazetaren ezagutarazteari. “Nork ez du ikusi gure Lahargou bertsularietan, antzerki, kirol edo kristau bestetan, *Herria* azaoa besoan?” zioen oraino Emilek. Zerbitzu horien guzien ordaintzarik sekula onartu gabe. Zoritxarrez, eritasunak hilabete soil batez eraman zuen “gizon arrai eta bringoa”, 1992ko abenduan.

Horrela hasi zen beraz Allande *Herriarentzat* berriketari lanetan. Baina honnek aitortu zidan bazuela bestalde asko lan eta *Herriarekiko* kolaborazioan Panpeia Etxebarne batek berak egin lezakeen baino lan askoz hobe egiten zuela. Erran niolarik, orduan, menturaz beste zuberotar berriketari batzuk Panpeia behar luketela lauzkatu, Allandek erran zidan haren ustez zoritxarrez zuberotar guti zela zubereraz behar den bezala idazten zakienik. Horretan gelditu zen gu bien arteko orduko solasa, *Herriari* doakionez.

Zuberoako berriez praube ginela dut idatzi gorago. Hain zuzen, 1995ean inkesta bat egin genuen, Gilen Irigoien bunuztar kolaboratzaileak eraman zuena. Inkesta horrek helburutzat zaukan jakitea zertan genuen euskara Euskal Herrian –horretarako Siadeco institutuak egin ikerketa batean oinarritu ginen–, *Herria* astekariaren harpidedunak zein ziren eta ere zer zioten euskal astekari honetaz. Siadecok 16 urtetarik goitikoek datuak bildu zituen.

“Euskara Euskal Herrian”. Hiru ataletan banatua zen ikerketa, euskara baizik mintzatzen ez zutenak, elebidunak, eta erdara baizik mintzatzen ez zutenak, iparraldean eta hegoaldean. Iparraldeko zenbakiak hauexek ditugu. Euskara baizik ez zekitenak: 2.900 lagun, horietatik 2.100 Lapurdin, 500 Nafarroa Beherean eta 300 Zuberoan. Elebidunak: 80.900 lagun, 55.400 Lapurdin, 15.600 Nafarroa Beherean eta 9.900 Zuberoan. Eta erdaraz soilik ari zirenak: 125.100 lagun, 113.400 Lapurdin, 8.700 Nafarroa Beherean eta 3.000 Zuberoan. Ohartzen gara Zuberoako zenbakiak oso apalak direla: 3.000 erdaldun huts, 300 euskaradun huts eta 9.900 elebidun. Zuberoako elebidunen kopuru horri zehatzagoki so eginez, agertu zen 2.100 zuberotar elebidunek euskara zeukatela lehen, 2.400ek erdara lehen, 3.600ek erdizka eta 1.800 pasiboak zirela.

“*Herria* kazetaren harpidedunak”. 1995ean, 3.188 harpidedun zauzkan orotara *Herriak* (hamar urte berantago, 2004an, kopuru hori 2.462ra jaitsia zen). Honela banatuak ziren: Ipar Euskal Herrian 2.623, Hego Euskal Herrian

165, Frantzian gaindi 238, Europan 10, Ipar Amerikan 121, Hego Amerikan 11, Afrikan 13 eta Asian 7. Ipar Euskal Herriko zenbakiei hurbilagotik behatuz, banaketa honela egiten da: 2.623 harpidedunetatik 1.340 Lapurdin aurkitzen dira, 1.165 Nafarroa Beherean eta 118 Zuberoan. Harpidedunen mugimendua haatik apalduz joanen da. Herri zenbaitetako zenbakiak bilduak izan ditugu, Zuberoatik adibidez: Altzurükün 1981ean bederatziz harpidedun, 1995ean bost eta 2004an hiru; Domintxainen, 1981ean zortzi, 1995ean bi eta 2004an hiru; Muskildin, 1981ean hamar, 1995ean bi eta 2004an bederatziz... Kasu arraro batzuetan kopuruak gora egin badu, gehienetan behera egin du. Dena den, Zuberoako zenbakiak arras apalak dira.

“Nor zarete?” telefonoz egin galderari (generoa, adina, lana), eskuetan dugun txostenak maluruski ez digu zuberotarren erantzunik ematen. “Zuberoako zenbakiak ttipiegiak dira”, hain segur gutxiegi ihardetsirik. Halaber “*Herria* kazetaz zer diozue?” galderarentzat, zuberotar harpidedunen erantzunik ez. Lastima! Ohar bat halere, “Zer artikulu edo gai mota eskas edo falta dago *Herrian*” galderari, zenbaitzuk, jakin gabe zuberotarrak diren ala beste euskal lurralde batetakoak, “Zuberoako berri gehiago” nahiko zutela diote.

“Zertako irakurtzen duzu *Herria* kazeta?” galderari erantzun zehatzak agertzen ditu txosten horrek, argitu gabe haatik zein lurraldetatik datozen. Eta erantzunen % 50ek hauxe dute aitortzen: euskaraz delakoz, euskara atxiki behar baita eta hedatu, euskararen irakurtzeko, euskararen ikasteko, euskara maite baitut, euskalduna delako. Kopuru apalagoko beste ihardespenetan: plazerez, gure kazeta da, goxoa da, herrikoia, etxekoa, familiakoa, ondoko belaunaldiari zerbait uzteko, maitagarria da, gabe ez nuke nahi, ene adinean ohartzen naiz euskara ez dakidala ontsa, Euskal Herria sartzen zait ene ganbaran (eri batek), herrietako berriak jakiteko, ohiduraz, aita-amekin beti irakurri dugulako, 50 urte hauetan irakurtzen dut, ama zena bezala egiteko, aspaldikoa delakoz, ez du politikaren trabarik, pilota aipatzen du, gure inguru hurbileko gauzez arduratzen da, berrien jakiteko, euskaldun berriak ematen ditu, erlijiozko artikuluentzat, denbora pasa, kuriostasunez...

Zuberoatik nola eskuratu berri gehiago? Antzu gelditu zen Paxkalin Aincyk eta nihaurk egin genuen entsegua. Lehen urtetan, Paxkalin senpertarra eta nihaur denbora erdiz ari ginen lanean *Herriarentzat*. Eta gure nahia zen harpidedunen sarea, ez bakarrik mantentzea, baina ahalaz emendatzea ere. Hala nola Zuberoan. Hortarako, erabaki genuen, zuberotar berriketari gehiago ukan nahiz, bilkura bat egin behar genuela Zuberoako herri batean, hango

euskaltzale multzo bat elkarretaratuz. Hori zen 1990eko hamarkadako azken urtetan edo 2000.eko lehenetan, ez naiz zuzen oroit. Dena den, zuberotar andana bat telefonoz juntaturik eta dozena bat lagun bilkura batentzat ados agerturik, hitzordu bat finkatu genuen larunbat goiz batez, Gotainen uste dut (ez dut nehun aurkitu bilkura entsegu horren arrastorik paperetan, ondorioz zalantzak badituz urteaz eta lekuaz). Paxkalin eta biak harat joan ginen, hitz-artutako tenoreko, baina nehor ez zizaigun agertu, bat salbu, beranduago, errateko ez zela harritzen gisa horretako urratsa biharamunik gabe egotea. Eta etxera itzuli ginen, besterik gabe, ulerturik iniziatibak han beretik behar zuela etorri eta ez gugandik.

Joanago eta praubeago. 1995ean, 118 harpidedun bazeuzkan *Herriak* Zuberoan. Gaur egun, 2022ko urte hastapenean, 23 baizik ez ditu. Muskildin zazpi, Sohütan bat, Ezpeizen bi, Maulen lau, Urrüstoin bi, Bildozen hiru, Garindainen bi, Barkoxen bat eta Gotainen bat. Hara gaurko errealitate gordina. Zer beherakada 25 urtez! Argi da *Herria* astekariak ez duela jakin zuberotarrei hurbiltzen, zuberotarren baitan merezi zukeen interesik pizten. Alta, hango berriak, ez baziren ere guk nahiko genuen heinean heldu, beti gogotik zabaldu ditu *Herriak*.

Nolako berriak Zuberoatik? 1992ko zenbaki guziak miaturik, ohartzen gara, beste lurraldetatik ez bezala, Zuberoatik berri guti datorrela herrietatik zuzenki. Noizean behin herri zenbait agertzen dira: Altzürükü, Barkoxe, Atharratze, Arhane, Eskiula, Iruri, Santa Grazi, Maule, Arüe, Gotaine-Irabarne, Urdiñarbe, Larraine, Lanbarre, Garindaine, Mendikota eta Ligi. Baina herri horien kontu emanak diren berri gehienak berri orokorrak dira, hala nola pastoral bat halako herrian jokatzeko dena, maskaradak halaber, edo dantzari eguna edo beste. Orokorrean, berriak ez dira herri bati hertsiki lotuak baina zuberotar lurralde osoaren kontu dira ekarriak.

1992ko aste guziez bada zerbait berri Zuberoatik (ez dira urte guziak berdinak izanen). Hona zer gertakari aipatu den: maskaradak, Bortükariak elkartearen ibilaldi jarraikiak, Xiberoko ekonomia, kantonamentüko bozak, Santa Kruz pastorala, antzerki, Dantzari Egüna, Xüberoko sindikata, eüskal kantu txapelketa, txülülen jeialdia, De Treville pastorala, Lucien Afios müsika egilea, Müsikaren Egüna, herriko jeiak Barkoxen, libertitze gaüaldia, gasbidearen üngürüko gatazkak, Chips made in Züberoa, Xiberoko Botzaren berriak, züberotar mintzajearen üngürüko ikastaldia, Mauleko zerbütütegia, herriko mozkinen feida, Ga-

rindainen kantaldi, Eüskaltzaindia Züberoan Allande Oihenarten goraiatzeko, Mauleko Etxahun gelan blues gaüaldia, Basabürüko hautetsiak mintzo, Mauleko Eperra ikastolaren besta, Aita Junes Casenaveren obra berria, Uhaitza Züberoako kültür etxearen lanak, Urtats aiharia presoan alde...

Artikulu horiek, gutiz gehienak bederen, ez dira izenpetuak, salbu zenbait, A. S. hizkiez, hots Allande Sokarros, eta horiek dira gertakari politikoak (gasbidearen kontrako gatazkak) eta mendiari lotutakoak (Bortükarien ibilaldiak). Allandek bazituzkeen beste artikulu batzuk ere idatziak, izenpetu ez zituenak, adibidez pastoral eta maskaraden ingurukoak. Panpeia Etxebarnek, aldiz, ez zituen bereak izenpetzen.

Behakoa eman diegu ere 2000. urteko zenbakieri. Hor ere aste oroz kasik bada Züberoako berri, gehienak *Igarailea* izenpetuak, hots Jean-Louis Davanten artikuluak: Chaumes gaztategia, Xiberoko herrien erkidegoa, Iparragirre pasterala, axuria бүрүз piko, maskarada Atharratzen, toberak Atharratzen, hiltzen lagüntü nahi? (edo Frantziak esküaldetako hizkuntzen alde zoin güti egiten), Mauleko baruraldia, eüskaldün presoan alde, Bordaxarren kantaldia, Anita Duhauri Pedronea etxaltea Oihergin...

*Herriaren herrikoitasuna.* Allande Sokarrosek aldi batez erran zidan *Herria* astekaria gustatzen zitzaiola. Ez zituen, ez, artikulu guziak barnatik irakurtzen, zutabe batzueri behako lasterra botatzen omen zien. Baina aldi berean gustatzen zitzaion *Herriaren herrikoitasuna*, jendeekilako hurbiltasuna, eta noizean behin gustukoak zituen perlak ere aurkitzen omen zituen. Hala nola, erran zidan editorial batean idatzi nituen lerroak oso atsegingarriak izan zitzaizkiola. 201 In, Seaskak “Laku bat munduan” hautatu zuen lema gisa Herri Urrats bestarentzat. Senpereko aintzira goretsi nahiz, Herri Urratsez aintzira horren inguruan euskararen alde ematen ziren urrats baliosentzat. Baina hara, tokiko laborarientzat, aintzira hori sortu aitzin, horgo lurrak gudu leku izan ziren, Senpereko herriak, laborarien ustez, laborarien lurrak bahiturik. Guduka luzea eraman zuten senpertar laborari askok, Henri Duhau baten laguntza goraiagarria ukanik, besteen artetik. Orogen buru galdu zutena, dakizuen aintzira hor baita, arrakastatsu. Delako editorialean, ene etxekoekin hurbiletik bizi izan nuen guduka hori aipatu nuen —“Laku bat munduan” lemak bihotza minberaturik, guretzat desohorezko lakua izan baita— eta gaur egungo belaunaldieri jakinarazteko nolako iragana zuen Senpereko aintzirak. Proposatuz ere Herri Urratsek urte batez omendu ditzan laborari horiek... Idatzi nituen lerroek batzuen gaitzespenak ukan zituen eta beste batzuren go-

resmenak. Azken hauetan, Allande Sokarrosenak, deitoratuz euskal jendarteak borroka hori ez bere egitea (oihartzun berdintsuak ukan nituen ere Christian Harluxet ELB sindikatuko laborari ahatsarrarenganik). Barka diezadazue ene buruaz mintzatu bainaiz hor, baina anekdota horrek erakusten du Allanderen atxikimendu mota nolakoa zen *Herria* eta Herriarentzat. Jende batzuk behin baino gehiagotan harritu baitzaizkit Allande bezalako euskal militante batek *Herrian* idazteaz, harridura horren arrazoia da hain segur *Herriaren* “espirtua” ez dutela ongi ezagutzen, ideia orotakoeri idekia den kazeta delarik, abertzale edo ez abertzale, sinesdun edo ez, euskararen atxikimendua eta ezberdintasunaren errespetua dituzten ber. Azken urteetan, “Hitza Pitz” blogea zuen erregulariki atxikitzen Allandek eta sarean banatzen, idazlerro zorrotzez osatua, “gogoeta askeak” berak izendatzen zituen moldean. Baina Allanderentzat, ez zen kontraerarik aldi berean *Hitza Pitz* blogean eta *Herria* astekarian idaztean.

Muskildiko biltzarra. Lurralde aldizka egiten ditu *Herriak* bere biltzar nagusiak, batean Lapurdin, bestean Nafarroa Beherean. Baina berriki arte sekula ez Zuberoan, nahiz aspaldiko urtetan aipatzen zen hara joatea. 2018an, haatik, lehen aldikoz zuberotar lurretara joatera menturatu zen *Herria*, bere urteko biltzarrarentzat, Muskildira. Ongi etorri beroa ukan genuen, Josette Boscq hautetsiak (geroztik auzapez bilakatua dena) besoak zabal idekirik, Léonie Aguergaray orduko auzapeza ordaindurik, hau Euskal Elkargoaren biltzar garrantzitsu batean baitzen memento berean. Berrogei bat lagun aurkitu ginen biltzarrean, tartean zuberotar andana, Jean-Louis Davant, Allande Sokarros, Mixel Etxekopar, Juje Etxebarne, Allande Etxart, Luxi Etxekopar Camus, Beñat Sarasola eta beste. Hauek gonbidatu genituen berezikiago “Euskaraz irakurtzearen ohidurarik badea?” galderaz eztabaidatzeko. Bilkura oso aberatsa izan zen, artetik Jean-Louis Davantek hitzaldi mamitsua eskaintzen zigula, “irakurtzeari anitz zor diot, euskaraz irakurri behar da”, zioela, “lehenik euskaraz mintzatu behar da, bistan da, bainan irakurtu ere behar da, euskararen heina ez dugu luzaz atxikiko ez badugu irakurtzen”. Bai, oroitzapen hobere-netan geldituko zaigu Muskildiko biltzar hori.

Panpeia Etxebarne zendu ondoan, Allande Sokarrosek bakarrik segitu zuen Zuberoako berrien ematen, nahiz noizean behin berri batzuk ukan ditugun ere Jean-Louis Davanten ganik, hala nola Junes Casenave zenaz, eta Mixel Etxekopar gotaindarraren eskutik ere, bereziki honen inguruko ekitaldiez, *Xiru* festibala eta beste. Hona, dena den, Allandek azken urte hauetan *Herriara* helarazi dizkigun artikuluen zerrenda.

## 2016an

- Sohütako maskaradak 2016ko negüa harrotüko düe.
- Ez adiorik, Panpeia.
- Ipar Eüskal Herriko haütetsi andana Xiberoan bisitaz.
- Sü Aziak 10.000 euro beno haboro bildü dü.
- Atharratze-Sorholüzek Jean Pitrau laborari borrokalaria ohoratüko dü.
- Xiberoa Herri Alkargoak 2016. urteko aitzinkontüak bozkatü dütü.
- Xiberotar kantariak Atharratzeko Piellena ostaatüan kantüz.
- Xiberoko eskü-hüska txapelgoa, Dominika Aguegaray *Olbaso* gogoan.
- Eüskararen mintzamina aküilatzeke kanpaina, Xiberoan.
- *Jean Pitrau* pastoralala, laborari borrokalariaren ohoretan.
- Atharratze-Sorholüzen, 4.500 jente *Jean Pitrau* pastoralaren ikustera jinik.
- Inganio günea eüskaraz, Idauzen.
- Lürralde kokapena: herri baten garapenerako berme bat.

## 2017

- Ezpeize-Ündüreineko maskaradak: Pettarra, eüskal kültürari arraplantatzen.
- Ezpeize-Ündüreine: Pettarreko maskaradetako arizaleak iganteko prest!
- Jean-Louis Davant idazle eta euskaltzainari *Manuel Lekuona* saria eman deioe, Ürrüstoin.
- Sü Azia alkarreak *Ziberoko Egünaria (1887-1914)* libürüa agerrarazi dü.
- Altzai eta Lakarri berriz ere esküz-eskü *Joanikot* pastoralaren emaiteko.
- Maule-Lextarrek *Belako zaldüina* trajeria emanen dü dagün üdan.

## 2018

- Muskildiko maskaradak Xiberoko negüa argitüko düe.
- *Belako zaldüina* trajeriako kargüak emanik izan dira.
- Xiberoko maskarada eta dantza-jauzietzaz libürü zinez argigarria.
- *Aitzina pika* libürüa: Xiberoko dantza-jauzien “ürre aroa” gogoan.
- Lehenagoko züberotar soinüegile eta dantzarien goraiatzeko... Aitzina pika!
- Aitzina pika: libürüa irakurgeti, erakusketa ikusgeti.
- *Belako zaldüina*: Frantziaren zerbütari, bena Eüskal Herriari etxekirik.
- Aita Junes Casenave-Harigile: biderakusle bat joan zaikü.

## 2019

- Urdiñarbeko maskaradekin, negütik bedatseala.
- Agosti Xaho aipagei, barantailaren 2an, Maule-Lextarreko mediatekan.
- Davant Jean-Louis euskaltzain emerituaren hitzaldia.
- Züberoako pastoralaren izanaz, oraiaz eta geroaz argibideak oro.
- Maule-Lextarre eta Sohüta herrien artean karreiatze zerbütü berri bat.
- Züberoako eskü-hüskako pelota txapelgoa hastera doa.
- Maule-Lextarreko *Jean Moulin* plazabaratzea berritü düe.
- *Domingo Garat* pastoralaren eskentzeko, gure haidürü da Pagola.
- Xiberoko eskü-hüska lehiakako irabazleek txapelak jauntsi dütüe.
- Aita Junes Casenave-Harigile zena gogoan.

## 2020

- Altzürüküko gazteriak emanen dütü 2020ko maskaradak.
- Urrüstoi-Larrabile: Pettarreko Lauak Esküz Esküko herriek *Abdelkader* trajeria emanen düe aurten.
- Covid-19 planeta; 2020 pastoralik gabeko urtea date.
- Züberoako aüzapez haboroxeak haütatürük izan dira.
- *Pastoralen gerla – Urdiñarbe 1909/1912* libürüa.
- Jestaze: abadia laikoaren zaharberritze ederra.
- Ez adiorik Junes Chuburu!

## 2021

- Maskaradarik ez... pasterala agian bai!
- Sü Azia alkarteak... XiberoKazt abiarazten dü.
- Aurten bai *Abdelkader* trajeriaren aldi datekeala!
- Sü Azia alkarteak bi ützülpn berri argialatü dütü.

2021 horretan, urte xuhurra, soilik lau artikulu, nahiz lauak mamitsuak izan, Allandek beti egin izan dituen bezala. Artikulu gehienak kulturari josiak. Eta artikuluen izenburua askotan luzea, kazetaritzan egia erran ez dena hain egoki, baina haren idazmoldea beti errespetatu dugu. Urrian helarazitako azken artikulua, Sü Aziak argitaratutako bi liburu zituen aipatzen, Allande bera elkarte horretako kide suhar izaki aspaldian. Liburu horiek ditugu, bata Battittu Coyosena, bere ama Añesa Coyos Etchebarneren oroitzapenak bildurik, bestea Allande Etxartena, Jose Migel Barandiaranen ikerlan bati buruzkoa, *Liginaga-Astüe 1937. urtean*.



Allanderekin elkar topatzen ginularik, beti erraten zidan, eskua kopetara ekarririk: “Ai, hi ikustean beti heldu zaidak gogora aspaldiskoan ez dutala deusik igorri *Herriara*, ahalketzen nuk”. Ene aldi oroko erantzuna: “Ez baduk gehiago ahalketu nahi, heldu den astetik igorzkik berriak, aitzineko hutsentzat barkatua izanen haiz”. *Herriakoei*, gustatzen zitzaizkigun haren berriak, gauza asko ikasten baigenuen. Adibidez, Zuberoako seme zen Pierre-Claude Aïtcin erakasle eta ikerzalea, Quebecoko Sherbrooke unibertsitate famatuan ibilia, ezagutarazten zingularik, edo xumekiago Junes Xübürü, Zuberoako kantore tradizionalaren jakile handienetarik zena, biak guk hemen osoki ezezagunak genituenak.

Maiz, gauaz gau igortzen zizkigun artikuluak, zenbaitetan berdin gaueko 2 edo 3etan. Gaueko xoria genukeen Allande. Zoritxarrez, xoria betirako airatu zaigu uste baino lehen eta eskas handia egiten digu.

*Allande Socarros eta Xiberoko Botza:  
lagüntzale, kronikalari eta administrazale  
azken hogeitun urte horietan*

«Egün bat hitz bat» kronika famatüaren joanarazlea,  
bena ere kantore kronika eta pasealdi kronika.

Beñat Larrory

*Xiberoko Botza irratia*

Xiberoko Botzan bada zer egin. Ideia franko edireiten badira kronika emankizün ala xüxenezkoen proposatzeko, ez da beti aisa parean eüskaldün erreferentzia baten kausitzea. Xiberotarra. Mintzatü nahi dena. Denbora hartzen düana jiteko. Eta ürrentzeko, gogo honez: Allande Socarros horietarik zen.

Allande Socarros-en ezagütza egiazkin egin nüan Xiberoko Botzako langile gisa hasi nintzalarik 2012an.

Aitzinetik kürützatürük nüan prefosta, bena ez günüan partekatzeko paradarik üken, eta ez nintzan batere jakinean bere eübilbide politikaz ez eta ere züan jakintza aberatsaz.

Xiberoko Botzari esker, bertan horiek oro ikasi nüntüan eta uste düit (ene aldetik phürü segür) hein bat zale harreman berezi bat üken günüala, biak Basabürüko seme beikinen eta ere ber arraileria erabilten beikünean.

Proba hon bat da ene ustez, bakotzak bertan besteari izengoiti bat atzaman zeiola.

Ene aldetik hasi nintzan «zokarraultze!!» oihü handi batekilan Allanderi batzarri egiten irratirat heltzen zelarik.

Harek arrapostüa beti berra: «to! txinkorra errisarekilan» (*lard au riz fr. / larrory*). Ber arraileria erraiten neizüen. Txarra baietz. . .

Langile oroekin beti ontsa jin da Allande, gure kronika grabatü beno lehen beti orenxkot bat igaiten beitzüan irratia üngürüaren egiteko bakotxari hitz baten partekatzez.

Arraileria bat ala eztabada baten abiarazteko doia, parada ere bere gazte denborako espantoen partekatzeko gurekin. Heltzen zelarik denek lana üzten günüan, denek Allanderen istoria anekdota ala karakaza bat entzün nahian.

Xiberoko Botzala arrajiteko, zerbaiten beharra balin bazen beti baganakian Allande prest zatekeala eskü kaldü baten emaiteko ala bere jakintzaren partekatzeke.

Xiberoko Botzarentako egin dütü eta franko. Sorzaleetan jadanik hor zen eta urteak igaran eta, ez da bere lagüngoahühtü akuntrarioro.

Azken urte horietan hanitx markatü dütüan behazaleak izan zen «Egün bat hitz bat» izeneko kronika bat. 500 bat grabatü zütüan orotarar.

Uste düit ideia jin zela Laurentx Etchegoin «Lole» langileak emanik, eta ideia jin ondotik ez günüan lüzaz txerkatü nori galdatzen ahal zen.

Erran behar da zinez «radiofonika» zela Allande, ez beitzen mikroaren lotsa. Hots largatzen zen eta kobesatzen ere aisaxka. Gaüza arrarora xiberotar batentako. Ez dakit zertako bena bada mikroaren «basahalke» bat orano hanitxentako. Jendek erranen düanaren lotsa bat bada agian, eüskararen heinaz ala gaxki hartürik izanen den ohar batetaz.

Arren Allande «Egün bat hitz bat» kronika horri arrimatü zen, eta hori izan egin züan lehen lana irratiantentako, nahiz eta üxü elgarrizketatürik izan zen aitzinetik häütetsi ala euskara ala Xiberora eta Xiberorearen Historiaren jakintsü gisa.

Erringarri da nola orano egün behazaleek aipatzen dütüan hitz horiek eta süstut eztabadatzen. Ezagützen düelarik, «ah bai ohit nüik etxen hola erraiten günüala!»; ez düelarik ezagützen aldiz «bena nontik elkitzen dütü hitz horik Allandek?».

Ejenplüen agerrarazteko, nihauri markatü näüen ezagützen ez nüntüan hitzen artean zonbait partekatü nahi deitzüet: *inpüpiaje* (naro, imur gaxto), *es-pelüxat* ala orano *abo sabaia* (le palais)... Ahatzerik nüntüanetan: *giltz arrapoa*, *atondoa*, *oloak eraiki*.

Hitz haboroxeak aita Lhanderen hiztegitik elkitzen züntüan, bena ere urtez eta urtez lantü düan jakitatean, besteak beste Aita Junes Casenave-Harigilekin hiztegiaren eraikitzearekin.

Allandek arren ekarri dü galdürik ala güti baizik ez diren erabilirik hitzen arrajinaraztea, bena süstut gure mintzajearen eztabadatzea eta arrabiziaraztea.

Berak erraiten züan bezala «mintzaje bat kanbiatzen da eta aberasten baizik ez da kantüko mintzajer hitz zunbaiten hartzez, halaber eüskarentako».

Hügü zütüan haatik «erreünione» ala «errankuntratü» bezalako entzüten zütüan «itsuxkeriak» zion bezala.

Haatik xiberotar oroen gisa, zinez etxekirik zen xiberotarrari. Zonbat aldiz ez düt entzün murmuzikan üdüritzen beitzaioren ez zela aski xiberotarririk entzüten Euskal Irratietako antenan, ala batuzko hitz bat erabilten zelarik xiberotar hitz bat bazelarik.

Euskara lantzen düen mündüan aspalditik erreferentzia bat zen, bena irratitari esker xiberotar eüskalkiarentako erreferentzia bat bilakatü zen xiberotar oroentako. Biga bostetan entzün dütüt kartieleko jendeak «galdegin ezok Socarrosi nola erraiten den hori» erraiten, hitz batetaz düdan zirelarik.

Horrek ez dü Allande epantxatü batuaren lantzeko (aipatüririk izan den bezala aitzinetik süposatzen düt), eta jüstokin «Egün bat hitz bat» kronikaren mudelan bazüan abiatüririk beste kronika bat xiberotar belharrietan batuzko hitzen sarrarazteko.

Bestaldeko eüskaldünekin harreman azkarra bazüan ere, eta dolützen zeion entzüten züntüalarik xiberotarrak plañitzen ez züela hegoaldeko eüskarari tütik konprenitzen.

Hartakoz ere batuaren lantzeko kronika horri etxekirik zen. Xiberotar/batua Hiztegi ttipi bat ere agerrarazi züan orano erabilten dügüna Xiberoko Botzan. Proba biak joanarazten ahal direla gogoa balinbada, eta eüskalkiak ez direla mentüz iragana bena bai geroa.

Allanderen potenzial radiofonika aitzinetik aipatü dügü, eta «Egün bat hitz bat» kronika hasi zelarik agortzen, beste estakürüa txerkatü eta atzaman günüan eüskararen lantzeko eta Allanderen jakintzaren helarazteko behazaleer.

Hiru urtez arren «Kantore kronika» abiatü günüan, xiberotar kantore eta hiztegi zaharren barnatzeko. Beñat Mardo, Attuli, Etxahun Iruri eta Barkoxe ala orano Eüskal Herriko kantore zaharrenetarik den «Berterretxen kantorea» haütatü zütüan kantore oroen artean.

Erri eta elgar trüfa harreman hori beikünüan, üsüxüa intseatü nüan haren botzaren entzünaztera behazaleer bena hor ere arrapostüa beti berra zen «aiei-aieia, kantatzen hasten baniz irazarria dükek non ere ez datekean ixola!».

Bena plazer hartü züela Allande eta behazaleek uste düt hiru urte horietan. Nik ja harekin segür.

Ez bazen botzarekin kantorroez largatzen, zinez laket zen paseatzen Xiberoko bortüen gainti. «Bortükariak» izeneko alkartean lüzaz parte hartü züan. Hor ere güne bakotxaren izena eta izenen herroetaz züan jakintza preziatüririk zen.

Hortik partitüririk, Ximun Uthurralt Xiberoko Botzako beste langile batekin züan abiatü Xiberoko Botzarentako egin züan azken lana: «Pasealdi kronika» izentatüririk zen.

Xiberoko Botza Allanderi etxeka zen bai, bena Allande ere ene ustez. Behin beno haborotan erran zeikün ebilbide ala pasealdi haboro egin nahi zütüala irratiantako.

Hatsarre batez üdan baizik ez zen igaraiten kronika hori. Allanderekin paseatzen zen Ximun, eta pasealdi horren denboran eüskararen lantzeko estakürüa beti atzamaiten zen. Lantareen izenak, barbalot, txori ala kabale kurririkari ttipi baten izena emaiten ahal züan, bena süstut bortü, erreka, okolü ala güne bakotxaren izenak barnatzen ahal zütüan.

Hor ere bertan behazaleak laketü ziren, eta lehen ebalaldiak berak haütatü balin bazüntüan, herritarrak hasi ziren deikan beren herriaren üngürüa egin dezan Allandek, berek ahatzerik ziren jakintzaren arrabiltzeko. Hala agitü zen Peio Quihillalt Ligiko merarekin eta Ligi Etxebarre izan zen arren Allanderen azken ebalaldia Xiberoko Botzarentako.

Üdüri abantxü harentako zen deseinak bazakiala azken pasealdi züküala. Etxebarren hasirik Etxebarren ürrantzeko.

Beste ekarpen hanitxen artean, xiberotarraren ezkiribatzeke hütsak xüentzen zeizkün, webgünean bena sare sozialetan ere, han zinez laket beitzen. Beste alkarte hanitx ere xüentzen züntüan eta hanitx erriz ariarazten nündüan noiztenka diplomazia güti erabilten beitzüan eta ez beiniz segür beti ontsa hartürrik zirela xüentze horik.

Hor ere xiberotar hitzak beti aitzinean ezarten züntüan, erabiltez «xiberotarez “hala” erraiten da» batuzko hitz bat erabilirik zelarik.

Ene aldetik hüttx prunki egiten düütü orano, bena ez beiniz eüskaraz eskolatürrik izan lagügarri izan zait, eta aisago zen prefosta xüentze horien honartzeko.

Gure webgünearen xüentzale izan da ere bi urtez, artikülü bakotxak arrakurten eta xüentzen züntüan (egünkal bi). Horrez gain ez züntüan simpleki xüentzen, bena gorriz markatzen hütsak eta inportantena markatzen zertako ez zen xüen eta zertako hala ezkiribatzen zen eta ez hala.

Uste düüt hor Allanderen lan nausiak aipatü düütüdala, nahiz eta beste lan xehe hanitx balinba ez diren agertüko.

Ez düüt ihor ere espantatüko erraiten badüt haren mentsa egün oroz senditzen dügüla Xiberoko Botzan ez girelarik akort hitz ala erraiteko manera barentako. Zürkaitzirik gabe ere, zühainak jarraiki behar dü handitzen, agian okerxka.

Ez dügü esperantxa galtzen ordai baten atzamaiteko, Allanderen gisa naturalki inposatüko dena xiberotar eüskararen erreferentzia berriaren izateko. Gihaturen artean üxü aipatzen dügü, eta Tittika Rekalt, Maider ala Jean Michel Bedaxagarren izenak elkitzen dira arraheinki. Geroak erranen. Bena segur dena da Allanderekin dügün pasealdia ez dela ürrentürrik, oritzapen eta artxiba leherra beütütügü harekilan eginik.

Baikorki ürrentzeko, Xiberoko Botza bizi deno Allande eta bihotzean züan xiberotarra ez dira egiazkin hiltzen ahal...



## *Bortükariak*

Jean-Claude Séhébiague  
*Irakaslea. Sü Azia elkarteko kidea*

Allande Socarros, Eüskal kültüran, politikan, kazetaritzan... ezagütürik bazen, horrez gain beste inganio zonbait bazüan, hala nola lagünekin ebiltea. Gisa horrez dü «Bortükariak» deitürik Xiberoko ebilzale alkarte batetan urte hanitx igaran.

Alkartea 1980 altean Atharratzen sortü zen, bena hatsarrear ez baitezpada ebilaldi antolatzeko xedearekin. Püntü hartan, hanko ikastolak gaüaldi, kantaldi e.a. antolatü nahi bazüan, ordüko merak edo aüzapezak aldi oroz eza emaiten züan gela prestatzeko izan ledin edo beste. Ordüan züen ikastolako aitetamek deliberatü alkarte baten sortzea (Bortükariak), gero haren izenean, eman dezagün gela baten galtatzeko Atharratzeko herriko etxeari, erran gabe prefosta ikastolarentako zela.

Ondotik, ontsa orit baniz, Muskildiko talde batek züan alkarte arrahartü eta urte zonbaitez etxeki, ordüan bai ebilaldi egiteko.

Hartarik landa, 1990 altexean, Allanderekin alkartearen segida hartü günüan. Xüxen, nor ginen edo zonbat ginen ere ez nakike. Pentsatzen düet haboro-xeak xiberotar ginen. Gero badakit emeki-emeki denborarekin zabaltzen hasi zela eta jenteak bestetarik jiten hasi, haboroenik Baxe Nafarroatik eta Bearnotik ere bai. Segür ere ahomihiz aipatzen zen eta hola ebilzale berriak agertzen.

Allanderentako lehentazüna zen Xiberoko bortüen ezagütaraztea. Düdagabe bai, bena zonbait baginen pentsatürik Xiberoko üngürüa bertan eginik zatekeala eta lüzaran hürrünago joan behar günükeala.

Eta hori zen agitü ere. Xiberoan prefosta bena Eüskal Herri barneko aldean edo Bearnoan antolatzen günütüan ebilaldiak. Zonbait aldiz hürrünago ere joaiten ginen Pirineo beste gaintialat eta aterbe batetan gaüa igaraiten.

Alkarte orotan bezala, bülegoa bazen eta horren üngürüan lagünzaleak. Artetarik, algarretaratzen ginen elkaldien egütegi baten prestatzeko. Bilküra horik oroer zabalik ziren eta lehen-lehenik ebilaldi bat proposatü nahi züener. Üsüan, hilabeteko ebilaldiak antolatzen günütüan eta ahalaz güne ezbardinetan (Eüskal Herrian, Bearnoan...). Hartara gabe, elkaldia ez bazen ezagütürik, esprabü bat egin behar zen, jakiteko zoin izaten ahal ziren nekeziak (zonbat oreneko ebiltea, zonbat metra petigora e.a.). Sail hortan, Allande laket zen,



karta (mapa) bat har eta txerkatzea nontik igaraiten ahal zen (G.P.S. eta holarik ez beitzen ordüan).

Ebilaldiak, astean behin ziren eta ontsalaz igantez, jente hanitxen pausü egüna beita. Hartako doia, neskenegünez ere elkitzen ginen bena saldo ttipiagotan.

Allande alkarteko süstazaleetarik zen, harek züan oroen arteko lotüra egiten. Hala nola, ebilaldi bezperan, telefona ihardesgailüan, mezü bat üzten züan biharameneko elkaldiaz xehetarzün zombaiten emaiteko (norat gei günüan, abiatzeko tenorea... non ez zen ezeztatzeko, denbora txarragatik, hura ere agitzen beitzen).

Ebilaldi egünean, hitzordüa beti ber leküan günüan, Maulen gaü eskola kantüan. Allande kasik aldi oroz hor zen, ez beti bardin trenpüan bereziki goizik partitü behar bazen, beitaigü Allande ez zela batere goizanko edo goiztiar horietarik. Ata, üdan ja, beroak handi izaten ahal direnean, hobe da goizik joanik.

Erran bezala, zombait aldiz heltzean Allandek soa beltz balinbazüan, bertan igaraiten zeion ere. Arraileria maite züan, besteen ehakinaren egitea (erran-gabea, egün hartan, hor ez ziren jenteen ehakina egiten züan).

Badakigü argazki egiten zoinen laket zen Allande. Horri esker, «Bortükariak» denborako oritzapen hanitx badügü. Ebilaldi horietan, üsü agitzen zeion lasterraren hartzea aitzinaxeago jarteko eta ebilzale taldearen argazkitan hartzeko.

Gertaldi ttipi baten aipatzeko, beste hanitxen artean. Behin, GR 10 xenda famatüan ginelarik Larraineko gaintian, lagün batek hamar bat igeltsü granada (grenade en plâtre) atzaman züan, nekez baizik armadaren trebatze zombaitetan han üzirik. Pentsatürik ez zirela granada hurak han üzten ahal, jente hanitx igaraiten den xenda baten bazterrean eta agerian, bildü günütüan xüxen jakin gabe zer egin behar zen eta norbaitek erran züan Atharratzeko hedexuritegiala eramaiten ahal günütüala. Orit niz segidan Allandek erran züala ez zela bera joanen, ez zela hedexurien aitzinean agertü nahi granada hurak esküetan. Allanderen gazte denborako gorabeherak ezagützen dütügüentako, ezeztatze hori ez zen batere harrigarri.

Allanderen Hegoaldeko lankide zombaiti esker ere (*Berria* egünkarikoak), ebilaldi ederrik badügü eginik. Baten aipatzeko: Aralar mendiaren traukatzea. Autobüsez joanik, gidariak Nafarroako gaintian ützi güntüan eta gaüan Gipuzkoan arrahartü. Egüaldi ezinago eder baten oritzapena badüt.

Agitzen zeikün ere, üdan eretzeko, gaüko ebilaldi antolatzea. Laxüki, denbora zohardi behar zen eta argizagibetearekin hobe orano. Ülüntzean abiatzen

ginen eta orenak igaraiten ebilten. Behin, orit niz, Bizkarzerik (Orri kantüan), Iruña San Ferminetako sützarrasta edo süziriak ikusirik.

Bestalde, «ebilaldi jarraikiak» deitürik elkaldiak urtean behin antolatzen günütüan. Oroer zabalik ziren eta ahalaz jente hanitx jinarazteko, irrati eta egünkarietan aipatzen günütüan. Egia da egünaldi horiek üsüan arrakasta handia züela. Bena horien antolatzeko jente beharra bagünüan. Lehenik, esprabü bat egiten günüan, bereziki jakiteko ützüliaren egiteko zonbat denbora behar zen. Ordüan günüan deliberatzen ebilaldi harek nonbait han zonbat oren iraüten züan. Bezperan ebilbidea seinalatü behar zen. Ebilaldi egünean berriz lagünzale beharra bazen, hala nola bidean bizpalau lekütan «kontrolak» behar züen, segür izateko ebilzaleak oro xenda honetik igaraiten zirela. Egünaldiaren ontsa ürrentzeko eta oro heltü ondoan, gela batetan algarretaratzen ginen buxi baten jateko eta memento bat goxorik igaraiteko. Sari ttipi bat ere eskentürik zen, ebildaldiaren egiteko gühaurk emanik iraüpen edo denboratik hüilänenik ziren taldeer.

Allandek beti erraiten züan ontsa zatekeala jenteer bortüalat berak joaiteko gogoaren emaita. Agian xede horrekin günütüan gäüaldi ttipi eli bat proposatzen, iparrorrazaren erabilteko, karten irakurteko e.a. Hori zen teoria, eta biharamenean, bortüan, üsatü bezala seinale zonbait han hor ezar eta, jenteak taldeka haien txerkara igorten günütüan. Segürki, zonbaitentako interesgarri zen, bena badüt ustekeria beste elibatek memento goxo bat igaraiten züen ber, ez züela hortaz axol handirik.

Alkartean, ebilaldietarik kanpo, besterik ere bagünüan. OLA egingeia aipatü nahi nüke, hori zen Xiberoko ola zonbaiten berritzeko xedea. Artzain ola zaharren ez galtzera ützeko europar programa bat zen. Lehen aldian, orai düala hogeita hamar bat urte, proposamena üken günüan jakiteko, ea holako xede baten gure gain hartzeko edo бүrützeko prestik ginenez. Eztabadatü ondoan, honartü günüan, sosa franko aisa emaiten beitzüen püntü hartan. Alde hortarik ez zen arrenkürarik. Eta bestalde, Xiberoko zindikata edo botingoaren lagüngoari esker бүrütü ahal izan günüan. Gure egitekoa zen lehenlehenik jakitea zoin ola eta zer balintzetan haütatü behar zen. Ahalaz, Bortüko güne ezbardinetan izan behar züela erabaki günüan (nahiz eta Ardane eta Pixta ez diren algarretarik hürrün). Gure balintzetarik bat zen ere, ola horietarat ez autoz heltzea. Ola zaharrak, haboro erabilirik ez zirenak ere behar günütüan. Haütüa egin ondoan, ola horien partzuerren baimena behar zen. Erran nahi beita, hasteko, zoin ziren eta zonbat ere xüxen jakin behar günüala, gero gure

xedea zer zen jakinarazteko (ola zaharraren berritzea; lanak egin ondoan, ebilzaleentako zabalik üztea...), parteliantek prefosta jabegoa begiratzen züelarik. Badakit Allandek lan hortan gogo honez erauntsi züala, jabeekin harremanetan sartzeko e.a.

Bigerren aldian, 2008 altean, xehetarzünetan sartü gabe, erraiten ahal düt hanitxez gaitzago izan zela, sos lagüngoaren ükeiteko baizik ez bazen. Doi-doia erraiteko ere, ordüan Santa Grazin Garanagerre eta Larrainen Oladübi eta Zihingolatzeko olak zirela berritürik izan.

Üdüri zait, Allandek alkartea 2010ean ützi züala. Kide zonbaiten ikusmoldearekin ez zen batere ados. Bestalde, azken urte horietan, «Bortükariak» alkartea ez beitzen sobera arraheina, berriz bultzatzea aipatzen günüan. Allande, alkartekide ohiekin berriz harremanetan sartürik zen. Arrahasten ginen ebilaldi edo apairü ttipi zonbaiten egiten.

Beste geietan ere, xenda xahatzea aipatzen günüan, igaraile güti delarik, xendak lüzean, kaparrak hartürik, galtzen beitira.

Orai guri, Allanderen oritzapenetan, sail horien aitzina eramaitea.

Bi hitzez orano erraiteko, Allande, pentsatzen ahal düzüen bezala, Xibero-ko bidexka eta xendeetan ezinago laket zela. Bide erakusle häütüa ere günüan bai bazterren, edo orokorki gure herriaren aipatzeko.

*Allande Socarros gogoan,  
Zuberoa ikusmiran*

Andres M. Urrutia Badiola

*Euskaltzainburua*

Lerro hauek idazterakoan, ez dakit zehatz-mehatz zeri egin kasu gehiago. Allande Socarros adiskidea gogoan izatea eskatzen dit nire buruak; aldiz, haren figurak ezinbestean narama Zuberoako herrialde euskaldunera. Hona, bada, lehen-lehena eta hasierako egiaztapena, bata bestea gabe ezin ulertzekoak baitira nire barnean.

Izan ere, Euskaltzaindiak eman dit aukera gure Allande ezagutzeko, berra euskalgintzan ezaguna ez ezik, betidaniko kazetari fina izan dugulako gure artean, nazioarteko kontuei adi-adi. Hala ere, horrek ez dio oztopatu zuberera eta euskara batua fermuki estekatzea. Horretan bat egin dugu askok, Euskal Herriaren beste muturrean bizi garenok, Bizkaian alegia, aspalditik sostengatzen baitugu ideia berbera. Nork bere tradizioetik abiatu eta horiei muzin egin gabe, bestelakoen bila joatea eta batez ere, batzen gaituen euskara estandar horren muina zinez asmatzea.

Allanderekin hitz egiteko lehen parada Euskararen Akademiak egokitu zidan, Battittu Coyos euskaltzain osoaren sarrera hitzaldia gertatu zenean. Maulen ginen eta poz handiarekin errezibitu genuen Coyos Zuberoako euskaltzain oso moduan lurralde horretako akademiko zuberotarren zerrendan. Handik urte batzuetara, Allande Socarros ere ekarri genuen Zuberoako euskaltzain urgazleen hurrenkerara, horrela aitortuz bi-bion merituak eta merezimenduak.

Laudoriotan aritzea ez zuen Allandek maite; ekintzetan, ordea, hor-han-hemenka ekimenak antolatzen eta ekitaldiak moldatzen, maisu eta eragile gorena zen Socarros. Sona eta aipu handiko kazetaria, idazlea, bultzatzailea, irakaslea, etnografoa, euskalaria... haren alorrak lerro laburretara ekartzea luzeegi joango litzaiguke. Hitz sotiletan adierazteko: gizona eta lurra, lurra eta gizona, Zuberoako lurak ematen dituen gizaseme eta gizalaba aparteko horietarik euskararen mundura etorria.

Mendebaldetik datozkizu orain, Allande Socarros adiskidea, esker onak eta engaiamendua, oraindik ere baditugulako lan batzuk, bururatu beharko ditugunak! Artean, hona gure omenaldi xumea baina sentitua, zure eginikoen mailara iristen

ez dena baina zure lekukotza etorkizuneko euskal belaunaldien eskuetara eraman nahi duena. Hor dituzu, zure testuekin batera, hainbat testigantza, zure bizitzaren berri ematen dutenak, eta zure ezaugarrietara bilbatzen direnak.

Oraindik gogoan dut, bizi-bizian, behinolako gertaera. Euskaltzaindiaren izenean Mauleko Kultura Etxera joanik Bilbotik, zu Martzel Bedaxagar adiskidearekin batera, Sü Azia elkartearen nondik norakoak erakusten, eta horien artean, zure hiztegia, zuberera eta euskara batua uztartzen dituen. Holakoak dira euskaldunentzat baliagarriak eta lagungarriak. Horrexegatik berresten dut idazti honen bitartez orduan Euskaltzaindiaren izenean esan nizuena: *Horra bide, horra etorkizuna!* Zalantzarik ez izan, Allande, zauden lekuan zaudela, aintzat hartuko dugula zure lana.

Lan handia egin duzu eta hala eta guztiz ere, umezurtz utzi gaituzu. Orain guri dagokigu, zuk jorraturiko lorratzetik aitzina joatea, asmo eta lan berriak sustatzen eta aldezten, sinergiak eta teknologia berrien ildoak bilatuz.

Joan zatzaizkigu, Allande, baina gurekin zaude. Lanean jarraituko dugu zure gomuta gogoan eta euskara ezpainetan ditugula. Zuberoa eta Euskal Herria bat datoz zure bitartez eta badakigu bati muzin egin gabe, bestean ere jarduteko ahala badugula, herria, kultura eta hizkuntza bat eginez.

Behinolako Bela zalduna zuberotarrak idatziriko hura betor gure buruetara: *Leben hola, orain hala, gero ez jakin nola.* Guk, aldiz, eta zuri esker, Allande, badakigu gerogarreneko hori, zati batean bederen, euskaraz nola moldatu eta eskuratu: *Ekin eta jarrai!*



Allande Socarros Erretziñ, Atharratze eta Montori artean







